

Enpresa Zuzenbidea

Ibon Viteri Zubia Irakaslea(k)

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEKO
ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA**

I.- IKASGAIA

ZUZENBIDEA

AURKIBIDEA. 1. Zuzenbidea eta gizartea. 2. Zuzenbidearen kontzeptua. 3. Zuzenbidea eta Justizia. Zuzenbide Naturala eta Positiboa. 4. Zuzenbide Publikoa eta Pribatua. 5.- Zuzenbide-estatua eta botere-banaketa. 6.- Zuzenbide Zibila 7.- Kode Zibila

1.- ZUZENBIDEA ETA GIZARTEA

Zuzenbidea gizabanakoak batera bizi direnean sortzen da. Zuzenbidea gizabanakoen elkarbizitzaren eta harremanen arautze nahitaezkotzat jotzen da. Gizabanakoen arteko gatazkak konpondu egin behar dira, jakinik bakoitzari zer dagokion (*segurtasun juridikoa*). Denon zereginak zaintzeko, beharrezkoa da agintari komun bat.

Erregela juridikoak

Gizarte guztietan, nahitaezkoa da elkarbizitza ahalbidetzen duen *jarduera-erregelen sistema* bat. Agintari boteredun batek ezartzen dituen, erregelak eta horiek betetzeko derrigortasuna *juridiko* bilakatzen dira. **Erregela juridikoen multzoak Zuzenbidea** eratzen du.

2.- ZUZENBIDEAREN KONTZEPTUA

Zuzenbidea, zentzu objektiboan, zera da: gizabanakoek beren arteko harremanetan gorde behar dituzten *jarduera-erregelen* multzoa. Erregela horiek eskuduntza duten organoek (*legegileek*) ezartzen dituzte. Halaber, arau horiek bortxaz ezartzen zaizkie herritarrei: betetzen ez badituzte, zigorra jasan beharko dute. Erregela horien azken xedea gizabanakoen arteko harremanak arautzea da, eta, aldi berean, interes kolektiboak eta indibidualak babesten dituzte.

Elkarbizitzaren antolakuntzak agintari baten premia dauka. Agintari horrek arauen eraginkortasuna bermatu behar du eta interes orokorrak zaindu behar ditu (*botere exekutiboa*). Halaber, taldeko edo gizarteko kideen arteko gatazkak edo auziak ebatzi behar ditu (*botere judiziala*); era horretan, partikularrek, haien eskubideak defendatzeko, indarkeria erabiltzea galarazi behar du.

Zuzenbidea ez da erregela multzo bat bakarrik. Aldi berean, erregela horiek betearazten dituen antolakuntza da. Batak eta besteak **ordenamendu juridikoa** eratzen dute.

Ordenamendu juridikoa giza erkidego jakin bati dagokio, eta haren gaur egungo eta iraganeko kideen legatu eta oroitzapenez eratuta dago. Ordenamendu juridikoa erkidegoaren historiaren eta kulturaren zati da. Halaber, bizitza propioa

duen eta etengabe garatzen ari den erakundea da. Batak eta besteak lotura dute herriaren bizimoduarekin eta izaerarekin.

3.- ZUZENBIDEA ETA JUSTIZIA. ZUZENBIDE NATURALA ETA POSITIBOA

Gerta daiteke erregela juridiko bat justizia-printzipio baten isla ez izatea. Hala ere, horrek ez du galarazten Zuzenbidea justizia-balio baten gauzatze gisa aurkeztea.

Gizabanakoaren jarduerak araua betetzen badu, jarduera hori bidezkoa izango da, eta ez badu hura betetzen, bidegabea izango da.

Gauzak horrela, justizia da arau juridikoa betetzen duen giza jardueraren ezaugarri bat.

Araua bidegabea izan daiteke, hura gizateriaren ondare komuna eratzen duten printzipio juridiko nagusi batzuen kontra dagoenean.

ZUZENBIDE NATURALA

Idatzita ez dauden arauak dira. Non daude edo non dute jatorria? Arau horiek giza izaeratik eratortzen dira, gure kontzientzian baitaude jasota. Giza arrazoimenean dute jatorria, eta arrazoimenari esker ezagutzen ditu gizakiak.

Gizarte bakoitzeko kideek onartzen dituzten printzipio etiko edo moralak dira. Arau juridikoak iradokitzen dituzte, alegia, arauak printzipio horietan oinarritu behar dute.

ZUZENBIDE POSITIBOA

Batasun politikoak onartzen duen arau multzoa da. Agintariek betearazten dituzten erregela juridikoak.

4.- ZUZENBIDE PUBLIKOA ETA ZUZENBIDE PRIBATUA

Zuzenbide Publikoak interes kolektiboen kudeaketa du objektutzat: zergak batzen ditu; delituak aurreikusten eta zigortzen ditu; zerbitzu komunak antolatzen eta zuzentzen ditu, eta abar.

Lurralde gehienetan, herritarrak haien bizitzaren jabe dira, estatuak esku hartu gabe: beren gauzak dituzte; elkar kontratatzen dute; ezkondu egiten dira; seme-alabak izaten dituzte; jaraunspena jaso dezakete, eta abar. Zuzenbide Pribatuak arautzen ditu gizabanakoak partikular gisa dituen harremanak.

Partikularren eta estatuaren arteko harremanak Zuzenbide Publikoko harremanak dira. Estatuak, betiere, subiranotasunez eta partikularrekiko nagusitasun-egoera batetik jarduten du.

ZUZENBIDEA			
Ikuspegi objektiboa: arau multzoa		Ikuspegi subjektiboa: eskubidea	
	ZUZENBIDE PUBLIKOA		ZUZENBIDE PRIBATUA
	Botere publikoa	<i>Subjektuak</i>	Partikularrak
	Zerbitzu publikoa	<i>Objektua</i>	Interes pribatuak
	Mendekotasuna	<i>Harremana</i>	Berdintasuna
	Derrigorrezkotasuna	<i>Arauen izaera</i>	Xedapenezkoak
A D A R R A K	Konstituzionala Administratiboa Prozesala Penala Fiskala Nazioartekoa		Zibila Merkataritzakoa Lan Zuzenbidea

5.- ZUZENBIDE-ESTATUA ETA BOTERE BANAKETA

ZUZENBIDE-ESTATUA

Zuzenbide-estatu estatu-eredu bat da. Estatu-eredu horretan, boterea nazioaren ordezkariak ezartzen duten legearen menpe dago. Halaber, legeak berak errespetatzen ditu gizabanako eta herritarren eskubideak eta askatasunak. Eskubide eta askatasun horiek legea egiten duen organoaren borondatearen aurretikoak dira, eta hari nagusitzen zaizkio.

Espainiako Konstituzioaren (EK) 1.1 artikulua honela dio: *Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamendu juridikoaren balio gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa.*

GOBERNU MOTAK ETA BOTERE-BANAKETA

Subiranotasun nazionala Espainiako herriari dagokio, eta harengandik datozkio Estatuari botereak (EKren 1.2 art.).

Botere horiek honela banatzen dira:

1.- **Botere legegilea.** Parlamentuari dagokio. Espainian *Gorte Nagusiak* dira, eta Diputatuen Kongresuak eta Senatuak eratzen dute. Horiek Estatuaren botere-legegilearen jabe dira; haren aurrekontuak onartzen dituzte; gobernuaren jardura kontrolatzen dute, eta Konstituzioak emandako eskumenak dituzte.

Diputatuen Kongresua. Haren funtzio nagusia legeak egitea da. Horretaz gainera, parte-hartze erabakigarria du gobernuaren presidentearen izendapenean. Gobernuaren dimisioa lor dezake *gaitzespen-botoaren* bitartez. Azkenik, gobernuak bere kudeaketa politikoaren erantzukizuna izango du Kongresuan. Probintzia bakoitzak gutxieneko diputatu kopuru bat du. Gainerako diputatuak probintzia bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera banatzen dira.

Senatua. Legeak berresten dituen erakunde bat da. Hausnarketa-gaitasun handiagoa eskatzen zaio. Halaber, autonomia-erkidegoak ordezkatzeko dituen. Probintzia guztiek senatari kopuru bera dute.

2.- **Botere exekutiboa**

Gobernuak du. Estatuaren barneko eta kanpoko politika erabakitzen du. Estatuaren defentsa eta administrazio zibila eta militarra zuzentzen ditu. Gobernuak funtzio exekutiboa eta erregelamendu-ahala gauzatzen ditu, Konstituzioarekin eta legearekin bat etorritik. Gobernuaren jarduna haren presidentek zuzentzen du.

3.- **Botere judiziala**

Legeen ahotsa da. Ez dauka borondate propiorik. Halaber, haren lan nagusia eta bakarra arau juridikoa aplikatzea eta betearaztea da.

Justizia herritik eratortzen da, eta botere judiziala osatzen duten epaileek eta magistratuek erregaren izenean administratzen dute. Epaile eta magistratu horiek independenteak eta erantzuleak dira, eta legea bakarrik obeditzen dute.

4.- **Erregea**

Erregea estatuaren burua da, haren batasunaren eta iraupenaren ikurra. Erakundeen jardun arauzkoa ebazten eta moderatzen du. Nazioarteko harremanetan Espainiako estatuaren ordezkari nagusia da, eta Konstituzioak eta Legeek esanbidez esleitzen dizkion funtzioak dagozkio:

- . Legeak berroneste eta aldarrikatzea.
- . Gobernuak horrela eskatzen badio, aholkua ematea eta artekari-lanak egitea.
- . Botere-krisialdietan eta grazia-neurriak hartu behar direnean, parte hartzea (ohoreak eta indultuak).
- . Indar armatuen aginte gorena du.

Koroa jaraunspenez jasotzen du. Oinordetzak arauzko premutasun- eta ordezkari-hurrenkerari jarraituko dio. Hurbilen dagoen mailak baztertu egiten du

urrunago dagoena. Halaber, gizonezkoa andrazkoari nagusitzen zaio, eta zaharra gazteari.

6.- ZUZENBIDE ZIBILA

ZUZENBIDE ZIBILAREN KONTZEPTUA

Zuzenbide Pribatuaren arlo garrantzitsuena da. Partikularren arteko harremanak arautzen ditu, batez ere, interes pribatuen ikuspuntutik. ***Zuzenbide Pribatu orokorra*** da, hau da, merkataritza- edo lan-ordenamendu bereziek berenganatu ez duten Zuzenbide Pribatuaren zatia.

Zuzenbide Zibila Erroman sortu zen. Garai hartan, esanahi zabalagoa zuen. Zuzenbide Zibilak bat egiten zuen klase sozial baten Zuzenbide Publiko eta Pribatu guztiarekin. Klase sozial hori Erromako herritarrek ziren. Haiei Zuzenbide Zibila aplikatzen zitzaien. Erromako herritartasunik ez zutenei, berriz (alegia, atzerritarrei), *jendeen zuzenbidea* (edo *ius genttium*) aplikatzen zitzaien.

Erromako Zuzenbide Zibilak iraun egin du. Erdi Aroan, Zuzenbide Zibil hura berenganatu eta onartu zuten estatu eta hiriek Zuzenbide Pribaturako bakarrik baliatu zuten, Zuzenbide Publikorako bai baitzituzten beren erregelak (ogasun-, zigor-, administrazio-zuzenbidea, eta abar). Handik aurrera, partikularren estatutuak eta harremanak izendatzeko erabili zen Zuzenbide Zibila.

Industria Iraultzarekin Lan Zuzenbidea sortu zen. Eta badago, halaber, Nekazaritza Zuzenbidea ere.

Hala ere, gaur egun, Zuzenbide Zibilaren barruan daude gizabanakoari zuzenean eragiten dioten ordenamendu juridiko pribatuaren arloak. Zuzenbide Zibilak zera hartzen du aintzat:

- Pertsona bera (*nortasun-eskubideak*).
- Pertsonak funtzioak eta eskubideak egikaritzeko duen gaitasuna.
- Norbera edo beste batzuk lotzeko pertsonak duen gaitasuna.
- Pertsonaren familia-harremanak eta hurrenkerak.

Laburbilduz, Zuzenbide Zibilak pertsona hartzen du aintzat, haren familia-eremuan zein haren ondarezko harremanetan.

7.- KODE ZIBILA

Zer da kode bat? Erregela organiko, menpeko eta koordinatuak dituen ***erregela-sistema*** bat da. Erregela-sistema horrek orokorra eta osoa izatea du helburu. Halaber, erregela horiek erakundeen arabera antolatuta daude, eta labor-labor idatzita. Azkenik, garai batean eta lan bererako idatzita daude. 1812ko Cadizeko Konstituzioan (*La PEPA* delakoan) zera aldarrikatzen da: Zuzenbide

Zibila eta Zigor Zuzenbide guztia jaso eta antolatuko duten kodeek iturri historiko zaharrak ordezkatu dituzte. 67 urte geroago, Kode Zibila 1889ko uztailearen 25, 26 eta 27ko Gazetan publikatu zen. Zergatik hainbeste denbora? Gobernuak eta Parlamentua ez ziren ados jartzen Foru Zuzenbideen gainean. Azkenean, errespetatzea erabaki zuten (1880), eta, horrenbestez, Kodea egin ahal izan zen.

2.- IKASGAIA

ZUZENBIDE OBJEKTIBOA

AURKIBIDEA. 1.- Arau juridikoa. Motak. 2.- Zuzenbidearen iturriak. 2.1.- Legeak, Zuzenbidearen iturri gisa. 2.2.- Ohitura, Zuzenbidearen iturri gisa. 2.3.- Zuzenbidearen printzipio orokorrak, Zuzenbidearen iturri gisa. 3.- Ekitatea. 4.- Jurisprudenzia. 5.- Arau juridikoen interpretazioa eta aplikazioa. 6.- Arauen eragina.

1.- ARAU JURIDIKOA. MOTAK

KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

*Pentsio jakin batekin jubilatzeko eskubidea daukat (eskubidea, ahalmen gisa). Kasu horretan, **ESKUBIDE SUBJEKTIBO**ari buruz ari gara.*

Baina, legegileak erretiroaren baldintzak ezartzen baditu, arauak ezartzen ari da; alegia, **ZUZENBIDE OBJEKTIBOA**.

Arauak orokortasuna eta abstrakzioa ditu ezaugarritzat. Arauak hipotesi bat proposatzen du, eta ondorio bat ezartzen du kasu hori gertatzen denerako; adibidez: *seme-alabek, gurasoak testamentua egin gabe hiltzen direnean, haiei oinordetza hartzeko eskubidea izango dute*. Araua ez da eman Jonentzat edo Mikelentzat, baizik eta era abstraktuan, pertsona zehatz bat kontuan hartu gabe. Era orokor eta abstraktuan egin da.

Koaktibitatea da arau positiboaren beste ezaugarri bat. Zerbait agintzen du; alegia, araua ez da arau legegileak haren derrigorrezkotasuna aldarrikatu duelako, baizik eta onartzen ez duenari indarrez betearaz dakiokelako.

Arau mota hauek bereizten dira:

Derrigorrezkoak. Subjektuari jarduera aktibo edo pasibo jakin bat ezartzen diote. Subjektuari ez diote autorregulatzeko aukerarik ematen; adibidez, oinordetza-kontratua debekatzen duen araua.

Xedapenezkoak. Borondate partikularrak ordezkari edo ezaba ditzake. Ez badira baztertzen —hau da, indarrean sartu eta gero—, derrigorrezkoek bezala behartzen dute, eta ezingo dira aldatu harremaneko subjektu guztien oniritzirik gabe (salmenta).

2.- ZUZENBIDE-ITURRIAK

Zuzenbide-iturriak dira arauak ekoizteko bitartekoak: sortzeko eta ezagutarazteko erabiltzen diren tresnak. Kode Zibilaren 1.1 artikulua zerrendatzen

ditu: *Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak.*

2.1. LEGEA, ZUZENBIDEAREN ITURRI GISA

Kode Zibilak, legeari buruz hitz egiten duenean, aipamen egiten dio botere publikotik eratortzen den esanbidezko arauari. Arau horiek idatziz ezagutarazten dira; alegia, Estatuaren arauak aldizkari ofizialean argitaratu eta gero sartuko dira indarrean (Estatuko Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial del Estado, **BOE**).

Legeak mugagabeak dira. Legeak derogatzeko modu bakarra dago: geroko lege baten bitartez. Legeak indarrean sartzen dira haiek aldarrikatuz eta argitaratuz. Konstituzioaren arabera, erregeari dagokio legeak berrestea eta aldarrikatzea, baina gobernuaren presidentek baietsi beharko ditu erregearen egintzak.

Erregeak hamabost eguneko epealdian berretsiko ditu Gorte Nagusiek onartutako legeak, eta berehala aldarrikatuko ditu, haiek argitaratzeko aginduz.

Legeak indarrean sartuko dira, BOEn osorik argitaratu eta hogeitun egunen buruan, betiere, legean bertan besterik ezartzen ez bada.

Epeari dagokionez, argitalpen osoaren ondorengo egunetik hasiko da kontatzen.

Argitaratu ez diren xedapen orokorrek ez dute behartzen.

Erregela orokor gisa, arauak ez dute atzeraeraginkortasunik; onerakoek, bai; kalterakoek, ez.

LEGE MOTAK

Konstituzioa. Herriaren oinarritzko legea da. Konstituzioan pertsonaren oinarritzko eskubideak definitzen dira, eta eraentza politikoaren lerro nagusiak diseinatzen dira.

Lege organikoak. Gai hauek arautzen dituzten legeak organikoak dira:

- Oinarritzko eskubideak eta herri-askatasunak garatzen dituzten legeak (Zigor Kodea).
- Autonomia-erkidegoen Estatutuak onartzen dituzten legeak.
- Hauteskunde-eraentza orokorra.
- Konstituzioak ezar ditzakeen beste gai batzuk.

Lege arrunta. Diputatuen Kongresuan dauden diputatuen gehiengoa bakarrik behar du. Lege arruntaren maila bera duten beste lege mota batzuk dira lege-dekretuak eta legegintza-dekretuak.

Lege-dekretuak. Exekutiboak ematen ditu larrialdiko edo premiazko arrazoiengatik. Diputatuen Kongresu osoak berehala eztabaidatu eta bozkatu beharko ditu. Kongresua ez badago bilduta, lege-dekretua aldarrikatu ondorengo hogeita hamar egunetan bilduko da, aipatutako eztabaida eta bozka egiteko. Epealdi horretan, Kongresuak esanbidez adierazi beharko du lege-dekretua berretsi edo

derogatu egiten duen. Adib.: *Uholdeak direnean, diru-laguntzak lege-dekretu bidez ematen dira.*

Legegintza-dekretuak. Kasu honetan, Gorteek gobernuari eskuordetzen diote lege-mailako arauak emateko ahala. Eskuordetze hori materia zehatz batzuetan egin daiteke.

Arauen arteko harremana hierarkikoa da. Hau da, maila txikia duen arau batek ezin du derogatu maila handiagoko arau bat. Adib.: *Lege arruntek zein estatutuek ezin dute Konstituzioak ezartzen duena derogatu.*

2.2.- OHITURA, ZUZENBIDEAREN ITURRI GISA

Zuzenbidea sortzeko era natural edo herrikoa da ohitura. Hura izan zen Zuzenbideak adierazteko izan zuen lehenengo edo jatorrizko forma. Kodegintzaren mugimenduaren ondorioz, ohiturak bere egitekoa galdu zuen, eta, horrenbestez, bigarren mailako zuzenbide-iturri bilakatu zen. Lehen mailakoa legea da. Legeak ohitura baztertzen du. Kode Zibilak ez du definitzen zer den ohitura.

Esan denez, ohiturak legerik ezean arautuko du.

Doktrinak honela definitzen du **ohitura**: leku, eskualde edo lurralde bateko biztanleek denbora luzez errespetatu duten jokabidea. Era horretan jarduten duenak arau juridiko baten arabera jarduten duela pentsatzen du. Zuzenbide-erregela isileko baten existentzia eta indarraldia aitortzen dituzte, aipatutako jokabideari jarraitzen diotenean.

Ohiturak lege aplikagarriak izan ezean bakarrik eraenduko du, betiere moralaren nahiz ordena publikoaren aurkako izan ez eta ohitura hori frogatuz gero (KZren 1.3 art.).

Betekizunak:

- . Publikoa eta nabaria.
- . Denboran irautea (zentzuzko epealdi batean).
- . Ez egotea zalantzan. Eztabaidaezina izatea.
- . Pertsona mota jakin batek maiztasunez praktikatzea (lurralde bateko pertsonak, profesional batzuk, eta abar).

USADIO JURIDIKOAK

Usadio juridikoak borondate-aitorpenaren interpretazio hutsak ez badira, ohituratzat hartuko dira. (KZren 1.3 art.)

«Trafikoaren usadioek» edo «negozio-harremanetan arauzko diren jarduteko moduek» betetzen dituzte kontratuaren hutsuneak. Ohiturarekin gertatzen ez den bezala, usadioen arabera jarduten duenak ez du nahitaez pentsatu behar arau bat betetzen ari denik.

2.3.- ZUZENBIDEAREN PRINTZPIO OROKORRAK, ZUZENBIDEAREN ITURRI GISA

Legerik edo ohiturarik ezean, Zuzenbidearen printzipio orokorrak aplikatuko dira. Horrek ez du ezerezten printzipioek duten ordenamendu juridikoa iradokitzeke funtzioa.

Eskuarki, printzipioak ez dira adierazten legeak edo ohitura alde batera utziz. Printzipioak lege eta ohituren azterketa batetik eratortzen dira. Lege eta ohituren barnean daude, eta haiek iradokitzen dituzte.

Printzipio orokorrak alegatzen direnean, gatazkari aplikagarri zaion arau espezifikorik eza estali nahi da. Kasu horietan, arautze eza dela-eta, inguruabarren eta arrazoimenaren arabera ebatz dezake epaileak.

4.- EKITATEA

Arauen aplikazioan ekitatea haztatu beharko da. Hala ere, legeak esanbidez baimentzen badu, auzitegien ebazpenak ekitatean soilik oinarritu ahal izango dira. Beste era batean esanda, ekitateak arauen aplikazioa moteltzen eta orientatzen du, baina ez ditu arauak ordezkatzeko (epaileen kontzientzia).

5.- JURISPRUDENTZIA

Jurisprudentziak ordenamendu juridikoa osatuko du Auzitegi Gorenaren doktrinarekin; hain zuzen, legea, ohitura eta Zuzenbidearen printzipio orokorrak interpretatuz eta aplikatuz, etengabe ezartzen duen doktrinarekin.

Auzitegi Gorenak konponbideak eskaintzen ditu ematen dituen sententzietan. Konponbide horiek errepikatuz, legezko arauen interpretazio-zalantzak argitzen ditu.

6.- ARAU JURIDIKOEN INTERPRETAZIOA ETA APLIKAZIOA

Lege bat interpretatzea da kasu zehatz baten aurrean horrek duen zentzua azaltzea: legeak, errealitatearekin harremanetan jarriarik, zer emaitza praktikoko duen adierazi behar da.

KZren 3.1 art.: Arauak euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritu eta xedea kontuan hartuta.

ZUZENBIDEAREN HUTSUNEAK ETA ANALOGIA

Arauen aplikazio analogikoa bidezkoa izango da horiek ez dutenean kasu jakin bat aurreikusten, baina bai antzeko bat, haien artean *arrazoibide-antzekotasuna* egonez.

Ordenamendu juridiko guztiak *osotzat* jotzen dira. Ezarrita dagoen iturri-sistemak, edozein kasutan, konponbide bat eskain dezakeela ulertzen da.

Hala ere, praktikan lege-hutsuneak edo hutsune juridikoak sortzen dira, hau da, egitatezko kasuak, zeinaren konponbidearentzat ez baitago arau juridikorik aurreikusita.

Egitatezko kasu horien aurrean, normala da ordenamenduak hutsune horiei konponbidea emateko erreakzionatzea. Gure ordenamendu juridikoan, **analogiaz** lortzen da aipatutako konponbidea. Zer da analogia?

Metodo bat da. Metodo horri jarraiki, eraentzarik ez duen egitatezko kasu bati aplikatzen zaio ordenamendu juridikoak antzeko beste egitatezko kasu batentzat ematen duen konponbidea.

7.- ARAUAREN ERAGINA

A) Arauaren derrigorrezkotasuna eta legea ez ezagutzea

Legea ez ezagutzeak ez du hura betetzea salbuesten. Hala ere, kasu batzuetan, araua ez ezagutzeak erantzukizuna moteldu dezake.

B) Epailleak epaitzeko duen betebeharra

Epailleek eta Auzitegiek ezagutzen dituzten kasu guztiak konpontzeko betebeharra dute. Betebehar hori ezarrita dagoen iturri-sistemaren arabera egingo da (Zuzenbidearen iturriak).

C) Legearen kontrako egintzak eta lege-maula

Aginduzko eta debekuzko arauen kontrako egintzak erabat deusezak dira, beti ere, arau horietan ez bada kontrako jarrera horrentzat beste efektu bat ezartzen.

LEGE MAULA: arau juridiko baten babespean gauzatzen diren jarrerak dira, baina ordenamendu juridikoaren kontrako emaitza bat lortu nahian.

KZren 6.4 artikulua: *Arau baten testuaren babespean burututako egintzak legeari maula eginez gauzatu direla ulertuko da, baldin eta egintzon helburua bada antolamendu juridikoak debekatzen duen edo antolamendu juridikoaren aurkakoa den emaitza lortzea; egintza horiek ez dute eragotziko saihestu nahi zen araua aplikatu beharra.*

d) Arauak duen eraginkortasuna denboran eta espazioan

Denboran:

KZren 2.1 artikulua zera dio: *Geroko legeek bakarrik indargabetzen dituzte indarreko legeak. Indargabetzearen norainokoa beren beregi xedatuko da, eta indargabetze hori hedatuko da lege berrian gai berberari buruz aurrekoarekin bat ez datorren guztira. Lege bat indargabetze hutsagatik ez dira indarrean jartzen lege horrek indarririk gabe utzi zituenak.*

Espazioan:

- *Nahitaez aplikatu behar diren Barne Zuzenbideko erregelak.*
ZIGOR-LEGEEK, POLIZIA-LEGEEK eta herri-segurtasun legeek Espainiako lurraldean dauden guztiak behartzen dituzte.
- *Lege pertsonala.*

Pertsona fisikoen naziokotasunak zehazten du pertsona horiei dagokien lege pertsonala. Lege horrek gai hauek arautuko ditu:

- gaitasuna eta egoera zibila
- familia-eskubidea eta betebeharrak
- heriotzari jarraiki ematen den oinordetza

- *Gauza dagoen lekuaren legea («Lex rei sitae»)*

Gauzak dauden lekuko legeak arautuko ditu ondasun higiezinaren gaineko edukitza, jabetza eta gainerako eskubideak. Baita haien publizitatea ere.

3.- IKASGAIA

ESKUBIDE SUBJEKTIBOA

AURKIBIDEA. 1.- Oinarrizko kontzeptuak. 2.- Eskubideak eskuratzea. 3.- Eskubideak galtzea. Uko egitea. 4.- Preskripzio iraungitzailea. 5.- Iraungitzea. 6.- Eskubideen egikaritza. 7.- Ordezkaritza.

1.- OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Harreman juridikoa

Harreman hori pribatu zein publiko izan daitezkeen bi pertsona edo gehiagoren artean ezartzen da. Harreman horri jarraiki, pertsona batek edo batzuek, herri-boterearen laguntzarekin, gauza edo jarduera bat eska diezaiekete beste pertsona bati edo batzuei.

Eskubide subjektiboa

Subjektu batek duen botere juridikoa, beste bati zerbait eskatzeko edo denei abstentzio orokor bat eskatzeko. Adibidez, *hartzekodunak zordunari betebeharra betetzeko eska diezaioke, eta gozamen-eskubidea duenak denoi eskatu ahal izango digu errespetatzeko eskubide horren egikaritza.*

2.- ESKUBIDEAK ESKURATZEA

Eskubideak eskuratzen dira titularrarengan *ex novo* sortzen direlako, edo aurreko titular baten bidez eskuratu duelako, jatorriz edo eratorriz.

Jatorrizko eskurapena

Jatorrizko moduek ez dute harremanik eskubidearen gainean zegoen aurreko titulartasunarekin. Titularrak ez du eskubiderik jasotzen beste titular baten bitartez. Eskubidea ematen zaion une berean sortzen da. Zehatzago, eskudantziak sortzen da.

Adib.: *Okupazioaren bidez pertsona bat inorena ez den gauza baten jabe bilakatzen da. Okupazioa baino lehenago, jabetza-eskubidea ez zen inola ere existitzen. Jabetza-eskubidea sortzen da, pertsona bat, jabe izateko asmoz, gauza batez jabetzen delako.*

Erorritako eskurapena

Kasu horietan, eskuratzailer berriak beste pertsona batek zuen eskubidea eskuratzen du. Titular bilakatzen da, aurrekoak, kausa bati jarraiki, ematen diolako. Kausa horrek eskualdatzea justifikatzen du. Eskubidea jatorrizko titularrak zuen egoera eta ezaugarriekin eskuratzen da. Kasu horietan, **eskubidea eskualdatzeaz** edo **eskubidean oinordetza hartzeari** buruz hitz egiten da. Inork ezin dio beste bati ez duena eskualdatu (*erabilera-eskubidea izan eta jabetza-eskubidea eskualdatu*), ezta zamarik gabe eskualdatu ere, gauza zamatuta dagoenean (*gozamina edo zortasuna*).

«Eskualdatzea edo oinordetza eskubidean» titulu unibertsala edo partikularra izan daiteke:

- . Titulu unibertsala: ondare oso bat edo horren kuota bat eskualdatzea (jaraunspena)
- . Titulu partikularra: ez du harremanik eskualdatzailearen gainerako harremanekin (legatua)

3.- ESKUBIDEAK GALTZEA. UKO EGITEA

Eskubide baten titulartasuna kausa hauei jarraiki gal daiteke: besterentzea; subjektua edo gauza fisikoki desagertzea; Auzitegiek edo legeak kentzea; preskripzioa, eta abar.

Uko egiteak eskubide baten titularrak titulartasun hori uztea esan nahi du. Era horretan, titularrak borondatez iraungitzen du eskubidea.

Aldebakarreko egintza da: titularrak berak bakarrik egiten du. Ez da beharrezko beste inork parte hartzea. Borondateaz gainera, egintza material batzuk ere eska daitezke.

KZren 6.2 art.: *Legean aitortutako eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, bakarrik, interes edo ordena publikoa hautsi ez eta ez dietenean hirugarrenei kalterik egiten.*

Ezin zaie eskubide guztiei uko egin (egoera zibila). Ezin da uko egin hartzekodunen maulan.

4.- PRESKRIPZIO IRAUNGITZAILEA

A) Kontzeptua eta elementuak

Preskripzioa da denbora igarotzeak eskubidearen eskudantzia eta existentziaren gain duen eraginaren adierazpen nagusia; alegia, eskubideak eskuratzearen eta galtzearen kausa da.

Eskubideak usukapioz edo preskripzio eskuratzailer eskuratzen dira.

Eskubideak preskripzio iraungitzailez galtzen dira.

Legeak ezartzen duen epealdian zehar eskubidearen titularrak izan duen jarduera ezaren ondoren, preskripzio iraungitzailea ematen da. Denbora hori pasatu eta gero, zordunak bazter dezake hartzekodunak zuzendutako eskaera.

Eskubidea ezarritako epealdian ez delako erabili galduko da.

Preskripzioak *erga omnes* eragina du, hau da, edonori aurkara dakioke; eta KZren 1930.2 artikulua araberan, preskripzioaren bidez eskubideak eta akzioak iraungitzen dira, edozein motatakoak izanda ere.

B) Ustekizunak

Preskripzioaren bitartez eskubide bat galtzeko, zera eskatzen da:

- Eskubidea ez egikaritzea, ez eskatzea.
- Kreditu-eskubideen kasuan, zordunak ezer ez esatea.
- Betebehar bat betetzeko eskatzen denean, zordunak salbuespena aurkaratzea.

Eskubide bat preskripzio bidez galtzeak ez eskatzea adierazten du. Preskripzioa da galtzen den eskubidearen titularrak duen jarrera pasiboari edo nagitari ezartzen zaion zigorra. Denbora jakin batean izaten den abstentzio edo jarduera ezak preskripzio iraungitzailea sortzen du. Zorraren edozein aitortzak edo eskaerak etengo du preskripzioa.

Preskripzioaren epea, beste zer edo zer ezartzen ez bada, akzioa egikari daitekeen egunaren ondorengotik aurrera hasiko da.

c) Epeak

KZren 1962. art.: *Ondasun higigarrien gaineko akzio errealeen preskripzioa gertatzen da, edukitza galdu denetik sei urte igaro ondoren, salbu eta edukitzaileak epe laburragoan jabaria irabazten duenean 1955. artikuluaekin bat etorriz¹; galeraren eta jendaurreko salmentaren kasuetan, eta ebasketa- edo lapurreta-kasuetan ere, artikulua berberaren hirugarren lerrokadan xedatutakoa beteko da².*

KZren 1963. art.: *Ondasun higiezinaren gaineko akzio errealeen preskripzioa gertatzen da, hogeita hamar urte igaro eta gero. Adib.: bide-zorrak.*

KZren 1964. art.: *Hipoteka-akzioaren preskripzioa gertatzen da, hogeitaz hamar urte igaro ondoren; eta preskripziorako epe-muga berezirik ez duten akzio pertsonalena, hamabost urte igaro eta gero.*

Akzio pertsonalak:

5 urtean:

¹ Fede ona + etengabeko edukitza + hiru urte

² Igorpena KZren 464. artikulura

- Atzeratuta dauden mantenu-pentsioak eskatzeko kredituak.
- Hiri- edo landa-finken errentamenduaren prezioak.
- Urtean edo epe laburrago batean egin behar diren beste edozein ordainketa eskatzeko akzioak.

3 urtean:

- Zerbitzu-harremanak eta beste edozein harreman, non hartzekodunak profesional izaera baitu (abokatuak, notarioak, medikuak, botikaria, eta abar).

Urtebetean:

- Edukitza babesteko akzioak (interdiktuak) eta kalte-galeren ordaina.

d) Preskripzioa etetea

Akzioen preskripzioa kasu hauetan etengo da:

- Auzitegien aurrean egikaritzea.
- Hartzekodunaren judizioz kanpoko eskaera.
- Zordunak zorra aitortuz egindako edozein egintza.

Etendurak ez du esan nahi gelditzea, epea geldieran uztea, gero berriro kontatzen hasteko. Ez. Epea eten egiten da, igaro den denbora ezabatuz. Epea, dagokion unean, hasieratik hasi beharko da kontatzen. Berriro bost, hiru, bat, hamabost edo dagozkion urteak.

5.- IRAUNGITZEA

Hipotesi batzuetan denbora ezin da eten, berriro kontatzen hasteko. Iraungitzea saihesteko ez du balio ez judizioz kanpoko eskaerak, ezta zorra aitortzeak ere. Halaber, ez du balio akzioaren egikaritzak, ez bada irabazten. Ezin da akzioa eten. Akzioak dagozkien epean arrakastaz egikaritzen dira, edo behin betiko iraungitzen dira. Horri IRAUNGITZEA deitzen zaio.

Kodeak ez du esaten akzioa egikaritzeko epea noiz den preskripzio-epea edo iraungitzeko epea. Doktrinaren ustez, eskubideen edo eskaeren egikaritze-epeak iraungitze-epeak dira, haiek onartzeak (epaileak onartzeak) aldaketa juridiko bat sortzen dutenean. Titularrak epe hori du eskubidea egikaritzeko edo bere eskaera egiteko.

Preskripzio-epeak, ordea, aldezturik existitzen den eskubide baten defentsarako egikaritzen dira. Adibidez, *bederatzi eguneko iraungitze-epea mugakideek duten atzeraeskuratze-akzioa. Kreditu-eskubideak 15 urteko preskripzio-epe orokorra du.*

6.- ESKUBIDEEN EGIKARITZA

DENBORA

Beste zer edo zer ezartzen ez bada, egun jakin batetik aurrera kontatu beharreko epeetan, egun hori kanpo geldituko da, eta ondorengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen. Epeak hilabete edo urteka adierazita badaude, data batetik bestera kontatuko da. Epemuga-hilabetearen kontaketa hasierako baliokiderik ez badago, epea hilabetearen azken egunean amaitzen dela ulertuko da.

Jaiegunak ez-egunak dira jardura ofizialentzat. Orduan, epe judizialek kendu egiten dira. Epeen kontaketa zibilean, ez-egunak ez dira baztertzen.

FEDE ONA, ESKUBIDEEN EGIKARITZAN

Eskubideak fede onak eskatzen duenaren arabera egikaritu beharko dira. Kontrako alderdiak ere fede onez jardutea espero da.

Kontratuek esanbidez hitzartu dena betetzera behartzen dute. Horretaz gainera, beren izaeraren arabera, fede onarekin bat egiten duten ondorioak bete beharko dira.

ESKUBIDEAREN ABUSUA

Legeak ez du babesten eskubidearen abusua, alegia, eskubidearen egikaritza antisoziala. KZren 7.1 art.: Egite edo ez-egite orok, egilearen asmoarengatik, egite edo ez-egitearen helburuarengatik edo berori burutzeko inguruabarrengatik, begi-bistan gainditzen baditu eskubidea egikaritzeko muga arruntak, hirugarrenari kalte eginez, orduan, kalte-ordain egokia eman beharra dakar, eta abusua jarraitzea eragotziko duten administrazio-neurriak nahiz neurri judizialak hartu beharko dira.

Muga arruntak. Ez dute bat egiten legezko mugekin; alegia, legeak eskaintzen dituen ahalmenak nola egikaritu behar diren gizartearen ikuspuntutik.

Abusua egintza ez-zilegi bat da. Hori dela-eta, 1902. artikulua aplikazio-eremuan dago; alegia, sortutako kalte-galeren ordaina zor da.

7.- ORDEZKARITZA

BORONDATEZKO ORDEZKARITZA

Pertsona batek beste bat ordezkatzeko du, beste horren izenean jarduteko ahalmena duenean. Baldintza horietan, gauzatutako egintza juridikoen ondorioek ordezkatuaren eremu juridikoari eragingo diote, ulertzen baita ordezkatuak berak jardun duela.

Ordezkarri baten bitartez jarduteko aukerak handitu egiten ditu pertsona baten akzio-perspektibak: leku askotan egon daiteke aldi berean, berez, ezinezkoa dena. Eta hori ahalbidetzen dio gai jakin batzuetan oso jantzita dauden pertsonen baliatzeak.

Hirugarrenek ordezkarria interpela dezakete. Ordezkarriari ordaindu edo hura demandatu, ordezkatua izango balitz bezala.

Ordezkaritza posible da edozein kontratu edo arlotan, norberak konplitu beharreko gaitan izan ezik. Hala ere, eremu horietan posible da NUNTIUS figurak jardutea. Beste baten borondatearen korreo hutsa da (ezkontza-botereen bidez). Ordezkarriak, ordea, gutxi gorabehera berak eratzten duen borondate bat adierazten du.

AHALORDEA EDO BOTEREA

Ordezkarriak, ordezkatuak ematen dion ahalordez edo boterez, ordezkarri-baldintza eskuratzen du. Ahalordeak ordezkarria ahalmentzen du ordezkatuaren izenean jarduteko. Ordezkarriaren jarduerak ondorioak izango ditu ordezkatuaren ondarearen gain.

Ahalordetze-negozioarentzat nahikoa da ahalorde-emailearen aldebakarreko borondatea. Ez da behar ahalorde-hartzailearen adostasunik. Ahalordeak, berez, ez du behartzen ezer egitera, ez du bere ondarea handitzen, eta ez du bere egoera juridikoa aldatzen. Ahalorde-hartzailea beste pertsona baten izenean jardun dezakeen pertsona da, baina ahalorde-hartzaile izateak ez du behartzen jardutera. Horregatik, haren borondatea ez da kontuan hartzen ahalordea emateko.

Boterea esanbidez edo isilean har daiteke. Esanbidez, ahalordetzeko borondatea hitzekin adieraziz. Eta isilean, zalantzarik sortzen ez duten egintzen bitartez (*denda baten saltzailea*).

AHALORDE-HARTZAILEAREN JARDUERA. AHALORDERIK GABEKO NEGOZIOA

Ordezkaritzak eragina izateko, beharrezkoa da ahalordea duenak ordezkarri gisa nabarmen jardutea. Nabaria izan behar du jardueraren efektu juridikoek ordezkatuaren ondareari eragin nahi diotela. Argi eta garbi utzi behar du ordezkatuaren izenean jarduten duela eta ez duela bere burua behartu nahi.

Aipatutako borondatea, esanbidezko deklarazioaz gainera, inguruabarretik erator daiteke.

Beste baten izenean jarduteko ahalmena ahalordeak ezarritako mugen barnean egikaritzen da (ordezkatuak esandakoa egin behar du ordezkarriak).

Ordezkatuaren adostasunik gabe edo hitzartutako mugak gaindituz gauzatutako negozioa, hasiera batean, deuseza izango da. Izan ere, hasiera batean posible da berrespena, baldin eta kontrako alderdiak ezeztatzen ez badu.

Berrespenak negozioari falta zitzaien zerbait gehitzen du. Berrespena aldebakarreko deklarazio bat da (ahalorderik gabe, zeinaren izenean egin baitzen negozioa). Ez du onarpenik behar. Esanbidez edo isilean berrets daiteke, baldin eta negozioaren beste alderdiak ezeztatzen ez badu.

LEGEZKO ORDEZKARITZA

Ordezkaritza mota horrek ordezkatuaren borondatea kontuan izan gabe jarduten du. Legeak ezarri egiten du kasu jakin batzuetan: ordezkaria ezgaia da edo ezgaitua dago.

Gurasoek adingabeko seme-alaben legezko ordezkariak dute. Tutoreak buru-gaixo ezgaitu baten ordezkariak dira. Absenteak legezko ordezkariak izenda daki.

PERTSONA FISIKOA ETA BERE ESKUBIDEAK

AURKIBIDEA. 1.- Nortasunaren hasiera eta iraungitzea. 2.- Pertsona fisikoaren gaitasuna. 2.1.- Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna. 2.2.- Adin-nagusitasuna eta emantzipazioa. 2.3.- Adingabetasuna. 2.4.- Ezgaitasunak eta mugak. 2.5.- Guraso-boterea. 2.6.- Absentzia. 3.- Naziotasuna, auzotartasuna eta egoitza. 4.- Pertsona juridikoa. 4.1.- Motak. 4.2.- Elkartea. 4.3.- Fundazioa

1.- NORTASUNAREN HASIERA ETA IRAUNGITZEA

KZren 29. art.: *Jaiotzak nortasuna dakar.* Eta 30. artikulua zera dio: *Ondore zibiletarako, fetua jaiotzat joko da, baldin eta giza itxura badu eta hogeita lau orduz amaren sabeletik oso-osorik askatuta bizi bada.*

Jaiotzean eskuratzen den nortasunak eskubideen titular izateko gaitasuna esan nahi du: **GAITASUN JURIDIKOA.**

Fetua sabelean dagoenean defendatu beharra dago, baina Zuzenbide Pribatuaren efektuentzat ez du artean nortasunik. Haurdunaldian, amak fetuaren heriotza eragiten duen erasoren bat jasaten badu, inork ezingo du haren izenean eta ondorengo gisa kalte-ordainik eskatu, fetuak ez baitu gaitasun juridikorik. Hala ere, gurasoek kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango dute, ondasun babesgarri baten galerak sortu dien kalte moralagatik.

Ondarezko eskubide zibilen titular izateko, ez da nahikoa jaiotzaren unea aintzat hartzea. Umeak, jaiotzen den unetik, duintasun- eta errespetu-eskubidea du: delitu baten biktima bada, delitua bere pertsonaren kontra da, eta ez amaren kontra. Alde horretatik, ez da beharrezkoa 24 ordu igarotzea pertsona izateko. Atzerapen horrek eskubide subjektibo pribatuei eragiten die. Epe horren eskaeraren arrazoia Zuzenbideko oinordetza da; alegia, bizitzeko itxaropenik ez duen ume baten jaiotzak jaraunspen-eskubideak aldatzeko aukerarik ez izatea nahi da.

Kode Zibilaren 29. artikulua dio: *...ernaldua jaiotzat jotzen da, mesedegarri zaizkion ondore guztietarako, ernalduta hori jaio bada hurrengo artikulua adierazten dituen baldintzetan.*

Nortasun zibila pertsonen heriotzaren ondorioz iraungitzen da. Pertsona bere ezaugarri guztiekin desagertzen da. Pertsonak botere- eta erantzukizun-gune izateari uzten dio. Norberak konplitu beharreko eskubide eta harremanak edo hil artekoak iraungi egiten dira. Gainerako eskubide eta harremanei dagokienez, haien oinordetza zabaldu egiten da, ondarea jaraunspen eta pertsonaren gorputza gauza (hilotz) bilakaturik.

NORTASUN-ESKUBIDEAK

Ordenamenduak giza nortasunaren hainbat arlo babesten ditu. Alderdi horiei doktrinak NORTASUN-ESKUBIDEAK deitzen die.

Ondasun eta ezaugarri horien babesak ZUZENBIDE NATURALEKOA da. Halaber, oinarrikoa da ordenamendu juridiko guztietan: konstituzio- eta eskubide-deklarazio guztietan ezartzen da. Bizitzeko eskubidea; osotasun fisikorako eskubidea; pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna; askatasuna eta gizarte-segurantza; ohorearekiko, pertsona eta familiaren intimitatearekiko eta norberaren irudiarekiko eskubidea; egoitzaren bortxaezintasuna; komunikazioen sekretua; bizilekua aukeratzeko askatasuna; joan-etorri askean ibiltzeko eskubidea, eta iritzi- eta adierazpen-askatasuna (Konstituzioaren 16.,17.,18. eta hurrengo artikulua).

Ohorearekiko, intimitatearekiko eta norberaren irudiarekiko eskubideen babes zibila arautu egiten da, eskubide horien izaera ukalezina, besterenezina eta preskribaezina onartuz.

Ohorearekiko, Pertsona eta Familiaren Intimitatearekiko eta Norberaren Irudiarekiko eskubideari buruzko Legetik eratortzen denez: *serán intromisiones ilegítimas las escuchas o filmaciones de la vida privada y la divulgación de éstas, salvo que su imagen sea pública o tenga una profesión de notoriedad o proyección pública, o si se trata de una información sobre un suceso en el que la persona aparece sin ser el centro de dicha información.*

IZENAREKIKO ESKUBIDEA

Izena ezizen bat da, zeinaren bidez pertsona bestearekiko banan-banakotu eta bereizi egiten baita.

Pertsona guztiok izen bat izan behar dugu eta izan dezakegu: ezizen bakar batez eta familiako bi abizenez osaturik.

Norberaren izenak bereizi egiten gaitu abizen bera duten pertsonetik. Amak edo aitak ematen dute Erregistro Zibilean inskribatzeko unean. Gurasorik ezean, legezko tutoreak egiten du hori. Eta aurreko horien ezean, Erregistroko arduradunak. Pertsona baten abizenak dira aitaren lehenengo abizena eta amaren lehenengo abizena. Pertsona bakarrak aitortu badu ezkontzatik kanpo izan den seme-alaba, seme edo alaba horrek aita edo ama horren bi abizenak izango ditu. Amarenak badira, abizenen ordena aldatzeko eska dezake semeak edo alabak. *Erregistroko arduradunak erabilera arrunteko izen bat eta abizen batzuk ezarriko dizkio jaiolari, horren seme-alabatasunak halakoak zehaztu ezin baditu.* (EZEren 55. art.)

Izenarekiko eskubideak ez digu ematen nortasunaren eskubideen eremuan izaera absolutua eta eskusiboa duen ahalmenik. Beste batek guk dugun abizen bera badu, ezin diogu galarazi erabiltzea.

2.- PERTSONA FISIKOAREN GAITASUNA

2.1.- GAITASUN JURIDIKOA ETA JARDUTEKO GAITASUNA

Gaitasun juridikoa da pertsona guztiok, gure existentziaren ondorioz, eskubide eta betebeharren subjektu izateko dugun gaitasuna. Jarduteko gaitasuna, berriz, norbera titular den eskubide eta betebeharrak egikaritzeko gaitasuna da.

Gizakiak erabateko gaitasun juridikoa du, nahi dituen eskubideak izateko gaitasuna.

Jarduteko gaitasuna zerbait gehiago da. Egintza edo negozio jakin bati dagokionez, pertsonak berak egintza edo negozio hori bakarrik egin dezakeela esan nahi du. Ez du behar legezko ordezkariaren parte hartzerik, hura ordezkatzeko.

Jarduteko gaitasun orokorra ezgaitua ez dagoen adinez nagusiari dagokio. Gaitasun horrek esan nahi du adin desberdin edo nagusiagoak eskatzen ez dituzten egintza eta negozioak egin daitezkeela. Badaude gaitasun singularrak ere. Batzuek adin txikiagoa eskatzen dute (adib.:14 urte); beste batzuek, ordea, adin nagusiagoa (adoptatzeko: 25 urte, eta adoptatuaren eta adoptatzailearen artean, gutxienez, 14 urteko aldea. KZren 175. art.).

2.2.- ADIN-NAGUSITASUNA ETA EMANTZIPAZIOA

a) Adin-nagusitasuna 18 urteak bete eta gero hasten da

Adin-nagusitasunarekin jarduteko gaitasun orokorra eskuratzen da.

Adin-nagusitasunaren urteak kontatzeko, jaiotza-eguna osorik hartuko da kontuan. Nagusitasuna automatikoki sortzen da. Ez dago interesatuaren borondatearen esku, ezta beren gain boterea duten pertsonen borondatearen menpe ere. Halaber, ezin da data aldatu. Adin-nagusitasuna eskuratzen den unetik, bizitza zibilaren egintza guztietarako gai gara, kasu berezientzat ezarritako gaitasuna kaltetu gabe.

b) Emantzipazioa

Emantzipatuta dagoen pertsonak bere burua eta ondasunak gobernatzen ditu, adinez nagusi izango balitz bezala. Hala ere, adin-nagusitasuna eskuratu arte, ezin ditu egintza hauek gauzatu gurasoen edo, horien ezean, tutorearen adostasunik gabe: dirua maileguan hartzea; ondasun higiezinak, merkataritza- edo industria-establezimenduak besterentzea, edo haien gain ardurak sortzea; ezohiko balioa duten objektuak besterentzea edo zamatzea.

Emantzipazioa 16 urtetik aurrera eman daiteke (ez lehenago). Erregistro Zibilean inskribatu behar da. Inskribatu arte, ez du efekturik sortuko hirugarrenen aurrean.

Emantzipazioa ematea errebokaezina da, eta pertsona hauek eman dezakete:

- Gurasoek edo guraso-boterea duenak. Eskritura publikoan edo Erregistroan.
- Seme-alabek eskaturik, epaileek. Familia-inguruabarretan oinarrituko da.
- Adingabearen ezkontza baliodunak emantzipazio-eskubidea sortzen du. Hasiera batean, dagoeneko emantzipatuta dagoena ezkon daiteke.

2.3.- ADINGABETASUNA

Adingabeak ez du jarduteko gaitasunik, eta gurasoen boterepean dago.

Adingabea ezgaia da ondarezko eremuan. Aldi berean, gurasoen boterepean, edo, horren ezean, tutoretzapean dago.

Adingabea ezgaia da, ez duelako adin-nagusitasunik eskuratu.

2.4.- EZGAITASUNAK ETA MUGAK

Ordenamenduak, inguruabar jakin batzuetan, pertsonaren jarduteko gaitasuna mugatzen edo baldintzatzen du. Gaitasun hori kendu ere egin daiteke. Gaitasuna mugatzeko edo kentzeko, kontuan hartzen da nola dagoen pertsonaren gaitasun naturala (gauzen irismena ulertzeko eta nahi izateko gaitasuna). Muturreko kasuetan, pertsona ezgaitua izan daiteke.

Kasu horietan, ezgaitasunetik eratorritzen da pertsonak gauzatzen dituen egintzen eta negozioen deuseztasuna.

Ezgaia izateko, legezko arrazoi bati jarraiki eman den sententzia judizial bat behar da.

a) Ezgaitasuna

Ezgaitasunaren arrazoiak KZren 200. artikuluan jasotzen dira: *Ezgaiketa-arrazoiak dira norberari bere burua gobernatzea galarazten dioten gaixotasun edo akats iraunkorrak, fisikoak izan nahiz psikikoak izan.*

Hori dela-eta, ezgaiaren guraso-boterea luzatu egingo da, edo tutoretza edo kuratelapean jarriko da.

Ezgaitasuna deklaritzen duen sententziak ezarriko ditu ezgaitasun horren irismena eta mugak. Halaber, tutoretza edo kuratelapean egongo da horren eraentza.

Ezgaituaren gaitasuna mugatuta gelditzen da. Ezgaitasuna desagertzen ez den bitartean, egoera horretan jarraituko du. Egoera horretatik zera eratorritzen da:

- a) Tutorea izendatzea. Horrek tutoretzapean dagoen pertsonaren jarduera baztertzen du, eta legezko ordezkari gisa jarduten du.
- b) Ezgaituaren negozio deusezak aurkaratzeko aukera.

b) Mugak

Bere ondasunak era ezegokian besterentzen dituen pertsona zarrastel deklaratu daiteke, bere kargu ezkontide, aurreko ahaide eta ondorengoak dituenean. Zarrastel deklaratu dena kuratelapean egongo da.

Ez zaio kentzen bere ondarearen kudeaketarik, baina sententziak zerrendatu dituen egintzetan, izendatu zaion kuratelaren adostasuna beharko du. Kuratelak ez dio pertsonari berari eragiten, ezta haren ondarez kanpoko gaitasunari ere.

2.5.- GURASO-BOTEREA

Adingabearen jarduteko gaitasun eza haren gurasoek ordezkatzeko dute: GURASO-BOTEREA (jaten eman, zaindu, ondasunak administratu). Gurasoek ezgaitua dagoen adin-nagusiaren gain egikaritzen duten boterea luzatuta dagoela esaten da: GURASO-BOTEREA LUZATZEA.

Hiru alderdi bereiz ditzakegu guraso-boterearen edukian, edo gurasoen eta seme-alaben arteko harremanean:

- a) ***Pertsonala***. Gurasoek seme-alabak zaindu behar dituzte. Jaten eman eta hezi.
- b) ***Ondarezkoa***. Gurasoek seme-alaben ondasunak administratu behar dituzte, beren ondasunak administratzen dituzten arreta bera erabiliz. Epaileak zaintzen du gurasoen kudeaketa. Kudeaketa horrek seme-alaben ondarea arriskuan jartzen badu, beharrezko neurriak hartuko ditu epaileak.
16 urte baino gehiago dituen seme-alabari, bere lanaren edo industriaren bidez lortu dituen ondasunen administrazio arrunta dagokio. Ezohiko kudeaketa-egintza kasuetan, gurasoen adostasuna beharko du.
- c) ***Ordezkaritza***. Emantzipatuta ez dagoen seme-alabak ez du gaitasunik hizketakide baliorduna izateko. Haren ordez gurasoek jarduten dute. Gurasoek ez dute seme-alaba ordezkatzeko norberak konplitu beharreko egintzetan eta adingabeak berak, legeen edo bere heldutasun-baldintzen arabera, bakarrik gauza ditzakeen egintzetan.

2.6.- ABSENTZIA

Juridikoki, absentzia ez da pertsona bat bere egoitzan ez egotea soilik. Hori baino gehiago da. Pertsona bere egoitzan ez badago ere, leku jakin batean edo aurkitzeko moduan egon daiteke. Egoera horretan dago, baldin eta harekin

harremanetan bagaude; alegia, hari buruzko berriak baldin baditugu. Zuzenbide Zibilarentzat absentzia-egoera horrek ez du garrantzirik, absenteak ez dituelako bere ondare-interesak bazterrera utzi, ez bere kaltean, ez hirugarrenen kaltean, ez jaraunsleen kaltean.

Hala ere, ez agertzeari absentearekin harremanik ez egotea gehitzen bazaio, abandonu-egoera sor daiteke, bai presazko arazoak daudelako, bai absentzia-egoeraren iraupena kontuan izanda, absentea bizirik dagoen edo hil den zalantza sortzen delako. Orduan, Zuzenbide Zibilarentzat garrantzia izango du pertsona ez agertzeak edo hura desagertu izanak. Juridikoki, absentziaz hitz egingo da.

Absentzia izenaren pean, hiru egoera desberdin arautzen dira Kode Zibilean. Denak ustekizun komun beretik abiatzen dira: ***pertsona bere egoitza edo azken bizitokitik desagertu, eta hari buruzko inolako berririk ez izatea.***

- Lehenik, **desagertze soila** dago, *ustezko edo egitatezko absentzia* delakoa. Kasu horretan, ez dugu pertsonaren egontokiari buruzko inolako berririk. Gauzak horrela, pertsona horren ondareari eragiten dioten arazoak sortzen dira. Legeak eta desagertuak ez dute inolako neurririk aurreikusi arazo horiek konpontzeko. Ez da zalantzan jartzen bizirik dagoenik, eta bueltatuko dela espero da, bere ondasunen administrazio eta defentsaren ardura berriro hartzeko. Bitartean, eta eperik eskatu gabe aurreko ustekizuna emanaz gero, defendatzaile bat izendatuko zaio hura arazoetan ordezkatzeko.

Behin-behineko neurriak. KZren 181. art.:*Edozein kasutan ere, norbait bere egoitza edo bere azken bizilekuari dagokion lekutik desagertu bada, eta pertsona horren inguruan ez bada beste berririk izan, epaileak defendatzailea izenda dezake, alderdi interesdunak edo Fiskaltzak hala eskatuz gero; defendatzaile horrek desagertua babestu eta ordeztu behar du, epaiketan edo kalte astunik eragin gabe atzeratu ezin diren negozioetan. Salbuespen gisa har daiteke desagertua legearen bidez nahiz borondatez ordezkatu egotea, 183. artikularekin bat etorritik.*

Bertan dagoen ezkontide adin nagusikoa ez badago lege-bidez banandurik, ezkontide hori da desagertuaren ordezkarik eta defendatzaile berezkoa; eta, ezkontiderik izan ezean, laugarren gradurainoko ahaidetik hurbilena, bera ere adin nagusikoa baldin bada. Ahaidetik ez badago, ahaideak bertan ez badaude edo presa nabaria badago, epaileak ospe oneko pertsona kaudimenduna izenda dezake ordezkarik eta defendatzaile, Fiskaltzak esan beharrekoa entzun eta gero.

Era berean, epaileak bere sen onaren arabera har ditzake ondarea iraurazteko beharrezkoak diren probidentziak.

- Bigarrenik, **legezko absentzia-egoera** arautzen da. Pertsonak desagertuta daraman denbora luzatzen bada eta hari buruzko berririk ez badago, zalantzan jarriko da hura bizirik dagoen ala ez. Horregatik, egokitza jotzen da judizialki absente deklarazioa eta erabaki osatuagoak hartzea, pertsona horren existentziari buruzko zalantzak argitzeko eta, egoerak irauten duen bitartean, haren ondareari eusteko zein

babesteko. Ondorioz, absente deklaratu denari **ordezkari** bat izendatuko zaio. Ordezkarri horri dagokio absentearen ondasunen babesa eta administrazioa, eta betebeharrak betetzea.

Absentzia-deklarazioa. KZren 183. art.: Egoitzatik edo azken bizilekutik desagertu dena legezko absentzian dagoela ulertuko da:

1. Azken berriak izan direnetik edo, azken berririk izan ezean, persona hori desagertu denetik urtebete igaro denean, baldin eta pertsona horrek ez badu ahalduz utzi, ahalduz horrek bere ondasun guztiak administra ditzan.
2. Hiru urte igaro direnean, baldin eta pertsona horrek, ahalordea ematearen bidez, bere ondasun guztiak administratzeko ardura norbaiti utzi badio.

- Hirugarrenik, azkenean, **heriotza-deklarazioa** begiesten da³. Pertsonak desagertuta daraman denborak edo haren berririk gabe egoteak hainbeste irauten badu, edo adinean aurreratuta dagoena desagertu, edo bizi-arrisku nabarmena daukan inguruabarretan desagertu bada, haren existentziari buruzko zalantza ofiziala honako presuntzio bihurtzen da: hil dela. Horregatik, heriotza-deklarazioak heriotzaren efektuak sortzen ditu eta, bereziki, desagertuaren oinordetza irekitzen du. Hala ere, haren heriotzaren gain ziurtasunik ez dagoenez (ager daiteke, edo haren existentzia frogatu daiteke), kautela batzuk hartuko dira haren oinordetzan: jaraunselek ezin dute dohainik besterendu, heriotzaren deklarazio-UNETIK bost urte pasatu arte; halaber, legatuak ez dira emango epe bera pasatu arte.

KZren 198. eta 199. artikuluetan, heriotza judizialki deklaritzen da:

- *Ez bada inguruabar berezietan desagertzen, 10 urte oso eta natural, azken berriak izan ziren unetik. 5 urte, epemuga horretan 75 urte beteak bazituen.*
- *Berehalako arrisku-egoeran, data horren ondorengo urtean ez bada berririk izan (iraultza politikoa). Istripu kasuan (hondoratzea edo aire-katastrofea), epea 3 hilabetekoa da.*

Pertsonaren existentziaren gain egon daitekeen ziurgabetasunak eragin hau du eskubideak eskuratzearen eta eskualdatzearen gain:

Absenteak ezin du jaraunspenik eskuratu, bizi den ala ez zalantzan jartzen denetik. Hala ere, absentearen oinordetza ez da zabaltzen haren heriotza deklaritzen den unera arte.

³ Egoera hauek segidan gerta daitezke, baina guztiz independenteak direnez bata bestearekiko, ez da beharrezkoa inolako segidatasunik. Horrela, absentzia-deklarazioa gerta daiteke, aurrez, pertsona desagertu izanagatik inolako erabakirik hartu izan gabe, eta heriotza-deklarazioa ere eska daiteke, aurrez, legezko absentzia-deklarazio judizialik egon gabe.

3.- NAZIOTASUNA, AUZOTARTASUNA ETA EGOITZA

NAZIOTASUNA

Espainiako naziotasuna Espainiako erkide nazionalaren kide diren pertsonen baldintza edo ezaugarria da.

→ *Naziotasuna eskuratzea, jaiotzari jarraiki.* Espainiar guraso batengandik jaio izanagatik. Gurasoak atzerritarrak badira, Espainiako lurraldean jaio izanagatik, beti ere haietako bat, gutxienez, Espainiako lurraldean jaio bada. Espainian kontsul edo enbaxada-funtzionario diren seme-alabak salbuetsi egiten dira.

→ *Naziotasuna eskuratzea, adopzioari jarraiki.* Espainiako herritar batek adoptaturiko adingabea izateagatik, Espainiako naziotasuna eskuratzen da.

→ *Naziotasuna eskuratzea, bertakotzeari jarraiki.* Errege Dekretu bidez iritziaren arabera esleitutako jatorri-kartaz ere Espainiako naziotasuna eskuratzen da.

→ *Esleitua izan daiteke, Justizia Ministerioari eskaturik ere.* Hark uko egin diezaioke eskaerari, ordena publiko edo nazio-interes arrazoietan oinarriturik. Espainian:

10 urte bizi eta gero eska daiteke. Hala ere, kasu zehatz batzuentzat epeak laburragoak dira:

5 urte, asiloa edo babesaren lortu badu.

2 urte, Hego Ameriketako naziotasun-kasuetan.

urtebete, Espainiarekin harremana dutenentzat, odol, jaiotza edo ezkontzagatik.

AUZOTARTASUN ZIBILA

KZren 14.2 art.: *Jaiotakoek auzotartasun zibila izango dute zuzenbide erkideko lurraldean edo zuzenbide bereziko nahiz foru-zuzenbideko lurraldean, gurasoen auzotartasuna ere bertakoa bada.*

Auzotartasun zibilak zehazten du Zuzenbide Komuna, Foru Zuzenbidea edo Berezia aplikatzen zaigun.

Auzotartasun zibila era hauetan eskuratzen da:

- Bi urte jarraian bizitzeagatik, beti ere interesatuak bere nahia hori dela adierazten badu.
- Hamar urte jarraian bizitzeagatik, kontrako deklarazioa kanporatu gabe.

Deklarazioak Erregistro Zibilean jasoko dira, eta ez dira berritu behar.

EGOITZA

Eskubideen egikaritzea eta betebeharrak zibilak betetzeko, pertsona naturalen egoitzea izango da haren eguneroko erresidentzia eta, hala badagokio, Judiziamendu Zibilar buruzko Legeak zehazten duena.

4.- PERTSONA JURIDIKOA

Oro har

Talde batzuek beren ondare propioa eta autonomoarekin jarduten dute, kontratatuz eta demandatuz, pertsona fisiko izango balira bezala. Behar diren borondate-deklarazioak kanporatzeko, taldea osatzen duten gizabanakoez baliatzen dira. Gizabanako horiek taldea ordezkatzen dute, organo gisa jardunez. Hori pertsona juridiko bat da.

4.2.- ELKARTEA

Elkartek *interes publikoa* duten pertsona juridikoak dira. Hau da, ez dute xedetzat irabaztea lortzea. Zuzenbide Pribatuaren eremuan jarduten dute, administrazioarekin harremanik izan gabe (kultura-elkartea; gastronomia-elkartea, kirol-elkartea; txirrindulari-elkartea, eta abar).

Elkartearen kideek sortutako kolektibitateak dira. Haien xedea altruista da.

Konstituzioan, «elkarteko eskubidea» pertsonaren oinarritzko eskubide gisa aitortzen da. Hala ere, ezin dira elkartek eratu delitu gisa tipifikatuta dauden xedeak lortzeko. Halaber, ezin da elkarte sekreturik eratu, ezta paramilitarrik ere.

Elkartek desgiteko edo haien jarduerak eteteko, beharrezkoa da arrazoituta dagoen ebazpen judizial bat.

Eratzea

Akta baten bitartez eratzen da, non jarduteko gaitasuna duten pertsona natural batzuek zilegia den xede jakin bat lortzeko duten asmoa adierazten baitute. Xede horren alde lan egingo dute elkartearen estatutuei jarraituz.

Administrazioak ezin du elkarte informal bat debekatu (inskribatuta ez dagoen elkarte bat). Nortasuna inskripzioaren bidez eskuratzen da.

Organoak

Elkartearen organo nagusiak dira elkartekideen batzar orokorra eta kudeaketa-organoa: gobernu-batzordea.

Elkartekideak

Eskubidea dute: - borondate kolektiboan parte hartzeko

- elkartearen ondasun eta zerbitzuak erabiltzeko
- elkartearen jardueretan parte hartzeko (hori betebeharra ere izan daiteke)

4.3.- FUNDAZIOAK

Pertsona batek edo talde batek eratu duen erakunde filantropiko bat da. Gizartearen onerako diren helburu zehatz batzuk lortzeko, erakundea ondare batekin hornitzen da.

Pertsona juridikoak dira, baina ez dira taldeak. Fundazioa borondate partikular baten produktua da. Une batean gauzatu da, geroan xede bat lortzeko. Hori dela-eta, denboran iraun egin behar du.

Fundazioak, elkarrekin ez bezala, ez du bazkiderik. Baina bere kausa edo arrazoia du ezaugarri nagusia: Fundazioak xede altruista baten planteamendua eta hura lortzeko baliabide batzuen ekarpena suposatzen duenez, planteamendu hori da bere legea. Fundazioa ez dago fundatzailearen borondatearen menpeago.

Elkartea, ordea, bazkideek nahi dutena da. Une bakoitzean nahi dutena izango da. Bazkideek alda ditzakete: xedeak eta jarduerak; gobernu-sistema. Desegin edo ezabatu egin dezakete. Hori dena egin dezakete, elkartearen bazkide direlako.

Fundazioen gobernu-organoa patronatua da. Horri dagokio fundazioaren xedeak lortzea eta fundazioaren ondarea administratzea.

Ongintzako fundazioak, ikasketa-fundazioak edo kultura-fundazioak bereiz daitezke.

5.- IKASGAIA

ESKUBIDE ERREALAK. GAUZAK

AURKIBIDEA. 1.- Gauzen ezaugarriak eta sailkapena. 1.1.- Ondasunak eta gauzak. 1.2.- Gauzaren kontzeptua. 1.3.- Ondasun higigarriak eta higiezinak. 2.- Beste sailkapen batzuk. 3.- Fruituak. 3.1.- Kontzeptuak eta motak. 4.- Ondarea.

1.- GAUZEN EZAUGARRIAK ETA SAILKAPENA

1.1.- ONDASUNAK ETA GAUZAK

Ondasun kontzeptuak objektu baliodunak, materialak eta gorpuzgabeak barneratzen ditu.

Ondasun kontzeptua *gauza* kontzeptua baino handiagoa da. Gauzak ondasun ukigarriak eta gorputzezkoak dira.

Hala ere, trafikoan benetako balioa duena ez da gauza bera, ***baizik eta gauza horren gaineko eskubidea. Nire erlojua saltzen dudala esatean, erlojuaren gain dudan jabetza-eskubideaz xedatzen ari naiz.***

1.2.- GAUZAREN KONTZEPTUA

→ *Gauza konposatuak.* Aparatuak edo tramankuluak gauza bakar bat dira. Hala ere, banatuz gero, haien piezak ere gauzak dira.

→ *Gauza bakunak.* Beren zatiak naturaren ekoizkin dira eta, eskuarki, ordezkaezinak (arbola, animalia, eta abar). Hala ere, zati horiek banatzean, gauza independenteak era ditzakete (adar bat, hanka, eta abar).

1.3.-ONDASUN HIGIGARRIAK ETA HIGIEZINAK

Eskuratze-objektu izan daitezkeen gauza guztiak ondasun higigarri edo higiezintzat hartzen dira. Kodearentzat ondasun higiezinak balio ekonomiko handiagoa dute. Horregatik, ondasun horiek eskuratzearen eraentzan kautela eta eskaera gehiago ezartzen ditu.

Kode Zibilak ***finka edo lursaila ondasun higiezin*** gisa definitzen du. Halaber, gehitzen diren objektuak finka horren zatitzat hartzen ditu: eraikinak, bideak eta lurrera atxikitzen den edozein eraikuntza-genero; zuhaitzak, landareak eta zintzilik dauden fruituak, baldin eta lurrera lotuta badaude eta ondasun higiezinaren zati badira; ondasun higiezin batera era finkoan lotuta dauden gauzak (kenduz gero, gauza kaltetu egingo da).

Ondasun higiezinak dira baita ere:

- Meategiak, zepategiak eta harrobiak, baldin eta beren materia meatokira lotuta agertzen bada.
- Bizirik edo geldirik dauden urak.
- Lursailean edo finkan dauden hainbat ondasun higigarri (estatuak, irudiak, erliebeak, eta abar; lotuta nahi izan direnak behin betiko izaeraz) (KZren 334. art.).

Gauza ez diren gainerako ondasunak edo aipatutako zerrendan jasota ez dauden gauzak ONDASUN HIGIGARRIAK dira. KZren 335. artikulua zera dio: *Ondasun higigarri moduan hartzen dira, eskuratzeko modukoak izanik, aurreko artikuluan aipatu ez diren ondasunak; eta, oro har, puntu batetik bestera garraia daitezkeen ondasun guztiak, hori egin badaiteke haien euskarri den ondasun higiezinari kalterik egin gabe.*

2.- BESTE SAILKAPEN BATZUK

→ Kontsumigarriak eta kontsumiezinak diren ondasunak:

Haien izaeraren arabera, erabiliz kontsumitzen diren ondasunak kontsumigarriak dira. Gainerako guztiak, hau da, erabiliz kontsumitzen ez direnak, kontsumiezinak dira.

→ Gauza suntsigarriak:

Haien artean ordezkia daitezkeen gauzak (billete bat). Gauza suntsikor horiek genero bat eratzen dute. Ez dute banakotasunik.

3.- FRUITUAK

3.1.- KONTZEPTUA ETA MOTAK

Gauza batzuek beste batzuk sortzeko edo jariatzeko gaitasuna dute: sagarrondo batek sagarrak ematen ditu, pinuak erretxina, eta abar. Beste batzuk hazi batetik garatzen dira (garia). Ekoizpen horiek, juridikoki, fruituak dira.

Bigarren maila batean eta berehalakoak diren fruitu horien aurrean, industria-merkataritza- edo zerbitzu-jarduerak, kapital bat oinarri duela, etekin batzuk sortzen ditu. Horiek ere fruituak dira.

Eta azkenik, zentzu berean, kostubidez beste bati gauza baten erabilera eskualdatzea: zaldia, diru truke, ordubeterako alokatzen denean.

Fruitu naturalak: lurraren berezko ekoizpenak, animalien kumeak eta gainerako produktuak.

Fruitu industrialak: onibar batek (finka edo etxaldea) laborantza edo lanaren ondorioz ematen duen edozein onura mota.

Fruitu zibilak: eraikuntzen errenta, lurren errentamenduaren prezioa, eta behin betiko, hil arteko edo antzerako errenten dirua.

FRUITUAK ZINTZILIK EGOTEA ETA ESKURATZEA

Landare- eta animalia-fruituak hura sortzen duten gauzari lotuta baldin badaude, fruitu horiek jabearenak dira. Fruitu horiek ZINTZILIK DAUDEN FRUITUAK dira.

Banaketaren bidez eskuratzen da fruitu naturalen eta industrialen jabetza. Finkaz gozatzeko eskubidea duen titularrak fruituak eskuratzeko eskubidea baldin badauka, fruituak eskuratzen ditu, nahiz eta bera ez izan banatzen dituen, haien edukitza eskuratuz.

Fruitu zibilak egunero sortzen edo zor direla ulertzen da.

4.- ONDAREA

Zordunak betebeharrak betetzeko erantzukizuna hartzen du bere orainaldiko eta etorkizuneko ondasun guztiekin. Erantzukizuna unibertsala da.

Pertsona baten ondarea bertan dauden ondasun eta zor guztiek eratzen dute. Pertsona hiltzen denean, ondarea jaraunspen bilakatzen da: hil berriaren ondasun jaraungarriak. Betebeharrei aurre egiteko erabiliko da jaraunspena.

Ondare jakin batzuek titular anitz dituzte; adibidez, *jaraunspena titular bat baino gehiago daudenean*. Kasu horietan ondarea kolektiboa da.

6.- IKASGAIA ESKUBIDE ERREALAK ORO HAR

AURKIBIDEA. 1.- Eskubide errealaren figura. 1.1.- Kontzeptua eta ezaugarriak. 1.2.- Eskubide erreal mugatuak: kontzeptua eta zerrendatzea. 2.- Edukitza. 2.1.- Kontzeptua. 2.2.- Edukitzaren babesak. Interdiktuak. 2.3.- Edukitzaren elementuak. 2.4.- Eskubideen edukitza. 2.5.- Edukitza eskuratu eta galdu. 2.6.- Edukitzaren efektuak. 3.- Jabetza eta gauzen gaineko beste eskubideak eskuratzeko jatorrizko bideak. 3.1.- KZren 609. artikulua. 3.2.- Okupazioa. 3.3.- Usukapioa. 3.4.- Usukapio motak. 4.- Eratorriz eskuratzeko. 4.1.- Joera orokorra. 4.2.- Titulua eta modua. 4.3.- Gauza ematea. 5.- Jabetza. 5.1. Kontzeptua: Kode Zibilaren 348. artikulua. 5.2.-

Jabetzaren ahalmenak. 5.3. Jabetzaren ezaugarriak. 5.4. Jabetzaren mugak. 5.5. Jabetzaren defentsa. 6.- Jabekidetzako egoerak. 6.1.- Erkidegoa orokorrean. 6.2.- Kode Zibilaren eredia: jabekidetzak, kuoten arabera. 6.3.- Jabekidetzaren eraentza juridikoa (kuotei jarraiki). 6.4.- Gauza komunaren zatiketa. 6.5.- Bereziki, jabekideen komunitatea

1.- ESKUBIDE ERREALAREN FIGURA

1.1.- KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

Zuzenbideak eskubide subjektibotzat hartzen du gizabanakoak gauzen gainean duen menperatzea. Hori erabatekoa zein mugatua izan daiteke. Erabatekoa denean, jabetza da. Mugatua da gauzaren fruituak izateko eskubidea duenean; gozamen-eskubidea duenean edo gauza era zehatz batean erabiltzeko eskubidea duenean (alegia, bide-zorra). Gauzaren gainean izan daitezkeen eskubide horiei (erabatekoa zein mugatua) **ESKUBIDE ERREALAK** deritze.

Gauzaren gainean zuzenean jarduteko aukera izatea da eskubide errealaren ezaugarri nagusia. Eskubidearen titularrak objektuarekin duen harremana zuzena eta berehalakoa da. Hirugarren baten bitartekotza ez da beharrezkoa. Gauzaren gainean eragin zuzena izateak aukera ematen du hirugarrenen akzioak baztertzeko.

Azkenik, gauzaren gainean eragina izateko botereak (eskubide erreala) gauzari jarraitzen dio, dagoen tokian dagoela eta haren edukitzailea edonor dela ere. Doktrinak dioen bezala: *En cualquier lugar donde se halle la cosa objeto de mi derecho, allí puedo hacerlo valer y reivindicarlo frente a quien se oponga a él.*

Aipatutako ezaugarriak eskubide errealarenak dira, kreditu-eskubidearekiko bereizten dutenak. Kreditu-eskubidean, lotura bi subjekturen artean gertatzen da, ondasunei harrera zuzena egin gabe. Kreditua pertsona jakin baten aurrean dago eta hura asetzeko pertsona horri eskatu ahal izango zaio. Pertsona horrek prestazioa borondatez edo auzitegiek behartuta gauzatuko du.

1.2.- ESKUBIDE ERREAL MUGATUAK

Eskubide erreala da subjektuak gauzaren gainean duen botere zuzen eta eskusiboa. Botere horrek barnean har ditzake menperatzearen alderdi guztiak. Kasu honetan, erabateko jabetza eratzen du: erabateko eskubidea gauzaren etekin eta zerbitzu-aukeren gainean.

Hala ere, finkaren gain ahalmen bakar bat izan dezake. Adibidez, fruituak eskuratzea edo zeharkatzeko eskubidea. Kasu horretan, gauzaren gaineko eskubidea mugatua dago: alderdi batera murriztua dago. Eskubide mugatu horiek *besteen gauzen gaineko* eskubide gisa ezagutzen dira.

Edukiaren arabera, gauzen gaineko botere mugatuak ezaugarri hauek izan ditzake:

→ **Gozamen-eskubideak**

Gauzaren gozamen osoa edo partziala adierazten dute. Gozamen hori gauzaren zati baten edo gauza guztiaren edukitzaren bidez gauzatzen da. Adibidez, gozamena (*usufructo*) eta zortasun positiboak (*servidumbres*). Hala ere, goza daiteke edukitzarik izan gabe ere. Adibidez, argia ematen duen eta gertu dagoen orube batean ez eraikitzekeo eskubidea.

→ **Berme-eskubide errealak**

Eskubide horri jarraiki, diru-betebehar bat betetzea bermatzen da. Ez-betetzearen kasuan, ondasunaren salmentaren bidez aseko da hartzekodunaren interesa. Adibidez, *bahitura eta hipoteka-eskubidea*.

→ **Eskurapen-eskubideak**

Eskurapen-eskubideak zera ahalbidetzen du: edonori erreklamatzeko norberaren onuran gauzaren gaineko eskubideak eskualdatzea; *atzeraeskuratze-eskubidea*.

2.- EDUKITZA

2.1.- KONTZEPTUA

Hizkuntza arruntean, gauza bat edukitzeak gauza boterepean izatea esan nahi du. Gauzarekin harreman fisiko estua dago. Hain estua da kontaktu fisiko hori, gainerakoek gauza edukitzailearen borondatepean dagoela uste baitute.

Edukitzaileak, gauza izateagatik, ordenamenduaren babesia du. Horrek bere edukitza babesten du. Inork ezin dio edukitzarik kendu, legeak agintariei edukitza hori kentzeko baimentzen dien kasuetan salbu.

Edukitzaile orok eskubidea du bere edukitzan errespetatua izateko. Eta bere edukitzan asaldaturik baldin bada, prozedura-legeek ezartzen dituzten bideak erabiliz babestu beharko da; alegia, edukitza bueltatu beharko zaio. Aipatutako bideak INTERDIKTUAK dira. Interdiktuak akzioak dira. Akzio horien bitartez, edukitza bidegabe (bere borondatearen kontra eta bide judizialak erabili gabe) kendu zaionari bueltatzea lortu nahi da. Interdiktuak edukitzaileari eskaintzen zaizkio, titulua duen ala ez galdetu gabe. Ez du axola edukitzaren arrazoiak: erosi duelako, errentamenduan hartu duelako edo kalean aurkitu duelako. Nahikoa da gauza izatea, edukitzea.

2.2.- EDUKITZAREN BABESA. INTERDIKTUAK

Edukitzaren babesari jarraiki, edukitza duenak, legalki galdu arte, gauza izaten jarraitu behar du. Edukitza gauza izaten jarraitzeko eskubidea da, gauzaren edukitzez sortu dena.

Eskubide horri jarraiki eta interdiktuari esker, gauzaren edukitza berreskura daiteke. Epea: urtebete, kendu zitzaionetik kontatuta.

Interdiktua edukitza-akzioak dira. Interdiktua izena dute, edukitzan oinarritzen direlako. Interdiktua bidez demandatzeko, beharrezkoa da edukitzailea izatea. Demandatzaileari ez zaio galdetzen edukitza izateko ze arrazoi duen. Aztertzen den gauza bakarra zera da: erreklamatzeko duenak gauzaren edukitza zuen ala ez. Gauza bazuen, erreklamatzeko bueltatzeko agintzen da. Hala ere, horrek ez du eragozten, geroan (beste epaiketa batean), interdiktua egikaritu zuenari gauza kentzeko aukera izatea. Gauzaren edukitza kenduko zaio, gauza izateko titulurik ez zuela demostratzen bada. Epaia bati jarraiki kenduko zaio gauza, eta ez partikular baten borondateari jarraiki.

2.3.- EDUKITZAREN ELEMENTUAK

Gauzaren edukitza izaten jarraitzeko eskubidea sortzen da, benetako edukitza dagoenean. Inork ez du zalantzan jartzen, gizabanakoaren eta gauzaren arteko kontaktu fisikoa ikusita, gauza pertsona horren boterepean dagoenik. Pertsona horrek gauza menperatzen du, eta ez beste inork.

Doktrinaren ustez, babesgarria den edukitza bi elementu ditu:

1. Elementu fisikoa (*corpus*): gauzarekin nahikoa den kontaktua; bere benetako edukitza.
2. Borondatezko elementua (*animus*): gauza izateko borondatea, animoa.

Zein da edukitzailea? Gauza bakarrik eta inolako zalantzarik gabe menderatzen duena. Edukitzailearen egoera objektiboak ahalbidetzen dio gauzaren gain era eraginkor batean jardutea eta gauzaz baliatzea. Hori dena argi eta garbi agertu behar da gizartearen begietara.

Jabeak baimendutako edukitza-jarduerek ez dute balio ulertzeko edukitza dagoela.

2.4.- ESKUBIDEEN EDUKITZA

Objektuak bezala, eskubideak ere (bide-zorra) edukitzaren objektu izan daitezke:

KZren 437. art.: *Atzemateko moduko gauza eta eskubideak bakarrik izan daitezke edukitzaren objektu.*

KZren 430. artikulua honela definitzen du edukitza naturala: *norbaitek gauza ukan edo eskubideaz gozatzea.*

2.5. EDUKITZA ESKURATU ETA GALDU

Edukitza eskuratzen da:

- Izaten den gauzaren edo eskubidearen okupazio materialaren bidez.
- Bortxakeria erabili gabe, gauza norberaren boterepean gelditzen denean.

Edukitzak, egitate hutsa denez, ez du gaitasun berezi baten premiarik. Adingabeek eta ezgaituek eskura dezakete gauzen edukitza. Hala ere, edukitzatik haien alde sor daitezkeen eskubideak egikaritzeko, ordezkarien laguntza beharko dute.

Edukitza galduko da:

- Gauza abandonatzen bada.
- Gauza suntsitzen edo galtzen bada.
- Merkataritzatik kanpo gelditzen bada.
- Kostubidez edo dohainik beste bati lagatzen zaiolako.
- Beste batek edukitza eskuratzen badu, nahiz eta jatorrizko edukitzailearen borondatearen kontra izan. Beti ere, edukitza berriak urtebete baino gehiago iraun badu (interdiktuaren epea).

2.6.- EDUKITZAREN EFEKTUAK

- Titulartasun-presuntzioa

Gauzarekin kontaktuan egoteak itxurazko egoera ontzat hartzera eramaten gaitu: jabe gisa gauzaren edukitza duenak bere alde legezko presuntzio hau du: bidezko tituluarekin du gauza, eta ezin da behartu titulua erakustera.

- Fede txarreko eta oneko edukitza

Edozein edukitzailek du eskubidea interdiktuak egikaritzeko. Hala ere, edukitzailearen izaeraren arabera (fedetarra edo onekoa), beste pertsona baten gauza eskuratzeko eskatzen diren epeak desberdinak dira (usukapioa). Halaber, jabe ez den edukitzaile horrek gauzak emandako fruituak bereganatzeko duen eskubidea desberdina da.

Edukitzaileak ez badaki bere eskuratzetitulua edo -moduan hura baliogabetzen duen akats bat dagoela, fedetarra onekoa da. Fedetarra, ordea, ezagutzen du akats horren existentzia. Fedetarra oneko edukitzaileak uste du gai dela jabetza hori eskualdatzeko, eskualdatzailea gauza horren jabea dela-eta.

Fedetarra ona beti susmatzen da, eta edukitzaile baten fedetarra alegatzen duenak frogatu egin behar du.

- Fruituak eskuratzea

Fedetarra oneko edukitzaileak, edukitzaile legalki eten arte, fruituak bere egiten ditu.

Fedetarra, ordea, jaso dituen fruituak eta edukitzaile legitimoak eskura zitzakeenak ordainduko ditu.

3.- JABETZA ETA GAUZEN GAINKO BESTE ESKUBIDEAK ESKURATZEKO JATORRIZKO BIDEAK

3.1.- KZren 609. ARTIKULUA

KZren 609. artikulua zera xedatzen du: *Jabetza eskuratzen da okupazioaren bidez. Ondasunen gaineko jabetza eta beste eskubide errealak eskuratu eta eskualdatzen dira legearen bidez, dohaintzaren bidez, testamentuzko nahiz testamenturik gabeko oinordetzaren bidez, eta, zenbait kontraturen ondorioz, traditio bidez. Haiek eskura daitezke, orobat, preskripzioaren bidez.*

Jabetza eta gauzen gaineko beste eskubideak eskuratzeko jatorrizko bideei dagokienez, doktrinak bereizketa hau egiten du: jatorriz eskuratzea eta eratorriz eskuratzea. Lehenengoen artean, berriz, usukapioa eta okupazioa bereizten dira.

3.2.- OKUPAZIOA

KZren 609. artikulua arabera jabetza okupazioz eskuratu da. Halaber, KZren 610. artikulua arabera: *Okupazioaren bidez eskuratzen dira, berez atzemateko modukoak izanik, jaberik ez duten ondasunak, besteak beste, ehiza eta arrantzako animaliak, ezkutuko altxorra eta bertan behera utzitako gauza higigarriak.*

3.3.- USUKAPIOA

Preskripzioaren bidez (beti ere, legean ezarritako moduan eta baldintza jakinekin) eskuratzen dira jabetza eta gainerako eskubide errealak. Denboraren igarotzeak ez du balio soilik epe jakin batean egikaritzen ez diren eskubideak eta uziak iraungitzeko (preskripzio iraungitzailea). Horretaz gainera, balio du pertsona bati itxuraz dituen eskubideak benetan esleitzeko ere.

Iritzi komunaren arabera, usukapioa gauzen gaineko eskubideak eskuratzeko modu bat da. Hala ere, laguntzea da bere benetako funtzioa. Zeini? Dagoeneko jabetza edo beste edozein eskubide erreal duen, baina frogatu ezin duen pertsonari. Ezin du bere titulartasun hori frogatu, frogak galdu dituelako edo ez dituelako inoiz izan.

Hasiera batean, usukapio bidez eskuratu ahal izango dira eduki daitezkeen gauza eta eskubide guztiak.

Usukapio mota guztiei zera eskatzen zaie: usukapitua den gauzaren edukitza. Baina ez edozein edukitza, baizik eta «edukitza zibila» delakoa: «Edukitza naturala da norbaitek gauza ukan edo eskubideaz gozatzea. Edukitza zibila da ukantza edo eskubideaz gozatzea bera, eta, horrekin batera, norbaitek bere egin nahi izatea gauza edo eskubidea».

Beraz, usukapitzeko egokia den edukitza «jabe moduan» izandakoa da. Jabetza eskuratzeko titulu gisa balio duen edukitza bakarra da jabe moduan eskuratzen eta gozatzen den edukitza.

Horretaz gainera, usukapitzeko egokia den edukitzak zera izan behar du: **publikoa** (denon aurrekoa), **baketsua** (modu baketsuan eskuratu dena) eta **etengabea**.

3.4.- USUKAPIO MOTAK

- **ARRUNTA** (*baldintza gehiago, denbora gutxiago*)

Jabetzaren eta gainerako eskubide errealen preskripzio arruntarentzat nahitaezkoak dira betekizun hauek:

- edukitza izatea (edukitza zibila)
- fede ona
- bidezko titulua
- legeak ezartzen duen epealdia

Bidezko titulutzat hartzen da legalki nahikoa den hura, preskribatu edo usukapitu behar den jabego edo eskubide erreala eskualdatzeko. Preskripziorako tituluak benetakoa eta baliagarria izan behar du.

-EZOHIKOA (baldintza gutxiago eta denbora gehiago)

Ez da beharrezkoa ez titulua ez fede ona. Hala ere, denbora gehiago behar du.

USUKAPIOA
(*Eskubideak eskuratzeko modua*)

ARRUNTA	EDUKITZA ZIBILA	EZOHIKOA
<i>Denbora gutxiago</i>	<i>Jabe moduan</i> (<i>jabe moduan edukitza izan</i>)	<i>Denbora gehiago</i>
<i>Baldintza gehiago</i>		<i>Baldintza gutxiago</i>
<i>. Fede ona</i>	<i>Publikoa</i> (<i>jabe gisa agertu</i>)	<i>Ez da beharrezkoa fede ona, ezta bidezko titulua ere</i>
<i>. Bidezko titulua</i>	<i>Baketsua</i> (<i>inork ez dio aurre egiten</i>)	
-jabetza eskualdatzekoa -benetakoa -baliagarria	<i>Etengabea</i> (<i>jarraian</i>)	
<i>ONDASUN HIGIGARRIAK</i>		<i>ONDASUN HIGIGARRIAK</i>

. 3 urte eta fede ona		6 urte
ONDASUN HIGIEZINAK		ONDASUN HIGIEZINAK
. 10 urte + fede ona + bidezko titulua (<i>presente</i>)		30 urte
20 urte + fede ona + bidezko titulua (<i>absente</i>)		

4.- ERATORRIZ ESKURATZEA

4.1.- JOERA OROKORRA

Eraterriz eskuratzea da jatorria aurreko titular batengan izan, eta harengandik jasotzea. Eskuratzaileren eskubidea aurreko titular horren esku dago. Eskubidearen jabe berriak aurrekoak zuen baldintza berean jasotzen du eskubide hori. *Inork ezin du eman ez duena*. Inork ezin du eskualdatu berea ez den eskubide bat.

Eraterriz eskuratzea izan daiteke:

- *Mortis causa*: hil den pertsona baten jaraunspen edo legatuaren bidez.
- *Inter vivos*: bizirik dauden pertsonen artean; eskualdatzaile bat eta eskuratzaila bat.

4.2.- TITULUA ETA MODUA (*egintza edo kontratua, eta ematea edo traditioa*)

KZren 609. artikulua dioenez, ondasunak eskuratu eta eskualdatu egiten dira dohaintza eta kontratu batzuen ondorioz, traditioz. **KONTRATUA EZ DA NAHIKOA GAUZAREN GAINEKO JABETZA EDO GAINERAKO ESKUBIDEAK ESKURATZEKO. BEHARREZKOA DA GAUZA EMATEA ERE. TRADITIOA.**

4.3.- GAUZA EMATEA (*«traditioa» edo «modua» Espainiako Zuzenbidean. Salmenta*)

Lehenik, Kodeak edukitzaren eskualdatze fisikoa aurreikusten du, honako hau xedatuz: Saldutako gauza eman dela ulertuko da, gauza hori eroslearen esku eta horren edukitzapean jartzen

Salmenta eskritura publiko baten bitartez egiten denean, eskritura publikoa esleitzea gauza ematearen baliokidea da, eskrituratik ez bada, argi eta garbi, kontrakoa eratortzen (KZren 1462.2 art.).

Aurreko artikulua aipatzen dituen kasuak alde batera utziz, gainerakoetan, ondasun higigarriak emango dira horiek pilatuta dauden lekuaren giltzak emanaz. Nahikoa da kontratatzaileen akordioa egitea, ondasun horiek eman direla ulertzeko:

- Salmentaren unean gauza ezin bada eroslearen lekura eraman.
- Erosleak salmenta baino lehenago gauza zuenean (KZren 1463. art.).

Erosleari jabetza-tituluak ematen zaizkionean, edo erosleak eskubideak erabiltzen ditunean eta saltzaileak onartu, ematea dagoela ulertzen da.

5.- JABETZA

5.1. KONTZEPTUA: KODE ZIBILAREN 348. ARTIKULUA

KZren 348. artikulua araberaz: *Jabetza da gauzak gozatu eta xedatzeko eskubidea, eta legean ezarritako mugapenak baino ez ditu.*

Doktrinak kritikatu egiten du artikulua idazkera:

- 1) Jabetza ez da, teknikoki, botereen batura.
- 2) Ikuspuntu politiko batetik, artikulua gizartearen kontrakoa den gauzaren gaineko erabateko botere-ideia adierazten du.

5.2. JABETZAREN AHALMENAK (*kritika, jabetasuna batzeko ahalmenaren ikusmoldeari*)

KZren 348. artikulua araberaz, *jabetza da gauzaz erabat gozatzeko eta xedatzeko ahalmenek osatzen duten batura.*

Kritikatu izan da jabetza definitzeko egiten den ahalmenak zerrendatzea. Doktrinaren sektore batek azpimarratzen du ahalmen horiek ez direla eksklusiboki jabetza-eskubidearenak. Hori dela-eta, oso zaila da erabateko jabetza beste eskubideekiko bereiztea.

Ikuspuntu horren arabera, alferrik da jabearen ahalmenak zerrendatzea edo sailkatzea, jabeak nahi duena egin baitezake. Ez genuke inoiz itxiko ahalmen posibleen zerrenda.

Azkenik, jabetza dago, nahiz eta kasu batzuetan jabetzaren ahalmen guztiak ez izan. Jabeak jabe izaten jarraitzen du, nahiz eta gauzaren edukitza eta gozamenik ez izan, bai errentamenduan eman duelako, bai gozamen-eskubide bat eratu delako. Halaber, jabea da, nahiz eta gauzaz xedatzeko aukerarik ez izan (xedatzeko debeku bat dagoelako).

Beraz, jabetza ahalmen-batura bat baino zerbait gehiago da.

5.3. JABETZAREN EZAUGARRIAK

Doktrinak ez du jabetza KZren 348. artikulua arabera definitzen; alegia, ez du jabetza ahalmen-batura gisa ulertzen. Doktrinak jabetzaren izaera bateratua eta homogeneoa azpimarratzen du. Jurisprudenzia ere bai (1946ko abenduaren 3ko AGE): *el dominio es el señorío abstracto y unitario sobre la cosa, y no la suma de las facultades, de las que el propietario puede verse privado temporalmente sin que por ello pierda la integridad potencial de su derecho, determinante de la posibilidad de recuperación efectiva de todas las dominicales.*

Ikusten denez, jabetzaren ezaugarri nagusi eta ezabaezina da, printzipioz, erabateko menderatzea. Menderatze horretatik ezaugarri hauek eratortzen dira:

1) **Orokorra izateko bokazioa.** Baldin eta zamatzen ez bada, eskubideak, salbuespenik gabe, gauzaren ahalmen, erabilera eta aukera guztiak barneratzen ditu. Gauzak horrela, hizkuntza arruntean, eskubidea gauzarekin nahasten da. Adibidez: «Auto jakin baten jabetza-eskubidea dut» esan beharrean, «nik auto jakin bat dut» esaten da. Eskubide mugatuaren kasuan, eskubidea ez da gauzarekin nahasten; ez da esaten «nik gauza bat daukat», baizik eta «nik eskubide jakin bat dut gauza baten gain». Mugatuek orokortasun-bokaziorik ez dutenez, ez dira nahasten.

2) **Abstrakzioa.** Jabetzaren abstrakzioa. Jabetza-eskubidea bere ahalmenarekiko bana daiteke. Existentzia propioa eta autonomoa du. Nahiz eta jabetza gozamen-zein zortasun-eskubideekin zamatua egon, juridikoki jabetza-eskubidea izaten jarraitzen du. Ez da eskubide mugatu bat.

3) **Malgutasuna.** Jabetza malgua da, potentzialki gauzaren gaineko botere guztiak barneratzen eta erreklamatzeko dituen neurrian. Beste titular batek, ahalmen horiek ez baditu, jabetzak bereganatzen ditu. Adibidez, *jabeak gozamen-eskubidearekin zamatua dagoen gauza alde batera uzten badu (res nullius), gozamen-eskubideak ez du jabetza soilik bereganatzen. Gozamen-eskubidea iraungitzen bada, jabeak gozamen-eskubidearen ahalmenak bereganatzen ditu. Jabetza soilik erabateko bilakatzeko da.*

5.4. JABETZAREN MUGAK

Herri-interesari jarraiki (industria sustatzea, kultura, ingurumena, eta abar), jabetzari mugak ezartzen zaizkio. Muga horiek arauen bidez ezartzen dira eta jabetzaren benetako irismena ezartzen laguntzen dute. Arau horiei esker jakingo dugu kasu bakoitzean zenbatekoa den jabearen boterea. Muga horiek definituko dute jabetza. Jabeentzat ez dira zama, baizik eta jabetzen artean oreka lortzeko modu bat, giza elkarbizitzaren esparruan.

Adibidez, KZren 553. artikulua araberaz, ibaien erriberak loturik daude: *herri-erabilerako zortasunaren menpe daude euren luzera eta ertzetan, hiru metroko zonaldean, nabigazio, flotazio, arrantza eta salbamenduko interes orokorraren mesederako.*

Itsasoaren erriberaren kasuan gauza bera: Ley de costas, 1988ko uztailaren 28koa, 20. artikulua eta hurrengoak: *servidumbres de protección, de cien metros, en los que, entre otras cosas, está prohibido construir edificaciones para residencia; servidumbres de tránsito de seis metros, que deben dejarse para el paso público general; servidumbre de acceso al mar de manera pública y gratuita.*

1988ko uztailaren 29ko Errepide Legeak debekatu egiten du errepideen zortasun-esparruan obrak egitea (autopista, autobia eta bide azkarretan 25 metro; gainerakoetan, 8 metro).

Ez nahastu muga horiek jabetzaren gain borondatez ezartzen diren zamekin. Adib.: *bide-zortasun eskubidea*. Zama horiek jabetzaren mamitik kanpo daude. Ez dute definitzen laguntzen. Jabetza-eskubidearen eduki normala salbuesenez gutxitzea da. Zama atertzen denean, jabetzak eduki normala (malgua) berreskuratu du.

Jabetzaren mugen artean auzotartasun-harremanak daude; ***alegia, jabeak bere jabetzaren erabilera normala egin behar du, kontuan harturik non dagoen.***

Jabetza mugatzea edo zamen artean doktrinak xedatzeko debekua ezartzen du. Gauzak xedatzeko ahalmena testamentu zein itun bidez ezaba daiteke (jurisprudentzia: guratia edo kausarik gabekoa deuseza da). Debekua legez ezar daiteke (babes ofizialeko etxeak).

Jabetza higiezinaren muga fisikoak.

KZren 350. artikulua araberaz: *Lurraren jabea lur horren azalean eta azpian dagoenaren ugazaba da, eta lur horretan berari komeni zaizkion obrak, landaketak eta lur-zulatze lanak egin ditzake, betiere zortasunei kalterik egin gabe, eta meatze eta urei buruzko legeek eta polizia-araudiek xedatutakoaren menpe.*

KZren 388. art.: *Jabe orok bere landak itxi edo hesi ditzake, horma, zanga, palaxu bizidun zein bizigabe nahiz beste edozein bide erabiliz, landotan eraturako zortasunei kalterik egin gabe.*

Mugarriekin ere muga daiteke jabetza. Mugakideekin ez bada ados jartzen, *mugarritze-akzioa* erabiliko da. Horren arabera, mugarritzea horrela egingo da:

- 1.- Mugakide bakoitzaren tituluak.
- 2.- Ez badaude edo ilunak badira, edukitza.
- 3.- Azkenik, lursaila banatzea.

Auzi-kasuan, epaileak nahi duen irizpidea erabil dezake epailearen aurrean.

5.5. JABETZAREN DEFENTSA

KZren 348. artikulua, jabetza definitu ondoren, zera xedatzen du: *Gauzaren jabeak akzioa du gauza horren ukandunaren eta edukitzailearen aurka, gauza errebindikatzeko.*

Errebindikazio-akzioak arrakasta izateko, beharrezkoa da:

- a) Egikaritzen duenak erreklamatzeko duen gauzaren jabe dela frogatzea.
- b) Akzioa egikaritzea, eskubiderik gabe eta bueltatzeari uko egiten dion edukitzailearen kontra.
- c) Erreklamatzeko den gauzak jakina eta zehatza izan behar du, alegia, identifikatua egon behar du.

Akzio deklaratzailerik ez da errebindikaziozkoa. Bere xedea da jabetzaren baieztapena lortzea, alegia, aktorea jabe dela deklaratzeko, mandatatuak uko egiten duenean edo bera jabe dela esaten duenean. Mandatuak ez du edukitzailea izan behar.

6.- JABEKIDETZA-EGOERAK

6.1.- ERKIDEGOA, ORO HAR

KZren 392. artikulua araberak: *Erkidegoa bada izan, gauza edo eskubide baten gaineko jabetza zenbait pertsonari indibisoan dagokienean. Zera ulertu behar da: gauza baten jabetza edo beste baten gauzaren gaineko eskubidearen titulartasuna.*

Ondasun erkidegoa **itun** baten ondorioz sor daiteke; adibidez, *bi pertsona ados jartzen dira etxe bat edo behi bat zatitu gabe erosteko*. Halaber, **legeak** (edo borondate partikularrak) **ezarritako gertaera baten ondorioz** sor daiteke; adibidez, - *Jonen eta Nerearen ardoa kasualitate edo hirugarren baten erruz nahasten bada, nahasketaren emaitza biei dagokien erkidegoa da.*

- *Pilarrek, testamentu bidez bere ondasunen oinordetza egiteko, bere lau ilobak izendatzen ditu. Kasu horretan, lau jaraunseleak erkidego bat sortzen da. Ilobek geroago desegin ahal izango dute, baina hasieran ezingo dute saihestu.*

- *Asier eta Onintza ezkontza-hitzarmenak esleitu gabe ezkontzen badira, gero irabaztean erkidegoa hasiko da. Erkidegoa sortuko da haien borondaterik gabe eta legearen eraginez.*

Erkidegoa arau dezakete aginduzko arauak urratzen ez dituzten itun zein testamentuek. Horien ezean, legeko erregelek eraentzen dute erkidegoa: KZk 392. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duen erkidego-eredua. Eredu horrek aplikazio

orokorra du, kasu bereziak kaltetu gabe (irabazpidezko erkidegoa edo sozietatea; oinordetzan eskuratzen den ondarea).

Erkidegoa ez da sozietate bat. Sozietatea, alderdiek horrela nahi izan dutelako, irabazteak lortzera zuzenduta dago. Erkidegoa, askotan, kontraturik gabe sortzen da (jaraunse-aniztasun batek jaraunspen bat jasotzen du). Erkidegoa trafikoan jarduten ez duten pertsonen artean sortzen da. Pertsona horiek ondasunak dituzte, eta ondasun horiei eutsi eta ondasun horiez gozatu nahi dute. Sozietate zibileko bazkideek sozietatearen xedeak lortzen lagundu behar dute. Jabekideak, ordea, ez du ekarpen pertsonalik egin behar ondasunen administrazio zein kontserbazioarentzat. Bata eta bestea bereizteak garrantzia du, egoera bakoitzari eraientza bat aplikatzen baitzaio.

6.2.- KODE ZIBILAREN EREDUA: JABEKIDETZA, KUOTEN ARABERA

Kode Zibilak ondasun erkidegoa arautzen duenean, jabekidetza arautzen du (ondasun erkidego mota bat da; garrantzitsuena). Jabekidetza da gauza berdin baten gainean titular anitzek duten jabetza.

KZren ereduan, jabekideak gauzaren gainean zenbakietan adierazten den parte-hartze proportzionala du: erdia, laurden bat, milagarren bat. Kuota horrek eskubideak duen neurria adierazten du, gauzaren aprobetxamendu ekonomikoa neur daitekeen kasu guztietan. *Adibidez, bulego-eraikuntza saltzen bada, partaideak prezioaren erdia, laurden bat edo milagarren bat eskuratzeko eskubidea du. Su hartzen badu, partaideari kalte-galeren ordainaren erdia, laurdena edo milagarrena dagokio. Eta errentamenduan ematen bada, hileru ordaintzen den errentaren erdia, laurdena edo milagarrena.*

KZren 393.2. artikulua arabera: *Erkidegoaren partaideei dagozkien zatiak berdinak direla uste izango da, kontrakoa frogatzen ez den bitartean.*

6.3.- JABEKIDETZAREN ERAENTZA JURIDIKOA (KUOTEI JARRAIKI)

a) Jabekide bakoitzak duen jarduteko esparrua: erabiltzea eta gozamina

Kuotak partaide bakoitzak gauzez (sortzen dituen fruituez edo errentez) gozatzeko duen eskubidearen neurria ematen du⁴. Kontaketarik ezin bada egin, edo ez bada egin eta zalantzak badaude, partaideek gauza erabiltzeko eskubidea dute⁵.

⁴ KZren 393. artikulua arabera: *Erkidegoaren partaideek horren onura eta zametan hartuko dute parte, euren kuoten arabera.*

⁵ KZren 394. art.: *Erkidegoaren partaide bakoitzak gauza erkideak erabili ahal izango ditu euren xedearekin bat etorriz, erkidegoaren interesari kalterik egin gabe, eta gainerako partaideei gauzok euren eskubidearen arabera erabiltzea eragotzi barik.*

B) Zamak eta gastuak

KZren 393.1 artikuluaaren arabera: *Erkidegoaren partaideek horren onura eta zametan hartuko dute parte, euren kuoten arabera; eta 395. artikulua zera gehitzen du: Jabekide orok gainerako partaideak behartu ditzake gauza edo eskubide er kidea artatzeko beharrezkoak diren gastuak ordaintzera. Partaidea betebehar horretatik askatu ahal izango da, jabarian dagokion zatiari uko egiten badio bakarrik.*

c) Jarduera bateratuaren esparrua: gauza komunaren administrazioa

KZren 398.1-3 artikuluaaren arabera: *Gauza erkidea administratu eta hobeto gozatzeko bete beharrekoak izango dira partaide gehienek hartutako erabakiak. Halako gehiengoan izan dadin, erabakia hartu duten partaideek ordezkatu behar dituzte erkidegoaren xedea eratzten duten interes gehienak. Gehiengorik ez badago, edo gehiengoaren erabakiak kalte larriak badakartza gauza erkidearen gain interesa dutenentzat, epaileak egoki deritzona aginduko du alderdiak hala eskatuta; halakoetan, epaileak administratzaile bat ere izenda dezake. Gauzaren zati bat pribatibo moduan dagokienean partaide bati edo batzuei, beste zatia erkidea izanik, azken horri bakarrik aplikatuko zaio aurreko xedapena.*

Erkidegoarentzat onerakoak diren akzio judizialak egikaritzeko, ez da gehiengoaren erabakirik behar.

d) Gauza komunaz baliatzea

Gauza batez bi modutan balia gaitezke:

- 1.- Bere esentzia fisikoa aldatuz.
- 2.- Bere gain dugun botere juridikoa, erabat edo partzialki, besterenduz.

Lehenengo moduari dagokionez, KZren 397. artikuluaaren arabera: *Jabekideetatik batek ere ezin du gauza erkidean aldakuntzarik egin gainerako jabekideen adostasunik gabe, nahiz eta aldakuntzok guztientzat onuragarriak izan.*

Bigarren kasuan, berriz, besterentzeko nahitaezkoa da denen parte-hartzea.

e) Parte-hartzearen edo kuotaren eraentza

KZren 399. artikuluaaren arabera: *Jabekide orok jabetza osoa du bere zatiaren eta berari dagozkion fruitu eta onuren gainean; ondorenez, jabekideak jabetza hori besterendu, laga edo hipotekatu ahal du, bai eta beste inor jabetzaren aprobetxamenduan jarri ere, eskubide pertsonalen kasuan izan ezik. Dena den,*

besterentze edo hipoteka horrek ondoreak sortuko ditu, gainerako jabekideei begira, erkidegoa amaitu eta zatitzean jabekide horri adjudikatzen zaion zatiaren gainean bakarrik.

KZren 1522. artikulua araberan, *partaideek atzeraeskuratze eskubidea dute (derecho de retracto: partaide batek bere zatia jabekide ez den pertsona bati saltzen badio, edozein jabekidek eskura dezake salmenta horren prezioa ordainduz).*

6.4.- GAUZA KOMUNA ZATITZEA

Gauza komun bat banatzen denean, jabekide bakoitzak gauzaren zati bat eskuratuko du (banaketa fisikoa). Gauza ezin bada fisikoki zatitu, saldu egingo da, prezioa jabekideen artean banatuz (banaketa ekonomikoa). Bai banaketa fisikoan bai banaketa ekonomikoa, jatorrizko jabekide anitza desegin egiten da, eta haien artean harremanik ez duten titular independenteak sortzen dira.

KZren 401.1 artikulua araberan, hiru pertsonen jabetzakoa den zaldi edo auto bat ezin da haien artean banatu: *jabekideek ezin dute gauza erkidearen zatiketa eskatu, horrekin gauza baliogabe suertatzen denean xedetzat duen erabilera betetzeko.* Horrek ez du eragozten, ordea, balio-banaketa. KZren 404. artikuluar jarraiki: *Gauza berez zatiezina izan eta jabekideak ez direnean ados jartzen gauza hori eurentako bati adjudikatu eta horrek gainerakoei kalte-ordaina emateko, gauza saldu eta horren prezioa banatuko da.*

KZren 400. artikulua araberan, jabekide bakoitzak edozein unetan eska dezake gauza erkidearen zatiketa. Halaber, jabekideek zatiezintasuna hitzar dezakete. Zatiezintasunak ezin du hamar urteko epea gainditu.

KZren 402. artikuluar jarraiki: *Gauza erkidearen zatiketa egin dezakete, bai interesdunek, bai eta partaideen borondatez izendatutako tartekari nahiz ararteko adiskidetzailleek ere. Tartekari nahiz ararteko adiskidetzailleek zatiketa egiten badute, erkidegoaren zatiak eratu beharko dituzte erkide bakoitzari dagokion eskubidearen arabera; ahal den neurrian, saihestu behar dute erkideei osagarriak diruz ordaintzea.*

KZren 1068. artikulua dio legezko zatiketak egokitu zaizkion ondasunen jabetza eskusiboa esleitzen diola jatorrizko partaide bakoitzari. Ondasunak kuotan subrogatzen dira.

6.5.- BEREZIKI, JABEKIDEEN KOMUNITATEA

a) Jabetza Horizontalari buruzko Legea

Jabetza Horizontalari buruzko Lege gisa ezagutzen den 1960ko uztailearen 21eko Legeak (1999ko apirilaren 6ko Legeak aldatzen duenak) etxe berean dauden pisuen jabetza indibiduala eta jabeen artean sortzen den erkidego-egoera arautzen du. Jabeen artean, nahitaez, erkidego-egoera bat sortzen da, etxearen elementu jakin

batzuk, berez, ezin direlako jabekide baten jabetza eskusiboak izan: eskailerak, sarrerako patioa, argi-patioa, berogailu-sistema zentrala, horma nagusiak, eta abar.

«Jabetza horizontala» delakoaren eraientza 1960ko Legearena da. Lege horrek araudi zehatza dauka, eta arau gehienak aginduzkoak ditu; alegia, jabekideek ezin dituzte aldatu estatutu eta erkidego-erregelen bidez. Aginduzkoak dira alderdi hauei eragiten dieten arauak:

- eraikuntzaren segurtasuna eta kontserbazioa
- elkarbizitza
- erabakiak hartzeko eta kolektibitatea ordezkatzeko organoak

Legeak arautu ez dituen hipotesietan edo xedapenezko arauekin arautu dituen kasuetan, estatutuek arautuko dute erkidegoa. JHLren 5. artikulua araberan, estatutuek ezar ditzakete puntu hauek arautzen dituzten arauak: *eraikinaren eta horren pisu, lokal, instalazio eta zerbitzuen erabilera edo destino, gastu, administrazio eta gobernu, aseguru eta artapen eta konponketak barne*. Jabekideek, barne-erregimen bat akordatuz, elkarbizitza eta zerbitzu eta gauza komunen erabilera zehatz ditzakete (JHLren 6. art.).

b) Elementu komunak eta pribatiboak

Legearen 3. artikulua araberan, zera dagokio pisu edo lokal bakoitzaren jabeari:

b.1.) *Jabetza-eskubide berezi eta eskusiboa, behar beste mugatuta dagoen eta modu independentean aprobetxa daitekeen espazioaren gainean, espazio horren mugen barruan dauden eta jabeak modu eskusiboan darabiltzan osagai arkitektoniko eta instalazioen gainean, horiek edozein motatakoak izanik eta begi-bistan egon zein egon ez, bai eta tituluan beren beregi aipatutako eranskinen gainean ere, nahiz eta eranskinok espazio mugatutik kanpo egon.*

b.2.) *Jabekidetasuna, beste pisu edo lokaletako ugazabekin batera, gainerako osagai, ondasun eta zerbitzu erkideen gainean.*

KZren 396. art.: *Eraikinaren pisu edo lokalak nahiz horien zatiak, eraikin horren osagai erkide batera edo herri-bidera berezko irteera izateagatik, modu independentean aprobetxa badaitezke, jabetza bananduaren objektu izan daitezke, eta jabetza banandu horri jabekidetasun-eskubidea datzekio eraikinaren osagai erkideen gainean; osagai erkideak dira eraikina egoki erabili eta horretaz gozatzeko beharrezkoak diren guztiak, besteak beste, lurra, lurgaina, zimendazioak eta gainaldeak; egiturako osagaiak, eta, horien artean, zutabe, habe, solairu eta zama-hormak; fatxadak, terraza, balkoi eta leihoen kanpoko gainestalkiekin batera, euren irudi edo itxuraketa, eurok eratzen dituzten itxitura-osagaiak eta haien kanpoko gainestalkiak barne; ataria, eskailerak, atezaindegiak, korridoreak, igarobideak,*

murruak, zuloak, patioak, putzuak eta igogailu, gordailu, zenbakailu, telefono edo beste zerbitzu nahiz instalazio erkide batzuetarako destinaturiko barrunbeak, baita erabilera pribatiboa dutenak ere; igogailuak, eta ur, gas edo elektrizitatearen hustuketa nahiz hornidurarako instalazio, ekarketa eta biderakuntzak, baita eguzkiaren energia aprobetxatzeko balio dutenak ere; garbitzeko ur beroarenak, berogailuak, aire girotuarenak, kea egurastu edo husteko balio dutenak; suteak atzeman eta horien aurreneurriak hartzeko balio dutenak; irekigailu automatikoa eta eraikinaren segurtasunerako balio duten bestelakoak, bai eta antena kolektiboak eta ikus-entzunezko edo telekomunikazioko zerbitzuen gainerako instalazioak ere, horiek guztiak espazio pribatiboan sartu arte; zortasunak eta bestelako osagai material nahiz juridikoak, euren izaera edo xedearengatik, zatiezinak badira.

Jabekidetasunaren mendeko osagaiak ezin dira inola ere zatitu; zatiok osagai pribatibo jakin baten eranskin banaezinak direnez gero, horrekin batera bakarrik besterendu, kargatu edo enbargatu ahal izango dira.

Pisu edo lokala besterentzen bada, gainerako pisu edo lokalen jabeek, titulu horren bidez bakarrik, ez dute eroslehentasun-eskubiderik izango, ezta atzera eskuratzeko eskubiderik ere.

Lege-xedapen bereziek, eta, horiek ahalbidetzen duten neurrian, interesdunen borondateak arautzen dute jabetzaren forma hori.

c) Pisuaren jabearen posizioa

c.1.) Jabe bakoitzak bere pisua bakarrik erabil eta goza dezake, bai pertsonalki bai lagaz (errentamendua edo beste titulu bati jarraiki). Baina debeku honetan adierazten da bere eskubidearen izaera amankomuna: *Pisu edo lokalaren jabeak eta okupatzaileak ezin dute bertan edo ondasun higiezinaren gaineko zatietan jarduerarik burutu, baldin eta jarduera hori estatutuetan debekaturik badago, finkarentzat kaltegarria bada, edota jarduera horrek jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri, arriskutsu nahiz zilegi ez direnei buruzko xedapen orokorrak urratzen baditu (JHLren 7.2 art.).*

c.2.) Erkidegoaren eratze-eskirituran pisu-jabeari kuota bat esleitzen zaio. Eskuarki, kuota hori zuzenki proportzionala da pisuaren benetako balioarekin (hedadura, kokapena, egoera) eta zerbitzu eta gauza komun ustezko erabilerarekin. Kuota horrek funtzio bikoitza du (JHLren 9. art.):

Alde batetik, bakoitzaren ekarpena zehaztea:

- Eraikuntza eta haren zerbitzuak mantentzeko beharrezkoak diren gastu orokorretan; zergetan; zametan, eta indibidualizatu ezin diren beste erantzukizunetan.
- Finka kontserbatzeko eta konpontzeko nahitaezkoa den fondoan.

Bestetik, jabekidearen parte-hartzea zein den kuantifikatzea:

- orubean (eraikuntza hondatzen bada)
- altuera gehitzean
- desjabetze-prezioan, eta abar.

Eta Batzarraren akordioetan haren botoaren garrantzia zein den erabakitzea.

d) Erkidegoaren jarduna

1960ko Legearen arabera, eraikuntza beraren pisu-jabeen erkidegoek sozietate gisa funtzionatzen dute.

d.1.) Jabeen batzarra gobernu-organoa da, eta erkidegoaren gai guztiak erabakitzen ditu: gastuen eta diru-sarreraren plana, obrak eta hobekuntzak, elkarbizitza-arauak, izendatzeak, kargutik kentzeak, administrazioaren kontrola, eta abar.

Batzarra hasten denean jabe batek erkidegoari ordaindu gabeko zorrak baditu, ez du bozka-eskubiderik izango (JHLren 15. art.).

d.2.) Presidenteak jabeek izendatzen dute (13.2 art.). Presidenteak egiten du batzarrerako deialdia (16.2 art.). Presidenteak ordezkatzeko erkidegoa, judizioan zein judiziorik kanpo, hari eragiten dioten gai guztietan.

d.3.) Administrari bat izenda daiteke. Ez da beharrezkoa administraria jabeekide izatea. Eskuarki, profesionalki finkak administratzen dituen agentzia bat kontratatzen da. Administratzaileari dagokio (20. art.):

a) Etxearen araubide ona, eta horren instalazioak eta zerbitzuak zaintzea; ondore horietarako, titularrei egokiak diren ohartarazpenak egin beharko dizkie.

b) Behar besteko aurrerapenarekin, aurreikusteko moduko gastuen plana prestatzea eta plan hori batzari aurkeztea; gainera, gastu horiei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak proposatu beharko ditu.

c) Etxearen artapenari eta mantentzeari aurre egitea, presakoak diren konponketak eta neurriak hartuz; halako konponketak eta neurriak hartuz gero, horien berri eman beharko zaio, berehalakoan, lehendakariari, edo, hala denean, jabeei.

d) Hartutako erabakiak betearaztea, obren arloan, eta bidezko diren ordainketak egitea eta kobrantzak jasotzea.

e) Hala denean, batzaren idazkari gisa jardutea eta erkidegoaren dokumentazioa zaintzea, hori titularren eskura jarritz.

f) Batzak berari ematen dizkion gainerako eskumenak.

7.- IKASGAIA

HIGIEZINEN ERREGISTRO-ZUZENBIDEA

AURKIBIDEA. 1.- Jabetza Erregistroa. 2.- Erregistroaren antolakuntza eta jarduna. 2.1.- Finka, erregistroaren oinarri gisa. 2.2.- Immatrikulatzea. 2.3.- Inskribagarriak diren eskubideak eta kontratuak. 2.4.- Idazpenak. 2.5.- Prozedura. 3.- Inskripzioaren efektuak. 3.1.- Erregistro titularraren babesa. 3.2.- Eskuratzaileren babesa

1.- JABETZA ERREGISTROA (*ondasun higiezinak bakarrik*)

Ondasun higiezinaren Jabetza Erregistroa Hipoteka Legeak sortu zuen. Ondasun higiezin baten gain existitzen diren eskubideak jasotzen ditu. Halaber, eskubide horiek argitaratzen ditu.

Erregistroa da bertan argitaratzen dituen eskubideen existentziaren frogabide bat. Eskubidearen titularra zein, beste edozein interesatu frogabide horretaz balia daiteke.

Organismo horren funtzioa ez da soilik inskribatuta dauden eskubideen berri ematea. Horretaz gainera, organismo horrek eskubideen existentzia bermatzen du, existentzia hori kontuan harturik egin diren kontratuen eraginkortasuna zehaztuz. Erregistroak ematen duen berriak (nahiz eta faltsua izan) benetakoa izango balitz bezala balio du eskuratzailerentzat.

2.- ERREGISTROAREN ANTOLAKUNTZA ETA JARDUNA

2.1.- FINKA, ERREGISTROAREN OINARRI GISA

Erregistroan finkak jasotzen dira. Erregistroaren folio batean jasotzen dira ondasun higiezin baten gorabehera juridiko guztiak. Era horretan, folio horrek adieraziko du, une bakoitzean, ondasun higiezinaren egoera juridikoa zein den.

Erregistroak egiten duen publizitatearen oinarria ez da ondasunaren jabea, baizik eta finka bera, denboran irauten duena. Finka bakoitza zenbaki berezia duen folio batean inskribatzen da. Folio horretan batzen dira ondasun higiezinari eragiten dioten eta haren egoera juridikoa definitzen duten egintza guztiak. Gauzak horrela, Erregistroa kontsultatzen duen edonor gida daiteke folio horri dagozkion orriek

adierazten duten informazioarekin. Finkaren folioan agertzen ez diren mugek eta gatazken ebazpenek ez dute kaltetzen. Zama horiek finkaren inskripzioan agertu behar dira, hirugarrenei eragiteko.

2.2.- IMMATRIKULATZEA (*lehenengo idazpena eta lehenengo inskripzioa*⁶)

Kontzeptualki, desberdinak dira finka Erregistroan sartzea (folioa zabalduz), eta Erregistroan jasotzea horren gaineko eskubideak. Teorian, nahitaezkoa da finka bera (elementu fisikoa) eta finka horren jabetza (elementu juridikoa) bereiztea. Hala ere, praktikan nahastu egiten dira elementu horiek.

Ondasun higiezinari dagokion folioan, erregistratzaileak lehenengo inskripzioan (idazpenean) finkaren deskripzioa jasotzen du (inskribatua izateko aurkeztu zaion dokumentuan jasotzen den deskripzioa kopiatzen du) eta zein den horren eskuratzailerak edo jabea. Idazpen edo inskripzio horiek ez dute bereziki finka deskribatzen. Deskribapena egiten duen inskripziora igortzen dute.

2.3.- INSKRIBAGARRIAK DIREN ESKUBIDEAK ETA KONTRATUAK

Erregistrora eramaten dira ondasun higiezinaren gaineko eskubide *erreal*⁷ buruzko egintzak eta kontratuak jasotzen dituzten eskritura publikoak, inskribatzeko (dokumentu pribatuak ez dute balio). Beste era batean esanda, inskribatzera ez dira eramaten eskubideak bakarrik, baita eskubide horiek sortu, aldatu eta iraungitzen dituzten egintza eta kontratuak ere; hau da, sortzeko, aldatzeko edo iraungitzeko titulu moduan balio duten egintzak eta kontratuak. Erregistroan harrera duena egintza edo kontratua da (eskurapen-titulua), baina eskubideak argitaratzen dira.

2.4.- IDAZPENAK

Erregistroaren inskripzio-liburuetan idazpenak egiten dira. Idazpen horien edukiak bat egiten du aurkezten diren dokumentuen edukiarekin:

- Inskripzio-idazpena. Eskuarki, eskubide errealak argitaratzeko balio duena.
- Prebentziozko oharra. Haien ezaugarria iragankortasuna da. Inskripzioak behin betiko izan nahi du; berez, ez da iraungitzen. Prebentziozko oharraren idazpena, berriz, epealdi baterako da; beste eperik ez bada ezartzen, 4 urtean iraungitzen da.

Eskuarki, ohar horiek jakinarazten dute ondasunen titulartasunaren gain zalantzak daudela eta, geroan, balizko aldaketak gerta daitezkeela.

⁶ Eskubideak inskribatu egiten dira eta finka immatrikulatu egiten da.

⁷ Kreditu-eskubideak, printzipioz, ez dira inskribagarriak.

2.5.- PROZEDURA

Jabetza Erregistroan inskribatzeko dokumentu publiko bat aurkeztu behar da. Dokumentuaren aurkezpena liburu batean jasotzen da (Egunerokoa): data, ordua, finka identifikatzeko datu jakin batzuk, eskubidea eta titularra. Eratu den idazpenaren datak mugatzen du bertan jasotzen den berriaren eraginkortasunaren hasiera.

Titulua aurkeztuta, erregistratzaileak aztertuko du titulu horrek erregistro-folioan jasota izateko eskatzen diren legezko baldintzak betetzen dituen ala ez. Hauek dira betekizunak:

- kontratuak edo egintzak eskubide erreal bati aipamen egitea
- bere edukia legala izatea
- titulartasun berriak lotura izatea Erregistroan jasota dagoen titulartasunarekin; *segidako traktua* delakoak egon behar du.

3.- INSKRIPZIOAREN EFEKTUAK

3.1.- ERREGISTRO-TITULARRAREN BABESA

Erregistroko titularrak akzio berezi bat du. Akzio horri jarraiki, bere alde inskribatuta dagoen eskubideari dagokion edukitza eska dezake. Hala ere, ez da interdiktua galdu zen edukitza berreskuratzerazuzenduta dagoena. Gauzaren edukitza inoiz izan ez duen titular inskribatu batek egikari dezake Hipoteka Legearen 41. artikulua ezartzen duen akzioa. Noren kontra? Bere edukitza justifikatzen duen titulu juridikorik gabe edo zalantzarik gabe iraungita dagoen titulua duen edukitzailearen kontra.

3.2.- ESKURATZAILEAREN BABESA

Eskuratzailearen eskurapena babesten da haren eskubidea inskribatu eta gero; nahiz eta gero, Erregistroan agertzen ez diren kausei jarraiki, emailearen eskubideak deuseztatu edo suntsitu. Babes hori izateko, beharrezkoak dira betekizun hauek:

- Fede ona.
- Kostubidez eskuratzea.
- Emailea Erregistroan agertzea, eskubidea eskualdatzeko gaitasunarekin.

Dohainik eskuratu dutenek haien eskualdatzaileek duten erregistro-babes bera izango dute.

8.- IKASGAIA

BETEBEHARRAK

AURKIBIDEA. 1.- Betebeharraren kontzeptua. 2.- Betebeharraren iturriak. 2.1.- Aldebakarreko borondatea, betebeharraren iturri gisa. 2.2.- Betebeharraren naturalak. 3.- Betebeharraren objektua. 4.- Prestazio motak. 5.- Betebeharraren subjektuak. 6.- Ordainketa edo betetzea. 7.- Ordainketaren betekizun objektiboak eta ordainketaren objektua. 8.- Ordainketaren inguruabarrak. 9.- Ordainketaren froga. 10.- Ordainketak egotea. 11.- Ordainketaren subrogatuak. 11.1.- Ordainketan ematea. 11.2.- Ondasunak lagaz ordaintzea. 12.- Kredituaren lesioa. Ez-betetzea. 13.- Zordunaren berandutza. Berandutza automatikoa. Berandutza edo betetze atzeratua. 14.- Betebeharrak iraungitzea. 14.1.- Konpentsazioa. 14.2.- Eskubideak nahastea. 14.3.- Zorra barkatzea. 14.4.- Nobazioa edo berritzea. 15.- Eskualdatzea eta betebeharraren beste aldaketa subjektibo batzuk. 15.1.- Kredituen lagapena. 15.2.- Ordainketa subrogazioarekin. 15.3.- Zorrak eskualdatzea. 16.- Kreditua bermatzea. 16.1.- Orokortasunak. 16.2.- Konbentziozko pena. 16.3.- Errentzio-eskubidea. 16.4.- Erresak. 16.5.- Akzio subrogatzailea. 16.6.- Akzio zuzena. 16.7.- Akzio ezeztatzailea edo pauliarra. 16.8.- Kredituaren eraginkortasuna.

1.- BETEBEHARRAREN KONTZEPTUA

Betebeharraren eraentza orokorra Kode Zibilean jasota dago, 1088.-1253. artikuluan tartean.

KZren 1088. art.: *Betebeharraren oro zerbait eman, egin edo ez egite horretan datza.*

Betebeharraren bi aldetako egoera bat da: alde batetik, zordunaren posizioa eta, bestetik, hartzekodunarena.

HARTZEKODUNA. Eskubide subjektibo baten titularra da, alegia, kreditu-eskubidearena. Eskubide horrek zordunari ahalmena ematen dio prestazioa (zor den portaera) eskatzeko. Aldi berean, eta ez-betetze kasuan, hartzekoduna ahalmenduta dago zordunaren ondasunen kontra jarduteko.

ZORDUNA. Betebeharraren juridiko baten (zorraren) subjektua da. Betebeharraren horrek zor den portaera aurrera eramatea eta ez-betetzearen ondorioak jasatea ezartzen dio.

Betebeharraren bi aldetako egoera den neurrian, harreman juridikoa da, alegia, betebeharraren harremana.

Harreman hori tresna bat da, pertsonen beren artean ondasunak eta zerbitzuak eskualda ditzaten.

DEFINIZIOA. Betebehar-harremana bi pertsonen artean ezarritako harreman juridikoa da. Harremanak xedetzat du alderdietako batek bestearen laguntzaz ondasun edo zerbitzu jakin batzuk eskuratzea; edo biek, bata besteari lagunduz, ondasunak eta zerbitzuak elkarren artean eskualdatzea.

Erosle eta saltzaile bat lotzen dituen harremana da; errentatzailea eta maizterra, eta abar.

Betebeharra kreditu eta zorraren arteko lotura da, eta betebehar-harremana da xede edo interes jakin batzuk lortzeko ezartzen den harreman osoa. Betebeharra askoz handiagoa den harreman horretan barneratzen da.

2.- BETEBEHARRAREN ITURRIAK

KZren 1089. art.: *Betebeharrak sortzen dira legetik, kontratu eta kuasikontratuetatik, eta zilegi ez diren egite nahiz ez-egiteetatik, eta edozein motatako erru nahiz zabarkeriaren burututako egite eta ez-egiteetatik ere bai.*

1.- LEGEA (KZren 1090. art.). Legeak eratorritako betebeharrei buruz ez dago presuntziorik. Kode horretan edo lege berezietan beren beregi zehaztutako betebeharrak bakarrik dira eskatzeko modukoak, eta betebeharrok ezartzen dituen legearen manuek arautuko dituzte horiek; legeak ezartzen ez dituen gaitan, berriz, liburu honetako xedapenek arautuko dituzte.

2.- KONTRATUA (KZren 1091. art.). *Kontratuetatik sortzen diren betebeharrek lege-indarra dute alderdi kontratugileen artean, eta betebeharrok kontratu horien arabera bete behar dira.*

3.- KUASIKONTRATUAK. KZren 1887. artikulua era honetan definitzen ditu: *Egitate zilegi eta borondate hutsekoak dira; horien ondorioz, beren egilea betebeharpean geratzen da hirugarren bati begira, eta, batzuetan, elkarrekiko betebeharra sortzen da interesdunen artean.*

Bi kuasikontratu daude: beste baten negozioen kudeaketa ofiziosoa, eta zor ez dena kobratzea.

4.- DELITUAK ETA FALTAK. Delituek zein faltek betebehar jakin bat sortzen dute: delituaren objektu izan diren gauzak bueltatzeko betebeharra, eta delituak zein faltak sortutako kalte eta galerak ordaintzeko betebeharra. Zigor Kodean dago betebehar horien eraentza.

5.- ERRU EDO ARRETA GABEZIAZ BURUTUTAKO EGITE ETA EZ-EGITEAK. KZren 1093. artikulua zera ezartzen du: *Legearen bidez egite edo ez-egiteak zigortu ez, eta egite edo ez-egite horiek eratortzen dituzten betebeharrak erru edo zabarkeriarekin burutu badira, betebeharrak liburu horren XVI. tituluko II. kapituluaren xedapenen menpe geratuko dira.*

KZren 1902. artikulua, berriz, zera dio: *Norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra du.*

Doktrinak bi iturritara murrizten du sailkapena:

- AUTONOMIA PRIBATUA. Gizabanakoak duen boterea, harreman juridikoak sortzeko.
- ESTATUAREN SUBIRANOTASUNA. Alderdien artean nahitazko harremanak sortzen ditu, haien borondatea alde batera utziz.

2.1. ALDEBAKARREKO BORONDATEA, BETEBEHAR ITURRI GISA

Aldebakarreko borondatea nahikoa da betebeharrak sortzeko? Posible al da pertsona baten borondate bakunetik betebeharrak sortzea? Aldebakarreko adierazpenak sortzen al du loturarik hura igorri duenaren gain? Eta sortzen al du kreditu-eskubiderik deklarazio horretan parte hartu ez duten beste pertsona batzuen alde?

Pertsona batek txakurra galdu du; hura aurkitzen duenari sari bat emango diola hitz ematen badu, **behartua egongo da saria ordaintzera?** Eta, aldi berean, lehiaketa batera aurkezten denak (literatur-, arte- edo ikerketa-lehiaketa) **eska diezaioke antolatzaileari saria emateko?**

Printzipioz, *inter vivos* egindako aldebakarreko borondate-deklarazioak ez du loturarik sortzen. Deklarazio horri honako izaera hau aitortzen zaio: ezezta daitekeen liberaltasun-eskaintza bat izatea.

Legegilearentzat zorra sortzen da deklarazioaren hartzaileak esanbidez edo isilean onartzen duen unetik.

Salbuespen gisa, saria emateko promesa publikoak badu eraginik (galdu den edo lapurtu den txakurra edo bitxia aurkitzea); horrek azalpen soziologikoa du. Ulertzen da komeni dela sari-eskaintza publikoei eta zabaldu direnei denboran eustea, eta gertaera gauzatu gero betetzera behartzea, gainerako pertsonengan sari-itxaropena sortu dutelako. Deklarazioaren nahitazkotasuna ohituratik eratortzen da, betebehar-itxaropen bat sortzerakoan. Pertsonen orokortasunak uste du deklarazio horien aurrean betebeharra dagoela, eskuarki ordaintzen baitira.

Horrela, ohitura edo fede onaren printzipioa oinarri gisa hartuz, promesak (baldintzak bete ondoren, batez ere) nahiko publizitate izateak bi etapatan izango duela eragina defendatzen da:

1) Promesa edo hitzmatea egiten duena lotuko da, borondate-adierazpena publiko egiten denetik. Une horretatik, behartua egongo da eta, adierazpena ezeztatu nahi badu, hura egiteko erabili dituen bitarteko berak erabili beharko ditu.

2) Hitzeman duena beteko da, prestazioa eskatzen duen pertsona zehatzak jarduera aurrera eramanean edo emaitza lortu duenean. Emaitza lortzeak (bitxia aurkitzea) kreditu-eskubidea (saria eskatzea) jaioarazten du, hura lortzean promesa ezagutzen ez zuen kasuan ere.

2.2.- BETEBEHAR NATURALAK

Betebehar naturalaren kontzeptuak Erromatar Zuzenbidean du jatorria. Zuzenbide horretan betebehar naturala ezin zitekeen eska, baina efektu jakin batzuk sortzen zituen. Batez ere, *solutio retentio* efektua: ezin zitekeen eska ordaindutakoa bueltatzeko.

Erromatar Zuzenbidean mugatuta zegoen betebehar naturalen kopurua: adin txikikoek eta ezgaituek bereganatutako betebeharrak ziren. Ez zuten gaitasunik hori egiteko. Hori dela-eta, zorra ezin zitekeen eska, baina betez gero, ezin zuten berreskuratu.

Doktrina modernoarentzat beste esanahi bat du betebehar naturalak. Gaur egun, ondarezko edukia duten betebehar sozialak edo moralak dira betebehar naturalak. Betebehar naturalak bereganatu duena behartzen du ohore eta kontzientziaren eremuan.

Doktrinarentzat betebehar naturalak ez du harreman juridikorik eratzen. Betebehar moral edo soziala da. Arauak betebehar natural hori aurreikusten du, balioesteko zein den betebehar hori betez gauzatu den ondarezko eskualdatzearen izaera. Ez dago betebehar-harremanik.

Hartzekodunak ezin du betetzeko eskatu. Zordunaren gain, berriz, ez dago inolako betebehar juridikorik. Betebehar morala duenak, ez badu hori betetzen, ez du inolako ondorio larririk jasan behar. Ordenamendu juridikoak ez dio inolako erantzukizunik ezartzen ez-betetze kasuetan.

Orduan, zer esan nahi da betebehar naturalei buruz hitz egiten denean? Zuzenbidearentzat baliagarriak eta eraginkorrak direla betebehar sozial, moral edo kontzientziazkoak betez egindako ondarezko eskudantziak. Eskudantzia horiek bidezko kausa bat dute: betebehar sozial, moral edo kontzientziazkoa.

3.- BETEBEHARRAREN OBJEKTUA. PRESTAZIOA

Betebeharraren objektua da zorduna egitera behartuta dagoen eta hartzekodunak eska diezaiokeen portaera.

Zordunak portaera edo jokabide bat zor du; horri prestazioa deitzen zaio.

Prestazioaren edukia izan daiteke: zerbait ematea, zerbait egitea edo zerbait ez egitea.

3.1.- PRESTAZIO MOTAK

Prestazio moten arabera, hiru betebeharraren mota bereizten dira:

EMATEKO BETEBEHARRA

«Emateko betebeharrak» izaera positiboa du eta gauza zehatz bat ematean datza. Hau da bere prestazioa: gauza zehatz bat ematea. Horrek esan nahi du zordunaren ondaretik hartzekodunaren ondarrera, gutxienez, gauza baten edukitza eskualdatzen dela. Halaber, emateko betebeharrak, normalki, eman behar den objektuaren aurrezistentzia dakar berekin.

Kasu honetan, hartzekodunak gauzaren edukitza hartu ahal izateko, zordunak gauzatu behar dituen egintza guztiek osatuko dute betebeharraren objektua.

«Emateko jarduerak» esanahi desberdinak izan ditzake harremanean lortu nahi den geroko xedearen arabera. Hori dela-eta, bereiz daitezke:

- 1) **Gauza baten gaineko jabetza edo beste eskubide erreal bat** eskualdatzen duen emateko betebeharra.
- 2) **Gauza baten edukitza** eskualdatzen duen emateko betebeharra.

ERREGELAK

- 1) Gauza baten jabetza eman behar denean, hartzekodunak eskubidea du betebeharra jaio zenetik sortu diren fruituak eskuratzeko (KZren 1095. art.).
- 2) Gauza zehatz bat emateko betebeharrak barnean hartzen du haren osagarri guztiak emateko betebeharra ere, nahiz eta aipatuak ez izan (KZren 1097. art.).
- 3) Zordunak, gauza eman arte, familiako guraso on baten arretarekin zaindu behar du (KZren 1094. art.). Betebeharrak hori gauza zehazgabea edo generikoa denean, ez da emango.

EGITEKO BETEBEHARRA

Egiteko betebeharrean hitzartutako prestazioa da jarduera jakin bat gauzatzea. Bereizi beharra dago:

Bitartekoen eta emaitzaren betebeharrak:

- *Bitartekoen betebeharra:* jarduera edo jokabidea eginez agortzen da betebeharra.
- *Emaitzaren betebeharra:* jokabidea gehi jarduera horrentzat aurreikusitako emaitza lortuz agortzen da betebeharra.

Norberak konplitu beharreko jarduera edo jarduera suntsiezina, eta jarduera suntsigarria edo betebehar pertsonala:

- *Norberak konplitu beharreko jarduera edo jarduera suntsiezina.* Prestazioa zehaztu denean, kontuan izan da zorduna, eta horrek prestazioa identifikatzen lagundu du. Hortaz, zordunak berak ez badu prestazioa gauzatzen, prestazioaren ez-betetzea izango da (KZren 1161. eta 1595. art.). Zordunaren posizioa ezin da aldatu.
- *Jarduera suntsigarria edo betebehar pertsonala.* Berdin da prestazioa nork gauzatzen duen, zordunak edo hirugarren batek. Prestazioa gauzatzea izango da garrantzitsuena, eta ez nork gauzatzen duen.

EZ EGITEKO BETEBEHARRA

Prestazioa da zordunak jarraitu behar duen jarduera pasiboa edo jokabide negatiboa. Izan daiteke:

- a) *Abstentzioa.* Betebeharririk egongo ez balitz, jarduera bat ez egitea izan zitekeen (prezioak ez igotzeko konpromisoa hartzea edo eskuratu den landa ez saltzea).
- b) *Jasateko betebeharra.* Zordunak bere burua behartzen du hartzekodunak gauzatzen duen jarduera bat jasatera, hari aurre egin gabe.

Kreditu-eskubidea zordunak kontrako egintzarik ez egitean datza. Hura saihesteko, demanda bat ezar daiteke.

4.- BETEBEHARRAREN SUBJEKTUAK

Betebehar-harremanak, nahitaez, bi alderdi behar ditu: hartzekoduna eta zorduna.

Betebehar-harremaneko subjektu edonor izan daiteke, bai pertsona fisikoak bai juridikoak.

Betebehar-harremanaren edozein alderditan pertsona bat baino gehiago egon daitezke. Kasu honetan, subjektu-aniztasunari buruz hitz egingo dugu.

SUBJEKTU-ANIZTASUNA

Kodeak *solidaritate eta mankomunitateari* buruz hitz egiten du.

SOLIDARITATEA

Solidaritatea dago hiru kasu hauetan:

Hartzekodun bakoitzak osorik eska diezaioke prestazioa zordunari (solidaritate aktiboa: hartzekodun anitz eta zordun bakarra).

Edozein zordunek prestazio oro egin behar du (*solidaritate pasiboa: zordun anitz eta hartzekodun bakarra*).

Hartzekodunek zor guztia eskatu ahal izango die edozein zorduni, haietako bati edo denei (*solidaritate mistoa: hartzekodun zein zordun anitz*).

MANKOMUNITATEA

Horren barnean bereizi behar dira:

Mankomunatu zatigarriak eta mankomunatu zatiezinak

Mankomunatu zatigarriak. Kreditua edo zorra betebeharrean dauden hartzekodun edo zordunengan banatzen da, neurri eta zati berdinetan, kreditu edo zor desberdinak dituztela ulertuz.

Mankomunatu zatiezinak. Banaezinak dira. Kasu honetan, hartzekodunak kobratu ahal izateko, zordunak talde gisa aintzat hartu behar du; eta zordunek talde gisa eskaini behar diote hartzekodunari ordaintzeko prestazioa.

5.- ORDAINKETA EDO BETETZEA

ORDAINKETA

Betebehar-harreman jakin bati jarraiki, zor den prestazioa gauzatzeko ekintza.

Ordainketa da:

- 1.- Zordunaren gain dagoen betebehar juridiko edo zorra betetzeko egintza.
- 2.- Zordunak zorraz askatzeko duen modu arrunta.

3.- Hartzekodunaren interesa asetzeko modua.

Ordainketa zor den prestazioaren exekuzioa da. Ordainketa zordunaren egintza bat da, betebeharraren eratzeko egintzan ezarritako prestazio-programa edo proiektura egokitzen dena.

Kode Zibilarentzat ordainketa eta betetzea sinonimoak dira. Halaber, Kodeak betebeharra iraungitzeko moduen artean aurreikusten du ordainketa.

ORDAINKETAREN SUBJEKTUAK ETA HAIEN GAITASUNA

Nork ordaindu edo bete dezake zor bat? Zordunak hartzekodunari. Hala ere, posible da zorduna ez den hirugarren batek zorra ordaintzea, edo hartzekoduna ez den beste bati ordaintzea ere.

ORDAINTZEKO GAITASUNA (ZORDUNA)

KZren 1160. artikulua dio: *Zerbait emateko betebeharraren, ordainketa ez da baliozkoa izango, hori egiten duenak ez badu zor den gauza askatasunez xedatzeko ahalmenik, ezta hori besterentzeko gaitasunik ere.*

Legegileak aipamen egiten dio gauza baten jabetza edo beste edozein eskubide erreal objektutzat duen emateko betebeharrari. Horregatik eskatzen du gauzaz baliatzeko eta hura besterentzeko gaitasuna.

Eskatzen den legezko gaitasunik ez duen pertsonak egindako ordainketa ez da ordainketa baliaduna eta, printzipio orokor gisa, berreskuratua izan daiteke. Gauza bera gertatzen da gauzaz era aske batean balia ez daitekeenak egindako ordainketarekin; baita jabe ez denak egindako ordainketarekin ere (*inork ezin du eman berea ez dena*).

HARTZEKODUNAREN GAITASUNA

Ordainketa jasotzeko gaitasuna izan behar du. Zordunak pertsona ezgaitu bati ordaintzen badio, ez da askatzen. Eraginik ez duen egintza bat gauzatu du.

Kobratzeko behar den gaitasuna da ondasunak administratzeko behar den gaitasuna.

Gaitasun horren frogatzea ordainketa egin duen eta bere askatasuna defendatzen duen zordunari dagokio.

Hartzekodunaren gaitasunaz gainera, ordainketa baliaduna izateko, beharrezkoa da hark kredituaz baliatzeko erabateko boterea izatea. Hartzekodunak ez du botere hori judizialki zorraren erretentzioa agindu denean (kreditua bahitu egiten da eta agintari

judizialak zordunari jakinarazten dio ez diola hartzekodunari ordaindu behar; zordunak Auzitegian eman beharko du kredituaren diru kopurua).

6.- ORDAINKETAREN BETEKIZUN OBJEKTIBOAK ETA ORDAINKETAREN OBJEKTUA

Ordainketa erregularra eta askatzailea izateko, beharrezkoa da gauzatu den prestazioak bat egitea aurreikusitakoarekin. Horrek esan nahi du ordaindutakoa eta hitzemandakoa alderatzea. Ados egotea esanbidezkoa izan daiteke. Halaber, erator daiteke erreserba eta protestarik gabe egindako eta onartutako prestaziotik ere.

Hiru faktore bereizten dira prestazioaren zehaztasunean:

ORDAINKETAREN IDENTITATEA. Identitatea adierazten da hitzartu den gauza bera ematean, eta ez beste gauza bat, nahiz eta ematen **denak** hitzartu zenak baino balio handiagoa izan (KZren 1166.1 art.). Egiteko betebeharretan, berriz, ezin da objektua aldatu hartzekodunaren baimenik gabe.

ORDAINKETAREN ZATIEZINTASUNA. KZren 1169. art.: *Kontratuak esanbidezko baimenik ematen ez duen bitartean, ezin izango da hartzekoduna behartu betebeharraren mendeko prestazioak zati batez jasotzera.*

OSOTASUNA. KZren 1157. art.: *Zorra ordainduta dagoela ulertuko da oso-osorik betebeharraren mendeko gauza eman edo prestazioa egiten denean.*

Osotasunaren eskaerak zera esan nahi du: hitzartutako prestazioa guztiz egitea; fruituak, interesak eta osagarriak ematea; gastuak zordunak ordaintzea; menpeko betebeharrak gauzatzea.

7.- ORDAINKETAREN INGURUABARRAK

LEKUA

Betebeharrak izendatu duen lekuan egin behar da ordainketa. Kontratzko zorra bada, kontratuak ezarri duen lekuan bete beharko da. Betetze-lekua usadio eta prestazioaren izaeraren menpe egon daiteke. Adibidez, etxe batean berogailu-sistema instalatzea.

Ez bada lekua adierazi, gauza zehatza emantzat hartuko da (beste zehaztapenik ezean) **BETEBEHARRA SORTU ZENEAN HURA ZEGOEN LEKUAN**. Beste edozein kasutan, ordaintze-lekua izango da **ZORDUNAREN EGONGUNEA**.

DENBORA

Alderdiek ez badute ezer hitzartu edo prestazioaren izaera eta inguruabarretik ez bada ezer eratorri, erregela orokorra KZren 1113. artikuluan dago: *Betebehar oro behingoan eskatzeko modukoa da.*

8.- ORDAINKETAREN FROGA

Erregela orokorra KZren 1214. artikuluan dago: *froga zordunari dagokio.* Diru kantitate baten ordainketa hartzekodunak sinatu eta zigilatu duen ordainagiri baten bitartez frogatzen da. Usadioak edo fede onak ordainagiria eskatzen badute, zordunak ordainketari uko egin ahal izango dio hartzekodunak ez badio ordainagiri hori ematen.

KZren 1110. artikulua zera ezartzen du: *Hartzekodunak kapitala jasotzean ez badu erresebarik egiten interesen inguruan, zordunaren betebeharra iraungitzen da interesei dagokienez. Zor baten azken epea jasotzean, hartzekodunak erresebarik egiten ez duenean, betebeharra azkenduko da aurreko epeei dagokienez.*

9.- ORDAINKETAK EGOZTEA

Zordun batek hartzekodun berarekin izaera bera duten zor anitz dituenean, zer zor hartzen da ordaindutat gauzatutako prestazioarekin?

Hauek dira egozte-irizpideak:

- a. Interesatuena arteko alde aurreko hitzarmena.*
- b. Hitzarmenik ezean, solvensek adierazitako borondatea.* Muga: zorrak interesak sorrarazten baditu, lehenik, interesak ordaindu behar dira.
 - b.1. Hartzekodunak proposatu duen egoztearekin bat etortzea.*
- c. Aurrekoen ezean, legezko egoztea:*
 - c.1. Interesak iraungitzea eta kapitala bizirik iraungitzea.*
 - c.2. Kostu handiko zorra iraungitzea.*
 - c.3. Kostu bera duten zorren iraungitze proportzionala eta partziala.*

10.- ORDAINKETAREN SUBROGATUAK

10.1.- Ordainketan ematea

Kasu honetan, zordunak aukera du betebeharra zor ez den prestazio batekin betetzeko. Hala ere, betebeharraren iraungitze osoa eta behin betikoa gertatuko da

hartzekodunak ordainketa hori onartzen duenean. Dakigunez, zordunak ezin du hartzekoduna behartu zor ez den prestazio bat jasotzera (KZren 1166. art.).

Beraz, ordainketa hartzekodunaren eta zordunaren arteko akordio baten ondorio da, zeinaren bidez ezartzen baita hitzartuta zegoen prestazioa ez den beste prestazio batekin bete daitekeela betebeharra. Adib.: *12.000 euroko prestazioaren orde, aparkaleku bat onartzen dut.*

10.2.- Ondasunak lagaz ordaintzea

Zordunak ordaindu behar dituen zorrei ezin dienean aurre egin, bere hartzekodunei ondasunak laga ahal izango dizkie, haiek salduz lortutako diruarekin kredituak kobra ditzaten.

Ondasunak lagatzen dituean, zordunak ez die hartzekodunei bere ondasunen jabetza eskualdatzen, baizik eta haien edukitza eta administrazioa. Aldi berean, zordunak ondasun horien salmenta agintzen die hartzekodunei, haiek kredituak kobra ditzaten. Lortutako dirua kredituak ordaintzeko erabiliko dute, iristen den neurrian.

KZren 1175. artikulua kasu hau aurreikusten du: salmentarekin lortutako diru kopuruak zorra gainditzea. Kasu horretan, zordunari diferentzia hori itzuli egin beharko zaiola agintzen du.

Lagapena bi motatakoa izan daiteke:

- Hitzarmenezkoa. Zordunaren eta hartzekodunen arteko akordio baten bitartez gauzatzen denean. Hartzekodun guztien adostasuna behar da.
- Judiziala. Agintari judizialaren parte-hartze eta baimenarekin egiten denean. Lagatze judiziala konkurtso-prozeduran emango da.

11. KREDITUAREN KALTEA. EZ-BETETZEA.

Ez-betetzea zordunaren gain dagoen betebeharrak juridikoa urratzea da. Zordunak ez du betetzen bere gain hartu duen prestazio-betebeharra.

Kreditu-eskubidea kaltetzeak, berriz, hartzekodunaren interesaren asetze falta dakar. Kalteari dagokionez, zordunaren jarduerak garrantzi handia dauka, asetze falta sorrarazi baitu betebeharrak juridikoa urratzearekin.

Kreditu-eskubidea kaltetzearen kausak izan daitezke:

- 1.- Zordunaren atzerapena betetzea.
- 2.- Prestazioa ez gauzatzea.
- 3.- Prestazioaren exekuzio akastuna edo irregularra: betebeharra ez da egokitzen betebeharra eratu zen unean aurreikusi zen prestazio-programara.

12.- ZORDUNAREN BERANDUTZA. BERANDUTZA AUTOMATIKOA. BERANDUTZA ETA BETETZE ATZERATUA

KONTZEPTUA

KZren 1100. artikulua zera dio: *Berandutza-egoeran jartzen dira gauzaren bat eman edo zerbait egiteko betebeharra dutenak, noiztik eta hartzekodunak horiei epaiketa bidez nahiz epaiketatik kanpo beren betebeharraren betetzea eskatzen baitien unetik.*

Berandutzak lotura dauka prestazioaren denborarekin. Prestazioa betetzeko epea iristen bada eta zordunak ez badu bete, ez du bete dagokion betebeharr juridikoa. Hala ere, ez da berandutza-egoeran eratu. Atzerapen hutsak ez du bat egiten berandutzarekin. Azken hori errekerimendua behar duen atzerapen kualifikatua da

BETEKIZUNAK

Zordunaren berandutzak betekizun hauen aldiberekotasuna eskatzen du:

- 1.- Emateko edo egiteko betebeharra. Kode Zibilak ez dio aipamenik egiten ez egiteko betebeharrari.
- 2.- Hartzekodunaren intimazioa. Hartzekodunak ardura du, judizialki edo judizioz kanpo, zordunari betebeharra betetzeko eskatzeko. Ez da beharrezkoa forma berezi bat; nahikoa da betetzeko eskatu badio.
Hartzekodunaren borondate-deklarazioa zordunari zuzendu behar zaio, edo haren ordezkariari. Hartzigarria da, ezagutza unetik efektuak sortzen dituelarik. Epemugaren ondoren igorri behar da (salbuespena: KZren 1100. artikulua berandutza automatikoa).
- 3.- Prestazioaren galdagarritasuna (aurrekoaren ondorioa). Hartzekodunak ezin du zorduna *betetzera intimatu, betetzea ez bada zor, galdagarria delako.*
- 4.- *Zordunaren errua edo dolua.* Ez-betetzeak borondatezkoa izan behar du. Ustekabekoa bada, berandutza baztertu egiten da. Zordunaren errua susmatzen da (*iuris tantum*, alegia, kontrako frogan onartzen da).
- 5.- Zorraren likidezia. AGren jurisprudentziak zorra likidua izatea eskatzen du, berandutzaren betekizun gisa.

Zor baten likidezia eza sortzen da zehaztu gabe dagoenean zordunak gauzatu behar duen prestazioaren kantitatea edo kalitatea.

BERANDUTZA AUTOMATIKOA

Nahiz eta KZren 1100. artikulua ezarri, kasu batzuetan berandutza automatikoa da, alegia, ez da beharrezkoa hartzekodunaren intimiziorik:

- 1) Betebeharrak edo legeak esanbidez deklaratzeko dutenean.
- 2) Betebeharraren izaeratik edo inguruabarretik honako hau eratorzen denean: betebeharra eratzeko erabakigarria izan dela gauza eman edo zerbitzua egin behar zen eguna zehaztea.
- 3) Betebeharrak aldebikoak edo elkarkariak direnean, inor ez da berandutzan eroriko, baldin eta alderdi batek berari dagokiona betetzen ez bada edo betetzera agertzen ez bada. Alderdi batek bere betebeharra betetzen duen unetik hasiko da bestearentzat berandutza.

BERANDUTZA ETA BETETZE ATZERATUA

Berandutzak ez du baztertzen betetzeko betebeharra. Zordunaren berandutzaren ondorioa kalte-galeren ordaina da (KZren 1101. art.), betetzeaz gainera. Hala ere, ondorioak desberdinak dira betebeharraren izaeraren arabera:

- 1) Emateko betebeharratan:
 - Atzerapenak sorrarazten dizkion kalte-galeren ordaina.
 - Arriskuak bere gain hartzea, nahiz eta ustekabeko kausagatik gertatu (KZren 1096. art.).Dirua bada eman behar dena, kontrako hitzarmenik ezean, hitzartu diren interesetan datza kalte-ordaina ematea (berandutza-interesak). Kasuan ez badira interesak hitzartu, legezko interesak hartu behar dira kontuan.
- 2) Egiteko betebeharratan: zordunari egotz dakioken atzerapenetik sortutako kalte-galeren ordaina.

Azkenik, berandutza-efektuak amaitu egingo dira zordunari betebeharra betetzeko epea luzatzen zaionean. Halaber, betebeharra betetzen denean edo beste edozein kausagatik iraungitzen denean ere amaituko dira, eta baita (betebehar elkarkariak direnean) beste alderdia berandutzan erortzen denean ere (KZren 1100. art.).

13.- BETEBEHARRAK IRAUNGITZEA

Esan denez, betebeharra iraungitzeko modurik arruntena betetzea edo ordaintzea da. Hala ere, badaude iraungitzeko beste modu batzuk:

13.1.- KONPENTSAZIOA

KZren 1195. artikulua zera dio: *Konpentsazioa gertatuko da, bi pertsona, nor bere eskubidez, elkarren hartzekodun eta zordun direnean.*

Konpentsazioa **osoa** izango da, zorrak berdina direnean eta erabat iraungitzen direnean. Konpentsazioa **partziala** izango da, zorrak ez direnean berdina; kasu horretan, zor handiena zor txikienarekin bat egiten duen neurrian iraungiko da.

Halaber, konpentsazioa **legezkoa** edo **borondatezkoa** izan daiteke. Legezkoa edo automatikoa izango da, zeinaren efektuak legez ematen baitira, legeak ezartzen dituen betekizunak betetzen direnean eta alderdien borondatea alde batera uzten denean (KZren 1202. art.). Eta borondatezkoa izango da, interesatuen arteko hitzarmen batetik sortu eta legezkoa izateko behar den betekizunen bat falta denean.

Kode Zibilak arautzen duen bakarra legezkoa da, honako baldintza hauek ezarriz (KZren 1195. eta 1196. art.):

- 1) Betebehardun bakoitzak nagusiki behartuta egon behar du eta, aldi berean, hartzekodun nagusi izan behar du. Hartzekodunaren eta zordunaren arteko elkarrekotasuna da.
- 2) Zorrak diru-zorrak izan behar dira edo, zor diren gauzak suntsigarriak badira, espezie eta kalitate berekoak izan behar dira. Prestazioek homogeneousak izan behar dute. Ezin izango da konpentsatu automatikoki dirutan datzan zor bat ordenagailu bat ematean datzan zorrarekin.
- 3) Zorren epemugak beteta egon behar du, likidoak eta eskagarriak izan behar dute. Halaber, gatazkatik libre egon behar dute.

Konpentsazioaren efektua zorrak bat egiten duten neurrian iraungitzea da, nahiz eta zordunek eta hartzekodunek ez ezagutu (KZren 1202. art.). Hortik eratortzen da konpentsazioaren izaera automatikoa; hau da, KZren 1196. artikulua betekizunak betetzen badira, berehala gertatuko da betebeharraren iraungitze osoa edo partziala, legearen eraginez eta alderdien borondatea zein den kontuan hartu gabe.

KZren 1201. artikulua zera dio: *Ordainketen egozketari buruz xedatutakoa bete beharko da konpentsazioa egiteko hurrenkeran.*

13.2.- ESKUBIDEAK NAHASTEA

Eskubideak nahastea betebeharra iraungitzeko modu bat da eta, KZren 1192. artikulua arabera, pertsona berarengan hartzekodun eta zordun baldintza elkartzean gertatuko da. Ez da posible pertsona bat, aldi berean, bere hartzekodun

eta zordun izatea. Dakigunez, betebeharrak bizirik jarrai dezan, beharrezkoa da subjektu aktibo bat eta pasibo bat egotea.

Nahastea *inter vivos* zein *mortis causa* egintzen bidez gerta daiteke. Hartzekodunak zordunaren baldintza eskura dezake, edo zordunak betebeharrareman baten kredituaren titulartasuna, jaraunspen bat onartuz.

Jaraunspena inbentario-onuraren arabera onartu bada (KZren 1192.2 art.), *ez da betebeharren nahasketarik gertatuko, onartzeko modu horrek baitakar kausatzailearen ondarea (hil dena) eta jaraunsearena banatuta egotea, nahiz eta pertsona bakar bat izan.*

13.3.- ZORRA BARKATZEA

Barkamena betebeharrak iraungitzeko modu bat da. Kasu honetan, hartzekodunak uko egiten dio, ezeren truke, bere kreditu-eskubideari. Barkatu egiten du zorra.

KZren 1187. artikulua ezartzen du barkamenak bi forma izan ditzakeela:

- 1) *Esanbidezkoa*. Deklarazio baten bitartez barkatzen denean. Dohaintzari eskatzen zaizkion formaltasunak bete beharko ditu: onartua izatea.
- 2) *Isilekoa*. Deklaraziorik egon gabe, egintzetatik barkatzeko borondatea erator daitekeenean. Zordunak onartzea ez da beharrezkoa. Bi kasuetan susmatu egiten da: KZren 1188.1 eta 1189. artikulua.

Bai kasu batean bai bestean, bidezkoak ez diren dohaintzentzat ezartzen diren arauak aplikatuko dira. Horrek esan nahi du hartzekodunak ezin duela barkatu zorrik bere hartzekodunen edo senipartedunen kaltean. Horiek barkamena gutxitzea eskatzeko ahalmena izango dute, kaltetzen dituzten neurrian.

Barkamena **erabatekoa** edo **partziala** izan daiteke.

Barkamenaren efektuak ordainketarenak berak dira: betebeharra iraungitzea. Betebehar nagusia barkatzen bada, osagarria ere iraungi egingo da. Baina ez alderantziz (KZren 1190. art.).

13.4.- NOBAZIOA EDO BERRITZEA

Nobazioa betebeharra gero beste betebehar bategatik ordezkatzea edo aldatzea da. Azken horrek lehenengoa iraungitzen du (edo aldatu), bere objektua edo baldintzak aldatuz, zordunaren pertsona ordezkatzuz edo hirugarren bat hartzekodunaren eskubideetan subrogatuz (KZren 1203. art.).

Horrela, aipatu ditugun elementuetan betebeharrak aldaketaren bat izaten badu, betebeharra iraungi egingo da eta beste bat jaioko.

Hala ere, betebeharrak bati eragiten dioten aldaketek ez dute nahitaz betebeharra iraungitzea sorrarazten. Gerta daiteke betebeharraren objektua edo subjektua aldatzea, eta betebeharrak berak indarrean jarraitzea; hori bai, aldatuta (berritze aldatzailea). Puntu honetan, iraungitzaileari egin behar diogu aipamen.

Berritzeak edo nobazioak, iraungitzailea izateko (hau da, betebeharra iraungitzea sorrarazteko), baldintza hauek bete behar ditu:

- 1) Iraungitzekoa den betebeharrak existitzea. Betebeharrak baliokidea izan behar du. KZren 1208. artikulua dioenez bezala, berritzea deuseza izango da betebeharra ere deuseza bada, deuseztasun-kausak zordunak bakarrik susta dezakeenean salbu edo berritzeak egintza deusezak baliozkotzen dituzenean salbu.
- 2) Ordezkatzen duen jatorrizko betebeharrarekin desberdintasunen bat duen betebeharrak berri bat sortzea, eta alderdiek kredituaz baliatzeko nahiko gaitasun izatea.
- 3) Lehenengo betebeharra berritzeko borondatea egotea. Ez bada argi eta garbi agertzen zein den haien borondatea, betebeharra aldatu nahi dutela ulertuko da. KZren 1204. artikulutik eratorritzen da berritzeko borondate hori esanbidezkoa edo isilekoa dela. Esanbidezkoa izango da, era erabakigarrian deklaratu denean. Eta isilekoa, betebeharrak zaharra eta berria erabat bateraezina direnean.

Berritze *mota* desberdinak daude, aldatua izan den betebeharraren elementuaren arabera. Horrela:

- Berritzea objektiboa izango da, betebeharraren objektuan, kausan edo baldintza nagusietan aldaketa gertatu denean.
- Berritzea subjektiboa izango da zorduna aldatzeagatik, zordun berri bat agertzen denean, modu hauetakoren batean:
 - a) Hartzekodunaren eta betebeharrak berriaren zordunaren arteko akordioari jarraiki.
 - b) Hartzekodunak onartutako zordun zaharraren eta berriaren arteko akordioari jarraiki (1205. art.).
- Berritzea subjektiboa izango da hartzekoduna aldatzeagatik, betebeharra iraungi eta berri bat eratzen denean. Betebeharrak horretan zorduna bera izango da, baina hartzekoduna desberdina.

Berritzea subjektiboa denean (zorduna hartzekodunaren adostasunarekin aldatu delako), zordun berria kaudimengabea bada, hartzekodunak ezingo dio aurreko zordunari erantzukizunik eskatu. Hala ere, erantzukizuna eskatu ahal izango dio kaudimengabezia hori alde aurrekoa eta publikoa bazen, edo zordunak bere zorra eskuordetu zuenean ezagutzen bazuen (KZren 1206. art.).

14.- ESKUALDATZEA ETA BETEBEHARRAREN BESTE ALDAKETA SUBJEKTIBO BATZUK

Betebehar bat sortzen den unetik iraungi arte, bere egiturazko elementuek aldaketak izan ditzakete betebeharra iraungi gabe. Horrela, berritze iraungitzailearen (berezkoaren) ondoan berritze aldatzailea (berezkoa ez dena) agertzen da. Horrek betebeharrean aldaketak sartzea ahalbidetzen du, aldaketa horiek betebeharra iraungitzea eragin gabe.

KZren 1203. artikulua xedatzen du betebeharrak era hauetan alda daitezkeela:

- a) bere objektua edo baldintza nagusiak aldatuz;
- b) zordunaren pertsona aldatuz;
- c) hirugarren bat hartzekodunaren eskubideetan subrogatuz.

Aipatu dugun artikulua arabera, betebeharrak eragin ditzakeen aldaketak honela antola daitezke:

- 1) *Aldaketa subjektiboak.* Aldaketa hartzekoduna (kredituaren lagapena eta subrogazioa) edo zorduna (zorra eskualdatzea) aldatuz gertatzen denean.
- 2) *Aldaketa objektiboak.* Aldaketak betebehar-harremanaren objektuari eragiten dionean.

Jarraian, aldaketa subjektiboak aztertuko ditugu.

14.1.- KREDITUEN LAGAPENA

Kredituen lagapena betebeharraren aldaketa subjektiboa da. Horri esker, hartzekodunaren pertsona aldatzen da.

Hartzekodunaren aldaketa hori negozio juridiko bat gauzatzearen ondorioz sortzen da, zeinari jarraiki hartzekodunak (lagapen-emaileak) kreditu-eskubidearen titulartasuna eskualdatzen baitio beste pertsona bati (lagapen-hartzaileari). Era horretan, azken hori betebehar-harreman beraren hartzekodun berri bilakatzen da.

KZk salmentak arautzen dituzten arauen artean kokatzen du kredituen lagapena (KZren 1526. artikulua eta hurrengoak). Horrek ez du esan nahi lagapena nahitaez salmentaren bitartez gauzatu behar denik. Kreditua lagatzeko beste negozio batzuk erabil daitezke; adibidez, trukea, dohaintza eta abar.

Zein da kredituen lagapenaren **eraentza juridikoa**?

Honako hauek dira lagatze-negozioaren subjektuak:

LAGAPEN-EMAILEA (jatorrizko hartzekoduna) eta LAGAPEN-HARTZAILEA (hartzekodun berria). Lehenengoak zein bigarrenak izan behar dute lagapen-negozioa gauzatzeko nahitaezkoa den gaitasuna.

Laga den zorraren zordunari dagokionez, berdina izaten jarraitzen du, eta ez da lagatze-negozioaren alderdia. Zordun horren adostasuna eta negozioren ezagutza ez dira beharrezko. Kredituen lagapena hartzekodunari bakarrik esleitzen zaion ahalmena da. Zordunari berdin zaio lagapen-emaileari edo lagapen-hartzaileari ordaintzea. Hala ere, zordunari interesatzen zaio gauzatu den lagapena ezagutzea. Horrela, KZren 1527. artikulua: *zordunak, lagatzearen berri izan baino lehen, hartzekodunari ordaintzen badio, zordun hori betebeharretik aske geratuko da*. Beraz, zordunari ez bazaio jakinarazten, hark jatorrizko hartzekodunari ordaindu ahal izango dio, eta betebeharretik askatu. Horren ondorioa da hartzekodun berriari kaltea sortuko zaiola. Kasu honetan, lagapen-emaileari bidegabe kobratu zuena eskatu ahal izango dio.

Lagapenaren objektuari dagokionez, hartzekodunak bere alde duen kreditua izango da hori. Kreditu horrek benetan existitu behar du, eta jatorria egintza baliodun batean izan behar du. Halaber, kreditu horrek eskualdagarria izan behar du. KZren 1112. artikulua kreditu guztiak eskualdagarriak direla ezartzen du. Hala ere, bi muga dituzte:

- 1) Legea (adib.: norberak konplitu beharreko kredituak, mantenu-kreditua kobratzeko eskubidea, eta abar).
- 2) Akordioz, kredituaren eskualdatzea debekatu izana.

Formari dagokionez, negoziua gauzatzeko ez da inolako betekizunik eskatzen. Forma-askatasuna dago. Hala ere, laga behar den kreditua eskritura publiko batean jasota dagoenean, lagapenak forma hori errespetatu beharko du (KZren 1280.6 art.). Gauza bera gertatzen da hipoteka-kreditua denean (LHren 149. art.)

Lagapenaren efektuak negoziua gauzaten den unean sortzen dira. Efektu nagusia lagapen-emailearen kreditu-eskubidea lagapen-hartzaileari eskualdatzea izango da. Eskualdatze horrek barneratzen ditu kredituari laguntzen dioten eskubide osagarri guztiak (fidantza, hipoteka, pribilegioa, bahitura).

Lagapen-emaileak salmenta unean laga den kredituaren existentziaren eta legitimazioaren erantzukizuna izango du lagapen-hartzailearen aurrean, zalantzarri gisa saldu badio salbu. Zordunaren kaudimengabezia aldez aurrekoa eta publikoa bada, lagapen-emailea izango da erantzule, esanbidez erantzukizun hori baztertu egin bada salbu.

Azkenik, 1535. artikulua liskarrezko kreditua lagatzeko aukera onartzen du. Hau da, kreditu bat, zeinaren existentziak, eraginkortasunak edo legitimitateak prozesu judizial baten hasiera sorrarazi baitu. Gutxienez, erantzun egin zaio sustatu den demandari.

Kasu horietan, zordunak liskarrezko kreditua iraungitzeko eskubidea izango du. Nola? Lagapen-hartzaileari emanaz hark lagapen-emaileari ordaindu zion dirua, kontuan hartuz ordaindu zenetik sortutako gastuak eta diruaren interesak. Eskubide hori egikaritzeko bederatzi eguneko epea du, lagapen-hartzaileak ordainketa erreklamatzeko dion unetik kontatuz.

14.2.- SUBROGAZIO BIDEZKO ORDAINKETA

«Kredituaren subrogazioa» edo «subrogazio bidezko ordainketa» hartzekoduna aldatzeagatik gertatutako betebeharraren aldaketa subjektiboa da. Subrogazioa gertatuko da hirugarren bat, betebeharraren harremanarentzat arrotza dena, zor den prestazioa ordaintzeagatik hartzekodun berri bilakatzen denean. Hau da, aurreko hartzekodunaren kredituan subrogatzen da, bere berme guztiekin batera. Horrela, 1212. artikulua dio: *Subrogazioaren bidez, subrogatuari kreditua eskualdatzen zaio, horri erantsitako eskubide guztiekin batera, bai zordunaren aurka, bai eta hirugarrenen aurka ere, hirugarren horiek fidatzaile izan zein hipoteken edukitzaile izan.*

Bi subrogazio mota bereizten dira: hitzarmenezkoa eta legezkoa.

Hitzarmenezko subrogazioa aurreko hartzekodunaren eta berriaren artean egiten den negozio baten bitartez gauzatzen da; ez da beharrezko zordunak parte hartzea. KZren 1209.2 art. → esanbidezko deklarazioak behar dira subrogazioa eratzeko, bestela ez da onartuko.

Legezkoa subrogazioa legeak ezartzen dituen kasuetan gauzatuko da. Horrela, KZren 1210. artikulua araberak, subrogazioa kasu hauetan uste izango da:

- 1) Hartzekodun batek lehentasuna duen beste hartzekodun bati ordaintzen dionean.
- 2) Betebeharrean interesik ez duen hirugarren batek zordunaren esanbidezko edo isileko onarpenarekin ordaintzen duenean. Kasu horretan, aurreko hartzekodunaren eskubideetan subrogazioa gauzatzeko, zordunak hirugarrenak egindako ordainketa onartzea eskatzen da.
- 3) Ordaintzen duen hirugarrenak betebeharra betetzeko interesa duenean, hari dagokion zatian izaten diren nahasteen efektuak salbu.

Subrogazio bidez egindako ordainketaren efektuak kredituen lagapenetik eratorritakoak diren berdinak dira. Hartzekodunaren pertsona aldatzen da, baina ez da betebeharra iraungitzen. KZren 1212. art.: *Subrogazioaren bidez, subrogatuari kreditua eskualdatzen zaio, horri erantsitako eskubide guztiekin batera, bai zordunaren aurka, bai eta hirugarrenen aurka ere, hirugarren horiek fidatzaile izan zein hipoteken edukitzaile izan.*

Subrogazioa osoa edo partziala izan daiteke, hirugarrenak prestazio osoa edo zati bat bakarrik ordaintzen badu.

14.3.- ZORRAK ESKUALDATZEA

Zorra eskualdatzeak ere betebeharraren aldaketa subjektibo bat sortzen du. Baina, kasu honetan, zordunaren pertsona aldatu delako (KZren 1203. art). Aurreko zordunaren ordeztze beste zordun bat jartzen da, betebeharraren iraungi gabe.

Aldaketa hori zordunak ezagutu gabe egin daiteke, baina inoiz ere ez hartzekodunaren baimenik gabe. Betekizun horrek badu zentzua, hartzekodunari axola baitzaio zordun bat izatea edo beste bat izatea. Batek betetzeko asmo izan dezake eta kaudimena izan daiteke; besteak, berriz, kaudimengabezia izateaz gainera, ez-betetzeko asmoa izan dezake.

Hartzekodunak zordunaren aldaketa onartu eta gero, ezingo dio eskatu aurreko zordunari berriaren kaudimengabeziaren erantzukizuna hartzeko (KZren 1206. art.). Arau horrek bi salbuespen ditu:

- 1) Kaudimengabezia aldeztu aurrekoa eta publikoa izatea.
- 2) Zordunak bere zorra delegatu zuenean ezagutzea, eta hartzekodunak ez ezagutzea.

Betebeharra betetzea bermatzen duten hirugarrenek ez badute eskualdatzea onartzen, bermeak iraungi egingo dira. Bermatzaileari ere interesatzen zaio zorduna zein den jakitea.

Zorra eskualdatzea bi modutan egin daiteke:

- 1) ***Expromisiogatik.*** Hartzekodunaren eta zordun berri baten arteko akordioa da, zeinaren bidez, horrek aurrekoa ordezkatzeko gainera, zordunaren prestazioa ordaintzeko betebeharra hartzen baitu bere gain. Ez da beharrezkoa aurreko zordunaren jakintzarik, ezta onarpenik ere.
- 2) ***Eskuordetzeagatik.*** Akordioa aurreko zordunaren eta berriaren artean eskualdatzen da, beti ere hartzekodunaren onarpenarekin.

15.- KREDITUA BERMATZEA

15.1. OROKORTASUNAK

Betebeharrak bermatzeak hura indartzea esan nahi du. Kreditua betetzea ziurtatzeko, Legeak hartzekodunari bide batzuk eskaintzen dizkio. Betebeharra bermatzen denean, legezko bide horiei beste bide batzuk gehitzen zaizkie.

Ikusi dugunez, KZren 1911. artikulua ondareko erantzukizun unibertsalaren printzipioa ezartzen du: *Betebeharren betetzearen gain, zordunak erantzukizuna du bere ondasun guztiekin, oraingoekin nahiz etorkizunekoekin.*

Printzipio horretatik ondorioztatzen da zordunaren ondarea betebeharra betetzera lotuta dagoela. Ez-betetze kasuarentzat, zordunaren ondareak kreditu-eskubidearen berme orokorra eratzen du.

Baina gerta daiteke hartzekodunari 1911. artikulua berme orokor horrek konfiantza gutxi ematea, zordunaren ondarea desagertu baitaiteke beste zor batzuk bereganatuz, ondasunak salduz, eta abar. Hasiara batean nahikoa zen ondarea, desagertu edo asko txikitu daiteke. Horregatik, eta zordunaren kaudimengabeziaren arriskua ekiditeko, hartzekodunak beste berme batzuk eratzeko eska dezake, era horretan kredituaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta indartzeko.

Berme bide horiek hartzekodunari gauza zehatzen gain boterea ematen diotenean izaera *erreal*a izango dute (bahitura, hipoteka, errentzio-eskubidea, erresak eta abar).

Izaera *pertsonala* izango dute, berriz, zordunak betetzen ez duen kasuan, hartzekodunari hirugarren baten gain (betebehar-harremanarentzat arrotza den pertsona baten gain) boterea ematen diotenean (fidantza: hirugarrenak, ez-betetze kasuan, bere ondarearekin erantzungo du). Izaera pertsonala izango du, baita ere, zordunak edozein ez-betetze hipotesitarako bere erantzukizuna larriagotzen duen betebehar gehigarriak (konbentziozko pena).

Hartzekodunak zordunaren ondarearen osotasunari eustera zuzenduta dauden akzioak egikaritzuz babes dezake bere kreditu-eskubidea (KZren 1911. artikulua berme orokorra eratzen duena). Era horretan, zera lortzen da: zordunak bereganatu duen betebeharra betetzera lotuta dauden ondasunak eta balioak ondare horretatik ez irtetea, edo sartu behar zirenak kanpoan ez gelditzea (zordunaren ondareari eusteko eta defendatzeko baliabideak: akzio ezeztatzailea edo pauliarra eta akzio subrogatzailea).

Azkenik, pribilegioak ere kredituaren berme dira. Pribilegioa da Legeak kreditu zehatz batzuei ematen dien onura. Horri jarraiki, kreditu batzuek beste batzuek baino lehenago kobratu ahal izango dute, denei ordaintzeko urria den zordunaren ondaretik.

Azter ditzagun aipatutako bermeak:

15.2.- KONBENTZIOZKO PENA

Konbentziozko pena berme bat da; eskuarki, diru-prestazio bat. Ez-betetze edo betetze akastun kasuetan, zorduna hartzekodunari edo hirugarren bati prestazio hori ordaintzera behartzen da.

Berme hori alderdien akordioaren borondatez sortzen da. Betebehar nagusia betetzea ziurtatzen duen betebehar osagarria eratzen du. Beraz, horren menpe dago. KZren 1155. art.: *Zigor-klausularen deseztasunak berez ez dakar betebehar nagusiarena. Betebehar nagusiaren deuseztasunak berez dakar zigor-klausularena.*

Halaber, betebehar subsidiarioa da, hartzekodunak ez-betetze kasuan bakarrik eska baitezake.

Betetzen duen funtzioaren arabera, konbentziazko pena izan daiteke ordezkatzaileria edo konpentsaziozkoa, eta metatze-pena:

- 1) *Ordezkatzailea edo konpentsaziozkoa.* KZren 1152. artikulua arabera: *Zigorra betearazi ahal izango da, kode honetako xedapenekin bat etorri hori eskatzeko modukoa denean bakarrik.* Kasu honetan, pena da betebeharr nagusia ez-betetzearen ondorioz sortuko diren kalte-galeren alde aurreko balorazioa (ez-betetzeak pena ordaindu beharra dakar berekin). Zordunak berari egotz dakizkiokeen kausengatik ez badu betebeharra betetzen, hartzekodunak konbentziazko pena gisa hitzartu den prestazioa eskatu ahal izango du, ez-betetzeak sortu dituen kalte-galeren froga beharrezkoa izan gabe. Baina ezingo du eskatu betebeharr nagusia betetzeko, penak hori ordezkatzeko baitu. KZren 1153.2 art.: *Hartzekodunak ezin izango ditu aldi berean eskatu betebeharra betetzea eta zigorra ordaintzea, ahalmen hori argiro ematen ez bazaio.*
- 2) *Metatze-pena.* Kasu honetan, hartzekodunak eska dezake pena, zein betebeharr nagusia edo ez-betetze horrek sorrarazi dituen kalte-galeren ordaina betetzea. Penak betetzen duen funtzioa askoz larriagoa da (pena-izaera eta betebeharraren berme-izaera du), zordunari betebeharra betetzea beti interesatuko baitzaio. Pena-izaera hori izateko beharrezkoa da hitzarmena (KZren 1152. eta 1153. art.).

KZren 1154. art.: *Epaileak ekitatez aldaraziko du zigorra, zordunak betebeharr nagusia zati batean edo modu irregularrean betetzen duenean.*

Azkenik, 1153.1 artikulua dio: *Zorduna ezin da betebeharra betetzetik askatu zigorra ordainduz, salbu eta eskubide hori beren beregi erreserbatzen zaionean.* Horrek esan nahi du zordunak, eskatzeko xedez, ezingo duela aukeratu betebeharra betetzearren eta pena ordaintzearen artean. Hala ere, aukera-eskubide hori baimentzen bazaio, pena ahalmenezko bilakatuko da.

15.3.- ATXIKIPEN-ESKUBIDEA

Atxikipen-eskubidea legeak hartzekodunari ematen dion berme bat da. Berme horri esker, hartzekodunak, zordunak zor duen prestazioa ordaindu arte, bere boterepean eta edukitzepean eduki ahal izango du zordunarena den gauza bat (higigarria edo higiezina).

Erregela orokor gisa, hartzekodunak ezin ditu zordunaren gauzak atxiki, nahiz eta horrek ez bete. Hartzekodunak bueltatu egin beharko ditu eta betebeharra betetzeko eskatu. Hala ere, nahiz eta oso neurri eraginkorra izan, atxikipen-eskubidea posible izango da Legeak aurreikusten dituen kasuetan. Horrela, KZren 1600. artikulua: *Norbaitek obra egiten badu gauza higigarriaren gain, gauza hori bahi moduan atxikitze eskubidea du ordainketa jaso arte.* KZren 1730. art.:

Mandatariak bahi gisa atxiki ditzake mandatuaren objektu diren gauzak, mandatugileak zor dion kalte-ordaina eta ordainketa gauzatu arte. KZren 453. (edukitza), 502., 522. (usufruktua) eta 1780. (gordailutza) artikuluetan ere aurreikusten da.

Kasu horietatik at, atxikipen-eskubidea posible izango da alderdiek esanbidez horrela hitzartu dutenean (KZren 1255. art.: kontratazio-askatasuna).

Eskubide horretaz gozatzen ari den hartzekodunak, familiako guraso on baten arretaz zaindu beharko du zordunaren gauza; eta ezingo du gauza horretaz baliatu ezta erabili ere (KZren 1094. art.). Atxiki den gauzak fruituak sortzen baditu, hartzekodunak batu egin beharko ditu, eta eskubidea iraungitzen denean zordunari eman (KZren 1095.1 art.).

Zordunak bere zorra erabat asetzen duen unetik aurrera, iraungi egiten da zorra bermatzen zuen atxikipen-eskubidea.

15.4.- ERRESAK

Erresek beste babes-baliabide bat eratzen dute. Kasu honetan, betebeharra betetzearen berme gisa, gauza edo diru kantitate bat ematen da.

Erresek jarraitzen duten xede eta betetzen dituzten funtzioen arabera, mota hauek bereizten dira:

- 1) ***Berrespen-erresak***. Betebeharraren eratze froga gisa, diru kantitate bat edo gauza bat eman da. Emate hori prezioaren seinale edo zatitzat hartzen da. Betebeharraren existentzia ziurtatzen du eta betebeharraren exekuzioaren hasiera suposatzen du (prestazioaren ordainketa partziala).
- 2) ***Penitentziazko erresak, damu-erresak edo uko-erresak***. Betebeharraren batean, alderdiek betebeharrari uko egiteko aukera izango dutela hitzar daiteke. Betebeharraren horietan ezartzen diren erresak, hau da, dirua edo gauza, penitentziazkoak izango dira.

Betebeharrari uko egiten diona erresak ezarri zituena bada, erresak galduko ditu. Beste alderdiak bere egingo ditu. Uko egiten diona jaso zituena bada, bikoiztuta bueltatu beharko ditu. KZren 1454. artikuluan arabera: *Salerosketa-kontratuan erresak edo seinaleak izan badira tartean, kontratua hutsal daiteke, baldin eta erosleari horiek galtzeko edo saltzaileari erresak bikoiztuta itzultzeko beren beregi eskatu, eta hala egiteko adostasuna erakutsi badu.*

- 3) ***Zigor-erresak***. Berme-funtzioa betetzen dutenak dira edo, behintzat, era argi batean funtzio hori betetzen dutenak. Hemen ere diru kantitate bat edo gauza bat ematen da, ez-betetze hipotesian galduko dena edo bikoiztuta bueltatu beharko dena (nork betetzen ez duen). Hala ere, hemen alderdiak ez daude ahalmenak akordioari uko egiteko, damutzeko. Behartuta daude betetzera. Beraz, erres gisa emandakoa, ez-betetzetik erator daitekeen kalte-galeren ordaina da.

Konbentziozko penaren antzekoak dira, baina erresaren kasuan hasieratik ematen da ez-betetze kasuarentzat, konbentziozko penaren kasuan hitzartzen dena.

Zigor-erresak edo penitentziazko erresak izateko, esanbidez hitzartu behar da; bestela, berrespen-erresak izango dira.

15.5.- AKZIO SUBROGATZAILEA

Hasieran esan dugun bezala, hartzekodunak akzio batzuk ditu zordunaren ondarea (betebeharren oinarrizko bermea) kredituaren kaltetan ez gutxitzeko edo ez desagertzeko. Akzio horiek zordunaren ondarearen kontserbazio eta defentsarako baliabideek eratzen dute. Akzio horiek honako hauek dira:

Akzio subrogatzailea edo ez-zuzena, akzio zuzena, eta akzio ezeztatzailea edo pauliarra.

KZren 1111. artikulua akzio subrogatzaileari egiten dio aipamen: *Hartzekodunek, euren zor zaien guztia kobratzeko, zordunaren edukitzapeko ondasunak esetsi eta gero, zordunaren eskubide eta akzio guztiak egikaritu ahal dituzte helburu berberarekin, zordunari berari datxezkionak izan ezik.* Horrek esan nahi du, zordunaren ondarea zorrari aurre egiteko nahiko ez denean, zordunak hirugarrenen kontra dituen eskubide eta akzioak egikaritzeko baliabidea erabil dezakeela hartzekodunak, beti ere eskubide eta akzio horiek norberak konplitu beharrekoak ez badira.

Beraz, akzio subrogatzaileak ordezkapen bat dakar akziora; hau da, hartzekoduna ez da zordunarengan subrogatzen, baizik eta horrek hirugarrenen kontra izan dezakeen akzioetan. Horregatik, akzio horri akzio ez-zuzena ere deitzen zaio. Hartzekodunak zordunari dagozkion akzioak zordunaren izenean egikaritzen ditu, baina bere interesa lortzeko asmoarekin.

Akzio hori egikaritu ahal izateko betekizunak:

- 1) Epemuga beteta edukitzea eta eskagarria izatea.
- 2) Akzio hori baliabide subsidiario gisa erabili behar da. Hartzekodunak ez du beste baliabiderik kreditua kobratu ahal izateko. Zordunaren ondareak zordunari aurre egiteko nahikoa ondasun baditu, ezin da akzio hori egikaritu: *Hartzekodunek, euren zor zaien guztia kobratzeko, zordunaren edukitzapeko ondasunak esetsi eta gero.*
- 3) Zordunaren pasibitatea, berari dagozkion akzio eta eskubideak egikaritzeko. Zorduna ez da kezkatu berari dagozkion eta bere ondarea handituko duten eskubideak erreklamatzear.
- 4) Zordunaren akzio eta eskubideak norberak konplitu beharreko izaera ez izatea; hau da, ez izatea zordunak berak bakarrik egikari ditzakeen akzioak (mantenu-eskubidea, ezkontza deuseztatzeak akzioa, eta abar).

Azkenik, eta akzio honetatik eratortzen den funtsezko efektu gisa, esan beharra dago zordunaren ondarean sartuko dela hartzekodunak akzio horren bidez lortu duen prestazioa. Sarrera hori ez da egingo akzioa egikaritu duen hartzekodunaren onuran soil-soilik, baizik eta zordun beraren kontra eskubideren bat duten hartzekodun guztien alde.

15.6.- AKZIO ZUZENA

Akzio zuzenean, hartzekodunak ez du egikaritzen akzioa zordunaren izenean. Kasu honetan, legeak hartzekodunari ahalmena ematen dio zor diotena kobratzeko, zordunaren zordunaren kontra bere izenean jarduteko.

Akzio horrek akzio subrogatzaileak baino eraginkortasun handiagoa dauka, hartzekodunak ez baitu lortu duena zordunaren ondarean ingesatu behar.

Akzio hori egikaritu ahal izango da legeak horrela aurreikusten duenean. Hala nola, KZren 1552., 1722., 1597., 1650. eta 1937. artikulua.

15.7.- AKZIO EZEZTATZAILEA EDO PAULIARRA

Akzio hori KZren 1111. artikulua aurreikusten du: *Hartzekodunek, eurei zor zaien guztia kobratzeko, zordunaren edukitzapeko ondasunak esetsi eta gero [...]; era berean, hartzekodunek aurkara ditzakete beren eskubideari iruzur eginez zordunak gauzatu dituen egintzak.*

Akzio hori zordunaren ondarea babesteko eta kontserbatzeko baliabide bat da. Hartzekoduna legitimatuta dago zordunak kredituaren maulan egin dituen egintzen errebokazioa eskatzeko. Akzio horrekin saihestu egin nahi da zordunaren maulazko jardueratik ondarea desagertzea.

Akzio hori egikaritzeko, beharrezkoa da betekizun hauek betetzea:

- 1) Akzio hori baliabide subsidiario gisa erabili behar da. Hartzekodunak ez du beste baliabiderik kreditua kobratu ahal izateko. Zordunaren ondareak zordunari aurre egiteko nahikoa ondasun baditu, ezin da akzioa egikaritu: *Hartzekodunek, eurei zor zaien guztia kobratzeko, zordunaren edukitzapeko ondasunak esetsi eta gero.*
- 2) Maulan egindako egintza bat behar da, hau da, zordunaren ondarearen ondasunak besterentzea, hartzekodunei kalte bat sortzeko asmoarekin (kaltea sortu behar da). Maula-egintza hori, akzio horren bitartez babestu nahi den kreditua sortu eta gero egin behar da.

Hartzekodunak besterentze-egintza kaltegarria dela frogatu beharko du; halaber, maulan egin dela. Hala ere, eta maula izaera frogatzea oso zaila denez, Kodeak susmatzen du kasu hauetan asmo horrekin jardun dela. Kasu horietan, zordunak frogatu behar du ez duela hartzekodunen maulan jardun (KZren 1251. art.):

- 1) *Kontratuen bidez, zordunak dohainik ondasunak besterentzen dituenean, uste da kontratuok hartzekodunei iruzur eginez burutu direla.* Dohaintza baino lehenago zituen zorrei aurre egiteko ez duenean nahikoa ondasun erresebatu, ezingo da kontrakorik frogatu (KZren 643.3 art.).
- 2) Maulazkoak dira kostubidez egindako besterentzeak, horiek egin dituzten pertsonen kontra, besterentzea baino lehenago eta edozein auzialditan, sententzia kondenatzailea eman denean, edo ondasunak bahitzeko agindua eman denean.

Akzio ezeztatzailea zordunaren eta maulazko negozioaren parte den hirugarrenaren (konplizearen) kontra zuzentzen da. Hartzekodunak akzio hori egikartzeko lau urteko epea izango du, maulazko besterentze-unetik aurrera.

Akzio horrek xedetzat du negozioa deuseztatzea lortzea. Hala ere, hirugarrenaren fede on edo txarraren arabera, efektuak desberdinak dira:

- Hirugarrenak fede txarrez jarduten badu, hau da, zordunarekin ados jarriz jarduten badu, bere eskubideak ez du babesik mereziko. Gauzak horrela, jaso duena bueltatzera behartuta egongo da. Eta, hala badagokio, hartzekodunei kalte-galerak ordaindu beharko dizkie (KZren 1298. art.: *ezin badu bueltatu, gauzen kalte-ordaina eman*).
- Hirugarren jasotzaileak fede onez eta kostu bidez jardun bazuen, egikaritu den akzioak ez du aurrera egingo, hau da, egintza ezingo da ezeztatu. Kasu horretan, lesioa sorrarazi duenari kalte-galeren ordaina eskatu beharko zaio (*maulan jardun duen zorduna*, KZren 1295.3 art.).

Akzio ezeztatzaileak aurrera egiten badu, maulan egindako negozioa hutsaldu egingo da babesten den kredituaren proportzioan. Horrela, pertsona batek milioi bat euroko kreditu baten maulan 5 milio euro ematen baditu dohaintzan, dohaintzaren deusestatze partziala deklaratu da. Gure adibidean milioi bat, hori baita kreditua asetzeko behar dena.

16.- KREDITUAREN ERAGINKORTASUNA. *PRIBILEGIOAK*

Dakigunez, KZren 1911. artikulua jasotzen duen erantzukizun unibertsalari buruzko printzipioak edozein hartzekodunek bere kreditua asetzeko duen oinarriko bermea eratzen du (berme orokorra eta oinarrikoa).

Baina gerta daiteke zordunak bere ondareak jasan ditzakeen baino zor gehiago bereganatzea, eta hainbat hartzekodun arriskuan egotea haien kredituak ase gabe gelditzeko. Kasu horientzat, eta arduratsuagoak diren hartzekodunek gainerako hartzekodunen kaltean haien kredituak osorik ez kobratzeko, Zuzenbideak ***par conditio creditorum*** printzipioa ezartzen du. Horren arabera, zordunaren kreditu guztiek izaera bera izango dute eta, horren ondorioz, hartzekodun guztiek eskubide bera izango dute zordunaren ondarearen kontra haien kredituak kobratzeko.

Printzipio hori prozedura berezi baten bitartez gauzatzen da: ***konkurtsoa***. Prozedura horretan, kredituak haien izaeraren arabera sailkatzen dira, eta zordunaren ondarea proportzionalki banatzen da haien artean.

Hala ere, eta hartzekodun guztiek tratatu bera jasotzeko duten eskubidearen salbuespen gisa, legeak ezartzen du kreditu batzuk, haien izaera eta inguruabarra kontuan hartuz, beste batzuk baino lehenago kobratuko direla. Kreditu horiei kreditu pribilegiatuak deitzen zaie.

Beharrezkoa da pribilegio horiek legeak esanbidez ezartzea, *par conditio creditorum* printzipioaren salbuespena baitira.

Kode Zibilak bereizketa hau egiten du:

Pribilegio bereziak. Kredituak zordunaren ondasun zehatz batzuen bidez kobratzeko lehentasuna ematen dute.

Pribilegio orokorrak. Zordunaren ondasun guztien gainean ematen dira.

Kode Zibilaren arauak pribilegioei buruzko exekuzio berezietan aplikatzen dira. Konkurtso kasuetan, Konkurtso Legeak ezarritakoak aplikatuko dira.

- Lehentasuna ematen diete ondasun higigarrien gain kobratzeko garrantzi ekonomiko gutxi duten kreditu batzuei; ondasun higiezinaren gain kobratzeko garrantzi ekonomiko handiagoa duten kreditu batzuei.
- Ondare osoari dagokionez, pribilegio inportanteena da langileak bere azken 30 lan-egunak kobratzeko duena. Eta, jarraian, Ogasun Publikoa.

9.- IKASGAIA

ERANTZUKIZUN ZIBILA (KALTEEN ONDORIOZ SORTUTAKOA)

AURKIBIDEA. 1. Norberaren egintzaren ondorioz sortutako erantzukizuna. 1.1.- Kode Zibilaren 1902. artikulua. 1.2.- Delititik sortutako erantzukizuna. 1.3.- Kalte-ordaina emateko akzioaren ustekizunak. 1.4.- Kalte-galeren ordaina. 1.5.- Erantzukizun-asegurua. 2.- Erantzukizun-hipotesi bereziak. 2.1.- Besteren egitateagatiko erantzukizuna. 2.2.- Herri-administrazioaren ondarezko erantzukizuna. 2.3.- Erantzukizun zibilaren beste hipotesi berezi batzuk

1.- NORBERAREN EGINTZAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ERANTZUKIZUNA

1.1.- KZren 1902. ARTIKULUA

Erromatar Zuzenbidean jatorria duen printzipioaren arabera, pertsona batek beste bati kaltea sortzen badio, arreta gabeziaz edo doluz, kaltea ordaindu beharko dio.

KZren 1902. artikulua honela dio: *Norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste inori, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra du.*

Ohiko teoria (subjektiboa). Horrek kaltea erruak sortua izatea eskatzen du. Bizitzan eta gizartean izan den aldaketaren ondorioz, eguneroko bizitzan dauden arriskuak eta sortzen diren kalteak aldatu egin dira. Inguruabar horiek eragin dute kalte-ordaina emateko betebeharraren funtsa aldatzea.

Kaltea sortzen duenaren errua frogatu behar da. Kaltea jasaten duenak ez zela izan bere errua frogatu behar du.

Teoria objektiboa. Legegileak, eta hori baino lehenago epaileek, zera pentsatu dute: enpresariak beren jarduerak sortutako kalte-galeren ordaina eman beharko dutela, nahiz eta errurik ez egon, baldin eta jarduera horiek haiei onurak sortzen badizkie eta gainerako pertsonen ezohiko arriskuak. Kalte-ordaina emateko betebeharra ezartzen da jarduerarekin sortutako arriskuaren kontraprestazio gisa.

Kalte-galerak ordaintzeko betebeharra sortzeko erruaren betekizuna ez da beharrezko. Erantzukizuna objektibo bilakatzen da.

Eskatzen den bakarra kaltea da. Une horretan, kalte-ordaina emateko betebeharra sortzen da.

Ertaineko teoria. Bi bide erabiliz, erantzukizun objektibora hurbiltzen da:

- ***Froga-zamaren inbertsioa.*** Ohiko printzipioen arabera, kalte-ordaina eskatzen zuenak alderdi hauek frogatu behar zituen: jasandako kaltea, kaltea demandatuak sortu duela, eta kaltea sortzen demandatuaren erruak parte izan duela (arreta gabeziaz jardun duela). Orain, ordea, kaltea sortu

duenak frogatu behar du arretaz jardun zuela. Hau da, frogaren zama irauli egiten da.

- *Eskagarria den arreta larriagotzea.* Praktikan, Auzitegiek profesional bati dagokion arreta eskatzen die profesionali. Era horretan, erantzukizunetik askatzeko, haien jardueran ahal den arreta guztia jarri dutela frogatu behar dute.

1.2.- DELITUTIK SORTUTAKO ERANTZUKIZUNA

KZren 1902. artikulua kalte doludun edo errudun kasu guztiak jasotzen ditu, baita delituen ondorioz sortutakoak ere. Hala ere, KZk Zigor Kodera igortzen ditu delituaren ondorio zibilak. Era horretan, bi erantzukizun-sistema daude Espainiako Zuzenbidean:

- Delitutik sortutakoa. Zigor Kodean arautzen dena.
- Kuasidelitutik sortutakoa. Kode Zibilaren erregelak aplika daitezke.

ZKn dago delitu edo faltatik sortuko diren betebeharrak zibilen eraentza⁸. KZren 1902. artikulua eta hurrengoek arautuko dituzte legeak delitu gisa tipifikatzen ez dituen egintzak eta ez-egiteak, non erruak edo arreta gabeziak parte hartzen baitute.

- a) ZKn arautzen da delitutik sortzen den erantzukizun zibila, eta hura ezagutzeko eskumena duen auzitegia Zigor Auzitegia da. Zigor-akzioa bakarrik egikaritzen bada, eskumen zibila ere egikaritu dela ulertzen da. Hala ere, gerta daiteke kaltea jasan duenak akzioari uko egitea edo bere egikaritza esanbidez erreserbatzea. Kasu horretan, hala badagokio, eskumen zibilean egikarituko du, baina KZren eraentzaren arabera erabakiko da (epai kondenatzailea edo salbuespenak).
- b) Kalte bat sortu duen pertsonaren jarrerak ez duenean deliturik eratzten, KZren 1902. artikulua eta hurrengoek arautuko dute eta Auzitegi Zibilek epaituko dute. Eskumen horrek ezagutzen du, Zigor Auzitegiak akusatua absolbitu duenean edo kausa artxibatu duenean ere (KZren arabera).

1.3.- KALTE-ORDAINA EMATEKO AKZIOAREN USTEKIZUNA

Pertsona batek kalte-galerak ordaintzeko betebeharra izateko, beharrezkoa da betekizun hauen aldiberekotasuna:

⁸ ZK: Zigor Kodea

1.- Akzio edo ez-egite antijuridikoa. Zuzenbidearen kontrakoa den jarduera. Ez da eskubide subjektibo baten egikaritzaren ondorio. Salbuespenezko kasuek baztertu egiten dute antijuridikotasuna; hala nola, bidezko defentsa-hipotesiak, beti ere erasoarekiko legitimoak eta proportzionatuak badira.

2.- Dolua edo erruak parte hartzea. KZren 1902. artikulua erruari buruz hitz egiten du. Horren barnean dago dolua. Dolua egintza antijuridiko bat egiteko borondatea da. Jarduera antijuridikoa gauzatzen duenak, hirugarren bati kaltea sortzen diola jakiteaz gainera, kalte hori sortu nahi du.

Erruz jarduten duenak, berriz, ez du kalterik sortu nahi. Ez du asmo horrekin jarduten. Jurisprudentziak esaten duen bezala, errua edo arreta gabezia zera da: trafiko juridikoan eska daitekeen arreta ez ematea. Diligentzia hori da, printzipioz, familiako guraso on bati dagokion arreta-maila.

3.- Kaltea. Materiala edo morala izan daiteke. Jurisprudentziarentzat kalte moralak dira, ondare espiritualari eragiten dioten kalteak: osasunaren gorputz gabeko ondasunak, ohorea, askatasuna, eta abar.

4.- Kausalitate-harremana akzioaren eta kaltearen artean. Portaeraren eta ez-egitearen artean kausalitate-harremanak egon behar du. Portaerak kaltea sortu behar du.

1.4.- KALTE-GALEREN ORDAINA

Kaltearen ordainak erabatekoa izan behar du. Kalte-ordaina osorik eman behar da, ez baita zigor bat. Zigor Kodeak partida desberdinak bereizten ditu kontzeptu horren barnean:

«itzultzea», «sortutako kaltea konpontzea» eta «kalte materialen eta moralen ordaina». Kode Zibilean, kalteak bai «sortutako kaltea» bai «lortu gabeko irabazia» barneratzen ditu.

Kaltea konpontzeko modu egokiena izango da kaltetuna kaltea jasan baino lehenagoko egoeran birjartzea.

Kalte-galeren ordaina zehazteko, kontuan hartu behar da ordainaren unea, eta ez kaltea sortzen den unea. Ordaina egokitu egin behar da (aurreratutako diru kantitateen interesak, eta abar).

Kalte-galeren ordaina eskatzeko akzioari uko egin dakioke. Uko egiteak esanbidezkoa eta zalantzan jarri ezina izan behar du. Eskumen penalak askotan ez du onartzen hausnarketa tarte txiki baten ondoren egindako uko egiterik. Eskuarki, uko-egite horien arrazoia une latzak aprobeztatuz egindako diru-eskaintza txiki bat izaten da.

1.5.- ERANTZUKIZUN-ASEGURUA

Erantzukizun zibileko aseguruarekin aseguratzailerak behartzen da, Legean eta kontratuan ezartzen diren mugen barne, aseguratuaren gain hirugarren bati kalte-galerak ordaintzeko betebeharra jaiotzeko arriskua babestera. Beti ere, kalte horien egitate kausatzailea kontratuan aurreikusita badago eta Zuzenbidearen arabera aseguratuari egozteko badago.

Jarduera jakin batzuk gauzatzeko, beharrezkoa da asegurua kontratatzea: autoa gidatzeko; ehizean aritzeko; hegazkinerako, eta abar. Jarduera horiek arrisku handia dute kaltea sortzeko. Hori dela eta, asegurua kontratatzeko eskatzen da.

Istripu baten erantzulea aseguraturik dagoenean, kaltea jasan duenak edo haren jaraunsleak akzio zuzena izango dute aseguratzailearen kontra. Horri kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango diote.

2.- ERANTZUKIZUN-HIPOTESI BEREZIAK

2.1.- BESTEREN EGITATEAGATIKO ERANTZUKIZUNA

Batzuetan, kalte-galeren ordaina emateko betebeharra ez dagokio kaltea sortu duen pertsonari, baizik eta beste bati.

Horrela, KZren 1903. artikulua pertsona hauen erantzukizuna ezartzen du:

- **Gurasoen erantzukizuna:** *beren zaintzapean dauden seme-alabek sortutako kalteagatik.*
- **Tutoreen erantzukizuna:** *beren agindupean dauden eta eurekin bizi diren adingabe eta gaitasun gabetuek eragindako kalteengatik.*
- **Establezimendu edo enpresa baten jabeak:** *laguntzaileen erantzukizuna.*
- **Ikastetxeetako titularren erantzukizuna:** *inguruabar batzuetan, adingabeko ikasleena.*

2.2.- HERRI-ADMINISTRAZIOAREN ONDAREZKO ERANTZUKIZUNA

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 139. artikulua zera ezartzen du: Ezinbesteko kasuetan izan ezik, herri-administrazioek ordaindu egin behar dizkiete herritarrei beren ondasun eta eskubideetan eragindako kalteak, beti ere, izandako kaltea zerbitzu publikoen jardueran on edo txarraren ondorioz sortu bada.

Hala ere, herritarrei kalteak ordainduko zaizkie, bakar-bakarrik, legez kalte horiek jasan beharrik ez badute. Kaltea dakarren gertakari edo gorabehera bada, eta, nahiz une horretako zientziak zein teknikak eskainitako bide guztiak erabili, ezin

izan bada aurretiaz ikusi edo saihestu, orduan, herri-administrazioek ez dute kalterik zertan ordaindu.

Administrazioari dagokio Administrazioaren kontra sustatzen diren erantzukizun-prozedura guztiak ezagutzeko eskumena, bai kaltea jardun arrunt edo ezohikoaren ondorioz sortu denean, bai harreman pribatuen barnean gertatu denean.

Herri Administrazioaren zerbitzura dagoen langilea ezin da demandatu, eskumen zibilaren aurrean erantzukizuna eskatuz. Erantzukizuna Administrazioak soilik eska diezaioke, doluz edo larria den arreta gabeziaz jardun badu.

Justizi Administrazioaren jardunagatik Estatuari dagokion ondarezko erantzukizunari dagokionez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 292-297 artikulutartea aplikatu beharko da. Hau da eraentza horren printzipio iradokitzailea: *los daños causados en cualesquiera bienes o derechos por error judicial, así como los que sean consecuencia del funcionamiento anormal de la Administración de Justicia, darán a todos los perjudicados derecho a una indemnización a cargo del estado, salvo en los casos de fuerza mayor* (BJLOren 292.1 art.).

2.3.- ERANTZUKIZUN ZIBILAREN BESTE HIPOTESI BEREZI BATZUK

Honako hauek bereiz ditzakegu:

- Uztailaren 21eko 48/1960 Legea, haize-nabigazioari buruzkoa.
- Urriaren 29ko 8/2004 Errege Legegintza-dekretua, zeinaren bidez onartzen baita ibilgailu motordunen zirkulazioaren erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legea.
- Uztailaren 19ko 26/1984 Legea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako Lege Orokorrari buruzkoa.
- Uztailaren 6ko 22/1994 Legea, produktu akastunek eragindako kalteen erantzukizun zibilari buruzkoa.

10.- IKASGAIA KONTRATUA

AURKIBIDEA. 1.- Kontzeptua. 1.1. Forma-askatasunaren printzipioa. 1.2.- Eduki-askatasunaren printzipioa. 2.- Kontratuaren figura modernoak. 3.- Kontratuaren betekizunak. 4.- Adostasuna. 4.1. Alderdien gaitasuna. 4.2.- Adostasunaren akatsak. 4.2.1. Errakuntza. 4.2.2.- Indarkeria. 4.2.3.- Beldurraztea. 4.2.4.- Dolua. 5.- Objektua. 6.- Kausa (kontratuaren edukia edo kontratu tipoa). 7.- Deklarazioa, kontratuaren eratzea eta forma. 7.1.- Deklarazioa. 7.2.- Forma. 7.3.- Kontratua eratzea. Eskaintza eta onartzea. 7.4.- Absenteen arteko kontratazioa. 8.- Borondateak eta deklarazioak bat ez egitea. 8.1.- Kasuak. 8.2.- Itxura edo simulazioa. 9.- Ez-betetzearen **salbuespena**. 10.- Ez-betetzearen ondorioz egikaritzen den suntsitzea. 11.- Inguruabarrak. 11.1.- Baldintza. 11.2.- Terminoa. 11.3.- Modua. 12.- Kontratua interpretatzea eta integratzea. 12.1.- Kode Zibilaren erregelak. 12.2.- Kontratua autointegratzea eta heterointegratzea. 12.3.- Kalifikatzea. 13.- Kontratuaren efektuak. 13.1.- Efektu orokorrak.

1.- KONTZEPTUA

Kontratua da Betebehar Zuzenbidearen iturri inportanteena, eta Zuzenbide Zibilaren erakunde adierazgarriena.

Kode Zibilak IV. Liburuaren bigarren Tituluan arautzen du kontratua (1254.-1314. artikulua tartea). Hala ere, ez du figura horren benetako definizio bat barneratzen.

KZren 1254. artikulua zera dio: *Kontratua bada izan, pertsona bat edo gehiago ados daudenetik, beste pertsona bati edo batzuei begira, beren burua gauzaren bat ematera edo zerbitzuren bat egitera behartzeko*. Manamendu horrek ezartzen du kontratua noiz perfektionatzen den, alegia, noiz jaiotzen den. Ez du, ordea, kontratuaren definizio bat ematen.

Doktrina da bere araudian oinarrituz kontratua definitzen duena. Horrela, kontratua honela definitzen da: *bi pertsonen edo gehiagoren arteko borondatezko akordioa, zeinaren bidez ondarezko edukia duten harreman juridikoak sortu, aldatu edo iraungitzen baitira.*

Kontratuaren arloan bi printzipio daude:

1.1.- FORMA-ASKATASUNAREN PRINTZIPIOA

KZren 1278. artikulua honako printzipio hau ezartzen du: *Kontratuak bete beharrekoak izango dira, horiek egiteko forma edozein izanik ere, baldin eta euren baliozkotasunerako baldintza oinarritzkoak betetzen badira.*

Salbuespena: kontratu formalak. Baliadunak izateko, eskritura publikoan jaso behar dira ondasun higiezinaren dohaintzak (KZren 633. art.); hipoteka bat eratzea (KZren 1875. art.); ezkontza-hitzarmenak (KZren 1327. art.) eta abar.

1.2.- EDUKI-ASKATASUNAREN PRINTZIPIOA

Alderdiek haien premia eta interesetara hobe egokitzen den kontratua era dezakete; beti ere, ez badu Zuzenbidearen muga orokorrekin topo egiten.

KZren 1255. artikulua jasotzen du printzipio hori: *Kontratugileek ezar ditzakete euren ustez komenigarri diren itun, klausula eta baldintzak, ez badira legeen, moralaren eta ordena publikoaren aurkakoak.*

2.- KONTRATUAREN FIGURA MODERNOAK

- **Kontratu aratuak.** Kontratu horietan, legeak ezarritako aginduei jarraituz kontratatu beharko dute alderdiek. Kontratu horiek eduki soziala dutenez, legeak zuzentarau batzuk ezartzen ditu. Legea interes orokorra babesten saiatzen da. Partikularrari berme batzuk emateko parte hartu behar du Legeak; hain zuzen, erabateko askatasun-sistema batekin partikularrek lortu ezin dituzten berme batzuk ziurtatzeko hartzen du parte legegileak. Adib.: *aseguru-kontratua, lan-kontratua eta abar.* Kontratu horietan bete beharko dira legeak ezartzen dituen aginduak. Nahitaezkoa da puntu horiei buruz legeak ezartzen duena betetzea: kontratuaren objektua, prezioa, iraupena, aldaketak, eta abar. Kontratu horiek betetzea ez da nahitaezkoa, baina egiten badira, haien edukia arauen aginduetara egokitu behar da.

- **Atxikitze-kontratuak.** Kontratuaren alderdi batek alde zuzetik eta aldebakarki prestatutako kontratua da. Alderdi batek idazten ditu kontrataturen klausulak.

Kontratu mota horren bidez abusuak gertatzen dira. Kontratura atxikitzen den alderdiak ezin du negoziatu kontratuaren edukia eta, batzuetan, bidezkoa ez den eran murrizten zaizkio bere eskubideak. Telefonoa nahi baduzu, hartu edo utzi.

Alderdiak ez daude berdintasun-egoeran. Alderdi bat nagusitu egiten da bestearen aurrean.

3.- KONTRATUAREN BETEKIZUNAK

Ez dago kontraturik ez badira betekizun orokor hauek betetzen: adostasuna, objektua eta kausa. Kontratuak **formalak badira, forma ere oinarritzko elementua izango da.**

HORIETAKO BETEKIZUNEN BAT FALTA BADA, KONTRATUA DEUSEZA IZANGO DA (EZ DA JAIO).

KZren 1261. artikulua oinarritzko elementuak zerrendatzen ditu kontratu guztientzat: *Ez dago kontraturik, hurrengo betekizunak gauzatzen direnean baino: 1. Kontratugileen adostasuna. 2. Objektu zehatza, kontratuaren gai dena. 3. Kontratuak ezarritako betebeharraren kausa.*

Oro har, forma ez da nahitaez agertu behar den elementua kontratua existitzeko. **Oinarritzko elementua izango da, legezko xedapen batek edo alderdiek esanbidez ezartzen badute.**

4.- ADOSTASUNA

Adostasuna nahitaezkoa da kontratuaren existentzia eta baliotasunarentzat.

Adostasuna da alderdiek era askean adierazi behar duten borondate-akordioa. Kontratuaren edukiaren arabera, behartzeko duten asmoa kanporatzen dute. Edo, subjektuak nahi duena adierazteko duen jarrera da.

Adostasuna balioduna izateko, nahitaezkoa da:

- a) Gai den pertsona batek ematea.
- b) Kontratatzeko borondatea ez izatea akastuna; hau da, era askean eta kontzientean egin behar da.

4.1.- Alderdien gaitasuna

KZren 1263. artikulua dio: *Ezin dute adostasunik eman: 1. Adingabeko emantzipatugabeek. 2. Ezgaituek.*

4.2.- Adostasunaren akatsak

Adostasuna era aske, kontziente eta berezkoan gauzatu behar da. Kontratzailearen borondatea zehaztean, ezin du inolako egitatek edo inguruabarrek eraginik izan. KZren 1265. artikulua zera xedatzen du: *Deuseza izango da errakuntza, indarkeria, beldurrarazte edo doluaren ondorioz emandako adostasuna.*

Adostasunaren akats batek ez du sorrarazten egin den negozioaren erabateko deuseztasuna edo existentzia eza. Akatsak ahalmena ematen dio kaltetua izan denari, horrela komeni bazaio, deuseztagarritasun-akzio bat egikaritzeko. Kontratua balioduna izango da, baldin eta aurkarapen-akzio hori ez bada egikaritzen. Akzioa egikaritzeko epea lau urtekoa izango da (KZren 1301. art.). Gerta daiteke kontratu hori baliozkotzea ere.

Azter ditzagun KZren 1265. artikulua zerrendatzen dituen akatsak:

4.2.1.- Errakuntza

Errakuntza da borondatearen eraketari eragiten dion egitate edo errealtateari buruzko ezagutza faltsua. Akats horretan oinarriturik, pertsonak adostasuna ematen dio benetan nahi ez duen gauza bati.

Adibide hori *errakuntza-akats*arena da, bat egiten duena eman dugun definizioarekin. Horren ondoan, *eragozte-errakuntza* dago; horrek ez du eraginik pertsonaren borondatearen eraketan, baizik eta deklarazioan; hau da, gauza bat nahi da eta errakuntzaz beste bat deklaritzen da. Adib.: atzerritar batek auto bat saldu nahi du 10.000 euroan eta, hizkuntza menderatzen ez duenez, 1.000 euroan saldu nahi duela esaten du. Kasu horretan, pertsonak ez du deklaritzen benetan nahi

duena. Errakuntza-akatsen, nahi duena deklaritzen du, baina bere borondatea ez da ondo eratu.

KZren 1266. artikulua zera xedatzen du: *Kontratuaren deuseztagarritasuna sorrarazteko, errakuntza kontratuaren objektuaren gain edo kontratua egiteko erabakigarriak izan diren bere baldintzen gain eman behar da.* Beraz, edozein errakuntzak ez du adostasuna baliogabetzen. Nahitaezkoa izango da oinarrizko edo funtsezko errakuntza bat. Errakuntza horrek pertsonaren borondatean duen eragina hain da handia, pertsona horrek, ezagutuz gero, ez bailuke adostasunik emango.

Halaber, adostasuna baliogabetzeko, errakuntza ezingo zaio egotzi hura jasan duen pertsonari (barkagarria). Kontratatzaileak arreta normala erabiliz ekiditeko aukera izan badu, errakuntza ez da barkagarria izango, baizik eta barkaezina.

Errakuntza pertsonaren gain ematen bada, eta pertsona horren inguruabarrak kontratu horren kausa nagusi izan badira, kontratua baliogabetu egingo da.

KZren 1266.3 artikulutik eratortzen den bezala, kontu-errakuntzak ez du kontratua baliogabetzea eragingo: *Kontuaren gaineko errakuntza soilak errakuntza horren zuzenketa besterik ez dakar.*

4.2.2.- Indarkeria

Indarkeria dago, adostasuna lortzeko pairaezina den indarra erabiltzen denean (KZren 1267.1 art.). Adib.: *Nereak, Mikelek kontratatzeke bere adostasuna eman diezaion, hipnotizatu egiten du hura, bahitu, torturatu.* Kasu horretan, borondate akastuna baino gehiago, adostasunaren erabateko existentzia eza dago, kontratatzeke borondate askea eta kontzientea indar pairaezin batek ordezkatu baitu. Hori da adostasuna emateko kausa bakarra.

Kode Zibilak adostasunaren gainerako akatsei esleitzen dizkien efektu berdinak ezartzen ditu indarkeriarentzat. Kontratua ez da deuseza izango, baizik eta deuseztagarria. Indarkeria desagertzen denean, kaltetuak akzioa egikaritu ahal izango du (KZren 1301. art.).

4.2.3.- Beldurraraztea

Beldurraraztea dago, kontratatzaile bati gaitz larri eta berehalakoa jasateko beldur arrazionala eta funtsatua sorrarazten zaionean, bere pertsonagan edo ondasunetan, edo bere ezkontide, ondorengo edo aurrekoen pertsona edo ondasunetan.

Beraz, beldurraraztea da ezaugarri hauek dituen adostasunaren akats bat:

- a) Mehatxu bat, berehalakoa, larria eta bidegabea den gaitz baten berri gisa.
- b) Beldur-egoera arrazional eta funtsatu baten sorkuntza, egin den mehatxuaren ondorio gisa.

KZren 1267. artikulua dio beldurraraztea kalifikatzeko kontuan izan behar dela pertsonaren adina eta baldintzak. Pertsona guztiak ez dira beldurtzen egoera berdinen aurrean.

Horregatik, beldurra sorrarazteko beharrezkoa den larritasun-maila zehazteko, kontuan izan beharko dira mehatxua jasaten duen pertsonaren inguruabarrak.

Mehatxua beste kontratatzaile batek zein hirugarren batek egin dezake (KZren 1268. art.).

Azkenik, KZren 1267. artikulua dio: *Pertsona zehatz batzuei mendetasuna eta errespetua zor eta horiek nahigabetzeko beldurra ez du kontratua deuseztatuko.*

4.2.4.- Dolua

Dolua dago kontratatzaile batek beste kontratatzailea engainatzen duenean hitz edo azpizjoko maltzurak erabiliz kontratua egiteko.

Era horretan, dolua da pertsona batek beste batek adostasuna emateko erabiltzen duen fede gaiztoan oinarritzen den akatsa. Doluaz jarduten duen kontratatzailearen asmoa engainatzea da. Kontratazioaren baldintzen inguruan errakuntza sorrarazi nahi du.

KZren 1270. artikulua bi dolu mota bereizten ditu:

-Dolu larria. Kontratua egiteko kausa nagusia engainua da.

-Zeharkako dolua. Engainua dago, baina hori ez da kontratua egiteko kausa nagusia. Dolu horrek kontratua egitea errazten, samurtzen du.

Doluak larria izan behar du adostasuna akastun egiteko eta kontratuen deuseztasuna sorrarazteko, eta alderdi batek bakarrik erabili behar izan du. Alderdi biek erabili badute, erru-konpentsazioa dago eta ez da kontuan hartzen. Zeharkako doluak hura erabili duena behartzen du kalte-galeren ordaina egitera.

5.- OBJEKTUA

KZren 1261. artikuluan, objektua da kontratua existitzeko eskatzen den bigarren oinarritzko betekizuna.

KZren 1271. artikulua arabera, kontratuaren objektu izan daitezke: *gizakien merkatarizatik kanpo ez dauden gauza guztiak, baita etorkizunekoak ere.*

Gauza eta zerbitzuez gainera, eskubideak (*adibidez, kreditu-eskubide bat lagatzea*), zorrak, eta ez-egiteko betebeharrak ere kontratuen objektu izan daitezke.

KZren 1272. eta 1273. artikuluek ezartzen dituzte objektuak behar dituen betekizunak:

- **Posiblea** (KZren 1272. art.): *Ezin dira kontratuaren objektu izan gauza edo zerbitzu ezinezkoak. Artikulu horrek ezintasun fisikoari egiten dio aipamen. Adib.: Ez da posible eguzkia edo existitzen ez den gauza bat saltzea.* Hala ere, gerta daiteke kontratua egiten den unean existitzen ez den gauza bat kontratuaren objektu izatea. Beti ere, geroan existitzeko aukera baldin badauka. *Adib.: etxea planoetan erostea*)

- **Zilegia** (KZren 1271. art.).

- **Zehaztua edo zehazgarria** (KZren 1273. art.).

6.- KAUSA (KONTRATUAREN EDUKIA EDO KONTRATU TIPOA)

Kausa da kontratuen baliotasunarentzat beharrezko beste betekizun bat.

Kausa da alderdiek kontratua egiten dutenean lortzea espero duten oinarrizko xedea, hau da, kontratuaren ospakizunaren arrazoi edo motibo nagusia.

Kode Zibilak ez du kausari buruzko kontzeptu bat barneratzen, nahiz eta 1274. artikuluan hari aipamen egin. Artikulu horretan ezartzen da kontratu-kategoria bakoitzean zer hartzen den kausatzat:

- a) **Kostubidezko kontratuetan**, alderdi bakoitzarentzat kausatzat joko da beste alderdiak egindako gauza edo zerbitzu baten prestazioa edo promesa. Inork ez du kontratatzen motibo zehatz bat izan gabe, bere betebeharraren baliokide bat aurkitu gabe. Kostubidezko kontratuetan, baliokidetasuna dago alderdi batek ematen duenaren eta beste alderdia ematera edo egitera behartzen denaren artean.
- b) **Dohaineko kontratuetan**, kausa ongilearen liberaltasunean dagoela ulertzen da. *Adib.: Mikelek Nereari auto bat oparitzen dio.* Kontratu horren kausa edo arrazoiak da Nereari opari bat egitea. Kontratu mota horietan, beste alderdiari onura egitea da xede bakarra, bai maitatzen direlako, bai lagunak direlako, eta abar (kontratuaren kausa). Lortu nahi den baliokidea zera izango da: onura sorrarazi duenaren gogobetetzea.
- c) **Ordaintzeko kontratuetan**, kausa da saritzen den zerbitzua edo onura. Kontratu horietan, jadanik gauzatu den zerbitzu bat saritu nahi da.

KZren 1275. eta 1276. artikuluetatik eratortzen da kausak baldintza hauek bete behar dituela:

- 1) **Kausa existitu egin behar da**, kausarik gabeko kontratuek ez baitute efekturik sortzen (KZren 1275. art.). KZren 1261. artikulutik eratortzen den gisan, kausarik gabe ez dago kontraturik. Hala ere, nahiz eta kausa kontratuan adierazita ez egon, kausa badagoela eta zilegia dela uste da; behintzat, baldin eta zordunak aurkakorik frogatzen ez badu (KZren 1277. art.).

- 2) ***Kausak benetakoa izan behar du.*** Kausa faltsu bat adierazten bada, kontratua deuseza izango da; beti ere, ez bada frogatzen benetakoa eta zilegia zen beste batean oinarritzen zela (KZren 1276. art.).
- 3) ***Kausak zilegia izan behar du.*** KZren 1275. art.: ... *zilegia ez den kausa duten kontratuek ez dute inolako efeturik sortzen. Kausa ez da zilegia legearen edo moralaren aurkakoa denean.* Hala ere, kausa zilegizat hartzen da, aurkakorik frogatzen ez den bitartean (KZren 1277. art.).

7.- DEKLARAZIOA, KONTRATUAREN ERATZEA ETA FORMA

7.1.- DEKLARAZIOA

Borondatea eraginkorra izateko, deklarazio baten bitartez adierazi behar da. Deklarazioaren bidez, jendeak deklarazialearen borondatea ezagutu eta interpreta dezake.

Kontratu bat egitera zuzenduta dagoen deklarazioa beste pertsona bati zuzendu behar zaio. Kontratuzko deklarazio hartzigarria da. Beraz, pertsona horrek ezagutu behar du.

Deklarazioak ez du, nahitaez, esanbidezkoa izan behar. Isilekoa izan daiteke, alegia, zalantzarik sortzen ez duten egintzetatik erator daiteke borondatea. Halaber, isiltasuna borondate-deklarazioa izan daiteke.

7.2.- FORMA

Forma kontratua kanporatzeko baliabidea da, gainerakoei ezagutaraziz.

Kontratuak idatziz edo ahoz egin daitezke. Halaber, idatzizko kontratuak agiri publikoan formaliza daitezke (notario batek edo eskuduntza duen enplegatu publiko batek baimentzen dituztenean, legeak ezartzen dituen irmotasunarekin) edo dokumentu pribatuan (alderdiek haien artean esleitzen dutenean, notarioaren edo funtzionario publikoaren parte-hartzerik gabe).

KZren 1278. artikulua honako printzipio hau ezartzen du: *Kontratuak bete beharrekoak izango dira, horiek egiteko forma edozein izanik ere, baldin eta euren baliozkotasunerako baldintza oinarritzekoak betetzen badira.*

Artikulu horretatik eratoritzen da gure sistema juridikoa ***kontratazioaren forma-askatasun sistemaren*** aldekoa dela. Horrela, erregela orokor gisa, kontratua jaioko da, kontratatzaileen adostasuna, objektua eta kausa dagoen unetik aurrera.

Hala ere, formak beti bi modutan jardun dezake kontratuetan:

- 1) **Kontratuaren baliotasunarentzat oinarrizko betekizun gisa.** Hori gertatuko da, legeak kontratuzko borondatea adierazteko forma berezi bat eskatzen badu (kontratu formalak edo *ad solemnitatem*). Ondasun higiezinaren dohaintzak eskritura publikoan jaso behar dira baliodunak izateko (KZren 633. art.): hipoteka bat eratzea (KZren 1875. art.), ezkontza-hitzarmenak (KZren 1327. art.), eta abar.
- 2) **Kontratuaren ospakizunaren froga gisa** (*ad probationem* formalitatea). Kontratua balioduna izango da, nahiz eta formaren betekizunik ez bete. KZren 1280. artikulua aipamen egiten die esaterakoan: *agiri publikoan agerrarazi beharko dira...*; jarraian zerrendatu egiten ditu.

Kode Zibilaren 1279. artikulutik eratortzen da 1280. artikulua erabiltzen duen *agiri publikoan agerrarazi beharko dira* esapidea ez dela kontratuaren baliotasunarentzat bete behar bat. Hala ere, bere eraginkortasunaren betekizuna izan daiteke. Hirugarrenei kontratua aurkaratzeko eta Erregistroan inskribatu ahal izateko forma eska daiteke. Hori da KZren 1279. artikulua jarraitzen duen xedea: *Legearen aginduz beharrezkoa bada eskritura edo beste forma berezi bat betetzea kontratuaren berezko betebeharrak eragingarriak izan daitezen, kontratugileek elkar behartu dezakete forma hori betetzera, adostasuna eta kontratuaren baliokotasunerako beharrezkoak diren gainerako betekizunak gauzatzeko direnetik.*

7.3.- KONTRATUA ERATZEA. ESKAINTZA ETA ONARTZEA

Ikusi dugunez, trafiko juridikoarentzat kontratu bat jaiotzen da bi borondate-deklarazio edo gehiago aldi berean egiten direnean; hau da, KZren 1258. artikulua dioen gisan: *Kontratuak burutzen dira adostasun hutsaren bitartez, eta hori azaltzen da eskaintza eta onarpena bat etortzeagatik, kontratua eratu behar duten gauzaren eta kausaren inguruan* (KZren 1262.1 art.).

Beraz, eskaintzak eta onartzeak bat egin arte ez dago kontraturik (alderdien adostasuna adierazteko formak dira).

a. Aurreko tratuak

Eskaintzak eta onartzeak bat egiten dutenean, kontratua dago. Kasu batzuetan, borondate-konkurto horretara iritsi baino lehenago, tratuak aurreko epealdi bat egoten da. Epealdi horretan zehar, alderdiek eztabaidatu egiten dute kontratuaren terminoak buruz, hau da, prezioari buruz, exekuzio-lekuari buruz eta abarri buruz. Haien xedea eskaintza zehatz bat egitea da, onargarria eta kontratua sorraraziko duena.

Aurreko tratu horiek hausteak, hasiera batean, ez du inolako ondoriorik alderdientzat, alderdiek kontratatzeke erabateko askatasuna baitute. Hala ere, doktrinari galdetu zaio erantzukizunik sortzen ote den aurreko tratuak aldebakarki urratzen direnean. Hausten dituenak ordaina eman beharko die urratze horrek sortzen dituen kalteei? Horri buruz, doktrinak uste du erantzukizuna izango duela urratzea fede gaiztoz egin duenak, eta aurreko tratuekin jarraitzen duenak beste alderdiari kaltea sortzeko. Jarrera horrek ordain daitekeen kalte bat sorraraziko du (KZren 1902. art.).

Espero daitekeen gisan, garrantzi ekonomiko gutxi duten bat-bateko kontratuetan ez dira gauzatzen aurreko tratu horiek. Negoziozko trafikoa kolapsatu egingo zen, negoziazio horiek kasu guztietan emanez gero. Horrela, adibidez, autobus-billetea erosten denean, liburu bat erosten denean, eta abarretan.

b. Eskaintza eta onartzea

Eskaintza. Pertsona batek, kontratu bat egiteko asmoarekin, beste bati igortzen dion borondate-deklarazioa da. Eskaintza igor dakioke pertsona jakin bati, edo zehaztuta edo zehaztu gabe dagoen pertsona multzo bati.

Eskaintza egoteko beharrezkoa da horrek geroko kontratuaren elementu guztiak barneratzea, beste alderdiak onartzen duenetik perfektionatzeko. Eskaintzak ez dira kontratatzeraz edo eskaintza egitera gonbidatzen duten borondate-deklarazioak, eskaintza guztiek osoak izan behar dutelako eta behartzeko asmoz igorri behar direlako. Gainera, eskaintza ez da forma berezi batean egin behar.

Eskaintza igorri eta gero, hartzaileak onar edo bazter dezake. Gerta daiteke eskaintza bati uko egin eta kontraeskaintza bat proposatzea, jasotako eskaintzari berrikuntzak gehituz. *Adib.:* *Ak Bri etxe baten salmenta eskaintzen dio 3.000 euroren truke, eta Bk uko egiten dio, 2.500 euroko kontraeskaintza eginez.*

Noiz arte dago indarrean eskaintza? Noiz arte behartzen du? Hartzaileak uko egiten badio, edo eskaintzaileak onartua izateko ezarri duen epea igarotzen bada, eskaintzailea askatu egiten da. Gauza bera gertatzen da eskaintzailea hiltzen bada, edo jarduteko gaitasuna galtzen badu. Eta azkenik, zehaztugabe dauden pertsonen egindako eskaintzen kasuan (publikoari egindako eskaintza), eskaintzailea askatu egiten da eskaintza ezeztatzen badu hura egiteko erabili dituen publizitate-bitarteko berak erabiliz. Hala ere, eskaintza bat ezin da behin betikoa izan. Eskaintza guztiek epealdi bat dute, nahiz eta ez adierazi.

Eskaintza onartzen denean, hau da, *onartzeak* jarraitzen dionean, kontratuaren perfektioa gertatzen da, hau da, trafiko juridikoa sortzen da. Onartzea eskaintzaren hartzaileak igorritako borondate-deklarazio bat da, zeinaren bidez eskaintza onartu egiten baita.

Onartzearen xedea da eskaintzaileari proposamenarekin ados dagoela adieraztea. Onartzeak hainbat forma izan ditzake: ahozkoa edo idatzizkoa, esanbidezkoa edo isilekoa. Onartzen den unetik kontratua perfektionatu egiten da

eta, logikoki, eskaintzaileak ezin du bere eskaintza ezeztatu, behartuta gelditu baita onartzearekin.

7.4.- ABSENTEEN ARTEKO KONTRATATAZIOA

Kontratuaren perfekzioa edo gauzatzea gertatzen da eskaintza eta onartzea aldi berean gauzatzen direnean, edo bat egiten dutenean. Ezaugarri horrek eragin hauek ditu: sortu den harreman juridikoari alderdiak lotzea, hura osatzen duten borondate-deklarazioen ezeztazintasuna, eta haren eragin tipikoa jaiotzea. Kontratua gauzatu edo perfekzionatu ondoren, alderdien akordio komunak bakarrik alda dezake hura.

Absenteen arteko kontratazioak honako arazo hau dakar: noiz gauzatzen da aurrez aurre ez dauden pertsonen arteko kontratua (gutunez edo beste baliabide bat erabiliz erlazionatzen dira)?

Kode Zibilak, hasiera batean, *ezagutza-teoriaren* alde egiten zuen. KZren 1262.2 artikulua jatorrizko erredakzioa: *gutunez egin den onartzeak ez du eskaintza egin zuena lotzen, horrek ezagutzea beharrezkoa baita*. MKren 54. artikulua, ordea, igorpen-teoria aplikatzen zuen. Doktrinak uste zuen oso zorrotza zela KZren aukera.

Gaur, KZren 1262.2 artikulua (MKren 54. artikulua erredakzio bera du) aldatu egin dute⁹: *Eskaintza egin duena eta hori onartu duena toki desberdinetan badaude, adostasuna dago eskaintzaileak onarpenaren berri duenetik, edo, onartzaileak eskaintzaileari onarpena igorrita, horrek ezin duenean ezikusiarena egin fede onari kalterik egin gabe*. Beraz, erdi-mailako aukera egiten da.

Konponbide hori aplika dakieke postaz edo antzeko baliabideak erabiliz egin diren kontratuei (*adib.: faxa, korreo elektronikoa*¹⁰); halaber, bitarteko elektronikoak erabiliz egin diren kontratuei. Baina, *kontratuak eragingailu automatikoen bitartez egin badira, adostasuna dago onarpena adierazten denetik* (KZren 1262.3 art. eta MKren 54.2 art.). *Adib.: on line* kontratuak.

Lekuari dagokionez, ez dago inolako zalantzarik aurrez aurre dauden pertsonen arteko kontratazioaren inguruan. Zera dio absente dauden pertsonen arteko kontratazioan KZren 1262.2 *in fine* artikulua: *Kasu honetan, eskaintza non gauzatu eta kontratua bertan egin dela uste da*.

8.- BORONDATEAK ETA DEKLARAZIOAK BAT EZ EGITEA

Aukera bat baino gehiago daude bere baitan:

. Deklarazioa zentzu batean egiten da eta borondatea beste bat da.

⁹ **34/2002** Legea, uztailaren 11koa, informazio-gizartearen eta komertzio elektronikoaren zerbitzuei buruzkoa (BOE 166. zk., 2002ko uztailaren 12koa, 25388.-25403. or.) aldatu egin du.

¹⁰ *Telefonoz kontratatzen denean*, alderdiak *aurrez aurre* daudela ulertzen da.

- . Ez dago inolako kontratuzko borondaterik, baina badago deklarazio bat.
- . Ez dago berezko deklaraziorik edo dagoena akastuna da: bortxakeria, indarkeria eta abar.

Galdera zera da: Zein nagusitzen da? Barne-borondatea edo deklaratu den borondatea? Dohaineko negozioak benetako borondatearen arabera epaitu behar dira. Kostubidezko kontratuetan, alderdi batek ez dakienean beste alderdiaren deklarazioak ez duela bat egiten bere barne-borondatearekin, deklaratu izan den borondatea nagusitzen da.

8.1.- HIPOTESIAK

Indarkeria. Adostasuna lortzeko indarkeria pairaezina erabiltzen denean, indarkeria dago. Erabateko indarkeria fisikoak deklaratzeko edozein borondate ezabatzen du. Ez dago adostasunik. Negozioa erabat deuseza da, oinarrizko elementu bat falta den heinean: adostasuna

Eragozte-errakuntza. Honek kontratua deuseztatzen du.

Serioa ez den deklarazioa (txantxetan egindakoa). Ez dago kontratuzko borondaterik eta ez benetako deklaraziorik.

Buru-erreserba. Pertsona baten aurrean borondate bat deklaritzen da, baina benetan beste zerbait nahi da. Subjektua deklarazio horren menpe geldituko da. Lotuta geldituko da.

8.2.- ITXURA EDO SIMULAZIOA

Zera behar da:

- a) Denon aurrean, nahi den kontratu bat egotea. Benetan, ordea, ez da nahi (KONTRATUA).
- b) Itxura sorrarazi duten kontratatzaileen artean akordio bat egotea, zeinari jarraiki kontratuak ez baitu baliorik (AKORDIOA).
- c) Kontratuaren itxurarekin benetan lortu nahi den xedea.

Hirugarren betekizun hori egotearen edo horren ezaren arabera:

Erabateko simulazioa. Deklarazioak ez du ezer estaltzen eta negozioa erabat itxurazkoa da (alderdien borondatea gordeta dago). Ez dago kontratu baliodunik.

Simulazio erlatiboa. Deklarazioak beste negozio edo kontratu desberdin bat estaltzen du. Itxuraz salmenta da, baina alderdiek benetan dohaintza gauzatzen dute. Balioduna izatera irits daiteke alderdiek benetan nahi izan dutena.

9.- EZ-BETETZEAREN SALBUESPENA

Betebehar elkarkarrietan, betebeharrak aldi berean bete behar dira. Hori dela-eta, alderdi batek ezin du beste alderdia betetzera behartu, baldin eta berea betetzen ez badu edo betetzeko prest agertzen ez bada.

10.- EZ-BETETZEAREN ONDORIOZ EGIKARITZEN DEN SUNTSITZEA

Betebehar elkarkarrietan, suntsiarazteko ahalmen inplizitua ulertzen da (alderdi biek hitzartutakoa bete behar dute).

Kaltetuak aukera hau dauka: betetzea edo suntsitzea. Bai batean bai bestean, kalte-galeren ordaina eska dezake.

Kontratu bat suntsitzea kontratuari amaiera ematea da.

11.- INGURUABARRAK

11.1.- BALDINTZA (*gerokoa eta ezezaguna den gertaera*)

Baldintza ezarriz, kontratuaren alderdiek gerokoa eta ezezaguna den gertaera baten menpe jarri nahi dituzte haien hitzarmenen ondorioak.

Baldintza esekitzaila. Kontratuaren efektuak sortuko dira, baldintza gisa ezarritako gertaera gauzatzen den unetik (etxea salduko dizut, loteria egokitzen bazait).

Baldintza suntsiarazlea. Baldintza gertatu bezain pronto, kontratuak efektuak sortzeari utziko dio (etxea salduko dizut, baina loteria egokitzen bazait bueltatu egin beharko didazu).

11.2.- TERMINOA (*gertaera ezaguna*)

Termino ezaguna den gertaera bat da (ziurra). Honako hauetakoren bat izan daiteke:

- Data jakin bat iristea (apirilak 12, edo bi hilabete barru gaurtik kontatuta).
- Nahitaez gertatuko den zerbait, nahiz eta ez jakin noiz (Peio hiltzen denean, etxea salduko dizut).

Hainbat termino mota daude:

Hasierako terminoa. Negozio baten eraginkortasunaren hasiera adierazten du.

Amaierako terminoa. Eraginkortasun horren amaiera seinalatzen du (etxea uzten dizut, nire ama hil arte; orduan, bueltatu egin beharko didazu).

Epemuga. Prestazioa noiz egin behar den adierazten duen terminoa da.

11.3.- MODUA

Liberaltasun bati gehitzen zaion determinazio osagarria da. Horrek dohaineko negozio hura (hau da, testatzailearen edo dohaintza-emailearen asmoak) murrizten du.

Dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari zer bait egiteko zama ezartzen dio. Adib.: Etxe hori oparituko dizut, elizan egunero nire alde kandelak pizten badituzu.

12.- KONTRATUA INTERPRETATZEA ETA INTEGRATZEA

12.1.- KODE ZIBILAREN ERREGELAK

Kontratu batek bere alderdien borondatea zein den argi eta garbi adierazten duenean, ez du inolako arazorik aurkezten efektuak sortzeko. Hala ere, bere edukia islatzeko, argitasun hori ez da beti azaltzen; izan ere, hainbat kasutan, eskarmentu ezagatik, arreta gabeziagatik edo fede gaiztoagatik, alderdiek egindako kontratuaren klausulek ez dute argi eta garbi adierazten ze lortu nahi duten kontratu horren bidez. Orduan, kontratuaren benetako edukia zein den jakiteko, interpretazioaren mekanismoa erabili behar da. Era horretan, alderdiek nahi izan dituzten efektuak sortuko dituzte.

Interpretazioa da kontratu baten klausulen benetako esanahia desestaltzeko erabiltzen den prozedura. Bere xedea kontratua eraginkorra izatea da.

Kontratu baten klausulen benetako esanahia zein den jakiteko (alegia, alderdiek zer nahi izan zuten kontratua egin zutenean), KZk erregela interpretatzaile batzuk ezarri ditu 1281.-1289. artikuluan tartean.

Doktrinak bi oinarritzko teoria eman ditu kontratuen interpretazio eraginkor bat egiteko:

- 1) Teoria subjektiboa. Horren arabera, interpretazioaren xedea alderdien asmo komuna lortzea da. Haiek lortu nahi izan duten edukia aurkitzen saiatzen dira.
- 2) Teoria objektiboa. Interpretazioa trafikoan kontratu horri ematen zaion esanahi arruntean oinarritzen da.

Kode Zibilak teoria subjektiboa jarraitzen du, batez ere. Hasiera batean, kontratazio-unean alderdien borondate komuna aurkitzen saiatzen da. Hala ere, era osagarrian, kontuan ditu irizpide objektiboak ere (alderdi kontratatzaileen benetako asmoa argitzea posible ez denean).

Kode Zibilaren lehenengo erregela interpretatzailea KZren 1281. artikuluan jasotzen da: *Kontratuaren hitzak argiak badira eta ez badute zalantzarik sortzen kontratugileen asmoari buruz, kontuan hartuko da kontratuko klausulen hitzez-*

hitzez kotasuna. Hitzak itxuraz kontratugileen ageriko asmoaren aurkakoak badira, asmo horrek lehenespena izango du hitzen gainetik.

KZren 1282. artikulua beste irizpide bat ezartzen du: *Kontratugilearen asmoa aztertzeko, kontuan izan behar dira, batik bat, kontratua egiteko unean eta horren ondotik kontratugileok gauzaturiko egintzak.* Aurrekoak ere kontuan har daitezke.

Nahiz eta kontratu baten terminoak oso orokorrak izan, ezin dira barneratu kontratu horretan alderdiek kontratatu nahi izan ez zituzten gauza eta kasu desberdinak (KZren 1283. art.). Hau da, ezingo da inoiz kontratu bat interpretatu interesdunen asmoak aurrekusi ez zituen gauzak sartuz.

Baina kontratu baten klausulak zentzu desberdinak onartzen dituenean, efektuak sorrarazteko egokiena dena aukeratu behar da (KZren 1284. art.). Erregela horren bitartez interpretazio finalista (xede) bat egiten da, emaitza praktikoa bat lortu nahi baita. Horrela, KZren 1286. art.: *Esanahi desberdinak izan ditzaketen hitzak ulertuko dira, kontratuaren izaera eta objektuari gehien egokitutako esanahiarekin.*

Kontratu baten anbiguotasunak interpretatzeko kontuan izango dira herrialde baten usadioak eta ohiturak ere. Horiek ordezkatu dute kontratuan eskuarki ezartzen diren klausulen ez-egitea (KZren 1287. art.).

Kontratu baten klausula ilunek ezin diote onurarik egin iluntasuna sorrarazi duenari (KZren 1288. art.). Anbiguotasun edo iluntasun horren errudunak jasan behar ditu haren ondorioak.

Azkenik, KZren 1289. artikulua erregela batzuk ezarriko ditu, aurreko erregelak aplikatuz zalantzak argitu ez direnean aplika daitezkeenak: *Aurreko artikuluetan ezarritako erregelen bidez erabat ezinezkoa denean zalantzak konpontzea, eta zalantzok kontratuaren aldian aldiko inguruabarrei buruzkoak badira, eta kontratua dohainekoa bada, orduan, zalantzok konponduko dira ahalik eta eskubide eta interes gutxien eskualdatuz. Kontratua kostubidezkoa bada, zalantza argituko da interesen artean ahalik eta elkarrekikotasun handiena lortuz. Artikulu honen bidez konpondu nahi diren zalantzak kontratuaren objektu nagusiari buruzkoak badira eta, horren ondorioz, ezin bada jakin zein izan den kontratugileen asmoa edo borondatea, kontratua deuseza izango da.*

12.2.- KONTRATUA AUTOINTEGRATZEA ETA HETEROINTEGRATZEA

Kontratua integratzea hura osatzea da, epaileak legearen hutsuneak osatzen dituen gisa berean.

Osatze hori egiteko, bi prozedura daude:

Autointegratzea. Kontratuan dagoen erregela ez jakiteari aurre egiteko erantzuna kontratuan bilatzen da.

Heterointegratzea. Testuaren bidez konponbide bat lortu ezin denean, kanpoko elementuetara jotzen da: legea, usadioak eta fede ona.

12.3.- KALIFIKATZEA

Kontratua kalifikatu egin behar da; hau da, izena jarri behar zaio: salmenta; dohaintza edo errentamendua; fidantza. Ze araudi aplikatu behar den jakiteko kalifikatu behar da: aginduzkoa edo xedapenezkoa.

13.- KONTRATUAREN EFEKTUAK

13.1- EFEKTU OROKORRAK

a) Alderdientzat

Perfekzionatu den kontratu baten lehenengo efektu orokorra **derrigortzea** da, hau da, hura egin duten alderdien artean betebeharrak sortzea.

KZk kontratuen eragin nahitaezkoa aurreikusten du 1091. artikuluan: *Kontratuetatik sortzen diren betebeharrak lege-indarra dute alderdi kontratugileen artean, eta betebeharrak kontratu horien arabera bete behar dira.* Manamendu horretatik eratortzen da kontratua legea dela. Beraz, bere indar loteslea maximoa da. Gainera, KZren 1258.2 artikulua dioen bezala, gauzatzen direnetik: *bete beharrekoak dira, bai beren beregi itundutakoa betetzeari begira, baita, kontratuaren izaeraren arabera, fede on, usadio eta legearekin bat datozen ondorio guztiei begira ere.*

Kontratuak ez dauka legeak duen orokortasunik (ez du behartzen gizarte osoa). Hala ere, alderdien artean legearen eragin bera dauka. Alderdiak, haien burua kontratuaren «lege»aren menpe jartzen duten unetik, ezin dira lotura horretatik aldebakarki askatu. KZren 1256. art.: *Kontratuen baliozkotasuna eta betetzea ezin dira kontratugile baten nahiera utzi.* Manamendu horrek kontratuaren **errebokaezintasun eta aldaezintasun printzipioa** ezartzen du; oro har, alderdi batek, bestearekin ados jarri gabe, ezin du baztertu era baliagarrian egin den kontratua, ezta kontratu horretaz damutu ere. Horregatik, erregela orokorra da kontratuak errebokaezinak eta aldaezinak direla. Kontrako kasuan, hau da, kontratuaren baliotasuna edo eragina alderdi baten esku utziko balitz, hura ahuldu egingo litzateke (betebeharrak jaiotzea eta iraungitzea). Jadanik egin den kontratua suntsi

dezakeen borondate bakarra alderdien borondate komuna da (elkarren artean desadostea). Hala ere, salbuespenezko kasuak daude. Legeak kasu batzuetan alderdi bati, bestearen adostasunik gabe, kontratuaren eragina geldiarazteko ahalmena ematen dio. Kasu horietan, ***denuntzia aldebakarreko borondate bidez*** hitz egiten da.

Ikusi dugunez, KZren 1091. artikulua lege-indarra esleitzen die kontratutik sortzen diren betebeharrei. Lege-indarra dute, baina bakarrik alderdien artean. KZren 1257.1 artikulua izaera bera aurreikusten du, kontratuen erlatibotasun-printzipioa ezarriz: *Kontratuek ondoreak sortzen dituzte, eurok egiten dituzten alderdien artean eta euren jaraunsleen artean, salbu eta, azken horiei dagokienez, kontratutik ateratzen diren eskubide eta betebeharrak eskualdaezinak direnean berez, itun bidez edo lege-aginduz.*

Kontratuen erlatibotasun-printzipiotik eratortzen da hirugarrenak (kontratuan parte ez diren pertsonak) ezin direla agertu behartu gisa, arrotzak baitira kontratuzko harremanarentzat. Jaraunsleak kontratuaren alderdi bilakatuko dira, kontratuaren titularra zen hildakoaren eskubideak eta betebeharrak oinordetzan hartzen dituztenean. Jaraunsleek beteko dute kausatzailearen lekua.

b) Hirugarrenentzat. Hirugarren aldeko kontratua

Ikusi dugunez, kontratuen erlatibotasun-printzipioak kontratuak hirugarrenei eragitea galarazten du. Hala ere, KZren 1257. artikulua zera xedatzen du: *Hirugarrenaren aldeko estipulazio edo klausularen bat daukan kontratua, hirugarrenak horren betetzea eska dezake, baldin eta, hizpaketa ezeztatua izan aurretik, betebeharrekoari adierazten badio hori onartzen duela.* Orduan, arau horrek salbuespena ezartzen du. Kasu batzuetan, kontratuak alderdientzat eta jaraunsleentzat efektuak sortzeaz gainera, hirugarrenentzat ere sortzen ditu.

Hirugarrenen aldeko kontratuan subjektu hauek bereiz daitezke:

- 1) Promesa egiten duena: behartuta dagoen alderdia.
- 2) Hitzarlea: onura hitzartzen duena.
- 3) Onuraduna: prestazioa eska dezakeena.

Promesa egiten duenak eta hitzarleak kontratuak eskatzen duen gaitasuna izan beharko dute. Aldiz, ez da beharrezkoa onuradunak jarduteko gaitasuna izaterik; ezta kontratua egiten den unean existitzerik ere (*nasciturusa* izan daiteke; hau da, sortua, baina jaio gabe dagoena).

Hirugarrenak onartzea ez da kontratua perfektionatzeko betekizuna. Hala ere, beharrezkoa da kontratuak hirugarrenaren alde efektuak sortzeko onartzea. Onuradunak kreditu-eskubide bat dauka. Beraz, hura betetzeko eska dezake, baina beharrezkoa da haren alde aurreikusi den onura onartzea. Onartzea esanbidezkoa edo isilekoa izan daiteke, baina beti hartzigarria (eragina sortuko du promesa egin duenak ezagutzen duenean).

11. IKASGAIA

KONTRATUAK BEREZIKI

AURKIBIDEA. 1. Salerosketa-kontratua. 1.1.- Kontzeptua. Salerosketa zibila eta merkataritzakoa. 1.2.- Elementuak. 1.3.- Saltzailearen betebeharrak. 1.4.- Eroslearen betebeharrak. 1.5.- Kontratuaren dinamika. 2. Trukea. 3. Dohaintza-kontratua. 3.1.- Kontzeptua eta izaera. 3.2.-

Dohaintza motak. 3.3.- Elementuak. 3.4.- Efektuak. 3.5.- Dohaintza errebokatzea. 4.- Errentamendu-kontratua. 4.1.- Kontzeptua eta ezaugarriak. 4.2.- Motak. 4.3.- Gauzen errentamendua. 4.4.- Hiri-errentamendua. 4.5.- Landa-errentamendua. 5.- Sozietate-kontratua. 5.1.- Kontzeptua. 5.2.- Motak. 5.3.- Eratzea. 5.4.- Edukia. 5.5.- Sozietatea administratzea. 5.6.- Iraungitzea eta kitatzea. 6.- Beste kontratuak. 6.1. Obra-kontratua. 6.2. Zerbitzu-kontratua. 6.3. Mandatu-kontratua. 6.4. Artekiritza-kontratua. 6.5. Mailegu-kontratua. 6.6. Gordailu-kontratua. 6.7. Fidantza-kontratua. 6.8. Transakzioa. 6.9. Arbitrajea. 6.10. Beste kontratu tipiko batzuk.

1.- SALEROSKETA-KONTRATUA

1.- Kontzeptua. Salerosketa zibila eta merkataritzakoa

Salerosketa-kontratua da trafiko ekonomikoan eta juridikoan sarriena eman eta garrantzirik gehiena duen kontratua, ondasunen gaineko jabetza-eskubidea diruaren truk eskuz aldatzeko diseinatutako instrumentu juridikoa baita. Kode Zibilak modurik zabalenean arautzen duen kontratua da eta, horregatik, beste askoren eredu ere bada.

Legeak honela definitzen du: *Salerosketa-kontratuaren bidez, kontratugile batek bere gain hartzen du gauza zehatza emateko betebeharra, eta besteak, gauza horren truk prezio zehatza ordaintzeko betebeharra, diruz edo dirua ordezkatzeko duen zehinuaren bidez* (KZren 1445. art.).

Salerosketa-kontratuaren ezaugarriak, berriz, hauek dira:

- (1) **Adostasunezkoa.** Adostasuna nahikoa da kontratua sortzeko; beraz, gauza edo dirua entregatzea ez da beharrezkoa: *salmenta saltzailearen eta eroslearen artean burutuko da, eta bi-biontzat bete beharrezkoa izango da, baldin eta kontratuaren objektu den gauza eta horren prezioa hitzartu bada, bata eta bestea oraindik eman gabe egon arren* (KZren 1450. art.).
- (2) **Betebeharrezkoa. Betebeharrak sorrarazten ditu,** gutxienez, gauza ematekoa bata eta prezioa ematekoa bestea. Beraz, emateko betebeharrak besterik ez dira sortzen eta ez da gauzaren gaineko jabetza-eskubidea berehala eskualdatzen.
- (3) **Aldebikoa.** Kontratuko bi alderdientzat betebeharrak sorrarazten ditu. Betebehar horiek elkarkariak dira berez.
- (4) **Kostubidezkoa.** Alderdi biek dituzte kontraprestazioak.
- (5) **Trukakorra.** Alderdi bakoitzak bere betebeharra bereganatzen du, bestea kontuan harturik.

2.- Elementuak

- (1) **Subjektuak** saltzailea eta eroslea dira. Betebehar batean saltzaileak gauza emateko betebeharra du, eta bestean erosleak prezioa ordaintzekoa. Kontratua egiteko, jarduteko gaitasuna eskatzen da: *salerosketa-kontratua egin dezakete kode honen*

arabera betebeharrak hartu abal dituzten pertsona guztiek, hurrengo artikuluetan jasotako aldarazpenei kalterik egin gabe (KZren 1457. art.).

Legezko debeku bereziak ere ezartzen ditu legeak, baina erosteko debeku zehatzak dira. Horrela, tutoretza-kargua duenak ezingo du bere tutoretzapean dagoenaren ondasunik erosi; mandatu-hartzaileak ezingo du erosi administratzen duen ondasunik; albazeak ere ez bere kargura duen ondasunik. Eta debeku bera izango dute: enplegatu publikoak eta funtzionarioak, beren kargura duten ondasunarekiko; Justizia Administrazioako agintariak eta funtzionarioak, abokatuak eta prokuradoreak gatazkan duten ondasunarekiko (KZren 1459. art.).

(2) **Objektua.** Salmentan eman eta eros daitekeen gauza edozein motatakoa izan daiteke, eskubideak barne direla, kontuan hartuta beti objektuaren betekizunak: posible izatea, zilegi izatea, eta zehatza edo zehazgarria izatea.

Objektua bera irizpidetzat hartuz, salerosketa berezi hauek ere egin daitezke: etorkizuneko gauzen salerosketa eta beste norbaitena den gauzaren salerosketa.

Prezioari edo salneurriari buruz, zera dio legeak: *gauza horren truk prezio zehatza edo dirua ordezkatzeko duen zainua ordaintzea* (KZren 1445. art.). Beraz, nahitaezko betekizuna da: (a) diru kopurua izatea edo hura ordeztzen duen ikurra (merkataritza-agiria, txekoa, kanbio-letra, eta abar); (b) ezaguna izatea, hau da, existitzea (simulaziorik edo itxurarik gabe); (c) zehaztuta egotea eta ez uztea kontratatzaile baten erabakiaren menpe, hau da, alde aurretik ezarri behar da (KZren 1449. art.).

(3) **Forma.** Salerosketa-kontratua baliozkoa da, edozein dela ere egiteko forma (KZren 1278. art.). Hala ere, gogoan izan printzipio orokorrak badituela salbuespenak (KZren 1280. art.).

(4) **Sortzea.** Salerosketa-kontratua adostasunarekin sortzen da. Beste kontu bat da, gero, betebeharrak betetzea eta, orduan, gauza eta prezioa ematearekin jabetza-eskubidea eskuratzea.

3.- Saltzailearen betebeharrak

Saltzaileak bi betebehar nagusi bete behar ditu: *saltzailearen betebeharra da salmentaren objektu den gauza eman eta horren saneamendua egitea* (KZren 1461. art.).

(1) **Gauza ematea** da saltzailearen lehen betebeharra: *saldutako gauza eman dela ulertuko da, gauza hori eroslearen esku eta horren edukitzeapean jartzen denean* (KZren 1461. art.).

Lehenik, zer eman behar den zehaztu behar da: batetik, gauza bera kontratua sortu zen unean zegoen egoeran eta, bestetik, gauzaren fruituak: *fruituak erosleari*

dagozkio, kontratua burutu zen egunetik, nabiz eta oraindik jabea ez izan. Gauza ematen denean, jabe bilakatuko da (KZren 1468. art.).

Gainera, saldu den gauza emateko (KZren 1465. art.) eta eskritura publikoa egiteak sortutako (KZren 1455. art.) gastuak, saltzailearen kontura izango dira. Halaber, saltzaileak erosleari gauzaren edo eskubidearen tituluak eman behar dizkio. Betebehar horiek izango ditu saltzaileak, beti ere, kontrakorik hitzartu ez bada (oso ohikoa da azken hori ere).

(2) Bigarrena, **saneatzeko betebeharra** da: *saltzaileak erosleari begira erantzukizuna izango du: saldutako gauzaren edukitza legezko eta baketsuaren gainean eta gauza horrek dituen ezkutuko akats edo hutsen gainean (KZren 1474. art.);* beraz, gauzaren egoerari dagokionez, bikoitza da saneatzeko betebeharra:

(a) **Ebikzioaren erantzukizuna hartzea.** Hau da, jabetza-eskubidea galtzea epai baten ondorioz: *ebikzioa gertatuko da, erosleari kentzen zaionean, epai irmoaren bidez eta erosketaren aurreko eskubide baten ondorioz, berak erositako gauza osoa edo horren zati bat (KZren 1475. art.).* Hiru betekizun eskatzen dira: epai bidez gauza galtzea, eskubidea salmenta baino lehenagokoa izatea, eta demanda saltzaileari jakinaraztea. Ebikzio osoz edo partzialez erantzungo du saltzaileak.

Saneatzeko betebeharraren edukia hori da: saldutako gauzak ebikzio-unean zuen prezioa itzultzea; fruitu guztiak ere bai; eta fede gaiztorik egon bada, kalteak eta galerak ere bai (KZren 1478. art.).

Ebikzioz erantzun beharra alderdien artean molda daiteke; alegia, handitu, txikitu edo ezabatu akordioaren arabera (KZren 1475. art.). Hala ere, saltzailea erantzukizun horretaz askatzeko ituna deuseza da, fede gaiztoz jardungo duen kasurako aurreikusten bada (KZren 1476. art.).

(b) **Ezkutuko akatsen erantzukizuna hartzea.** *Saltzaileak betebeharra du saldutako gauzaren ezkutuko akatsak saneatzeko (KZren 1478. art.).* Akatsak, betekizun gisa, ezkutukoa izatea eskatzen du, gauzaren akatsa bistara ez egotea, alegia; beraz, bistakoa bada, saltzaileak ez du erantzun beharrik. Hala eta guztiz ere, eroslea aditua bada edo bere lanagatik ikusten ez diren akatsak berehala antzeman beharko balitu, orduan ere ez du erantzungo saltzaileak.

Akatsak, berez, izan behar du: hitzartu zen erabilerarako gauza desegoki bihurtzen duena (KZren 1484. art.), edo erabilera hori asko gutxitzen duena; hainbestearino ezen erosleak jakin izan balu ez baitzukeen erosiko edo gutxiago ordainduko baitzukeen.

Ezkutuko akatsik egonez gero, erosleak aukera horiek ditu: kontratua uztea, bakoitzak gauza eta prezioa itzuliz; salneurria jaisteko eskatzea, akatsaren proportzian; saltzaileak akatsak ezagutzen bazituen eta ez bazizkion erosleari adierazi, kalte-galeren ordaina eskatzea. Akzio horiek eskatzeko epea sei hilabetekoa da, gauza eman zitzaionetik kontatzen hasita (KZren 1490. art.).

Araudi horretaz gainera, eroslea kontsumitzailea bada, bi urteko bermea izango du hark legez.

4.- Eroslearen betebeharrak

Erosleak *salneurria ordaintzea* izango du betebehar nagusi: *erosleak betebeharra izango du, prezioa ordaintzeko* (KZren 1500. art.). Betebehar horretaz gainera, ordaindu egin beharko ditu saldu den gauzaren garraioak sortutako gastuak, eskrituraren lehenengo kopiaren gastuak, eta Jabetza Erregistroan inskribatzeko gastuak, beti ere, kontrakorik hitzartu ez bada behintzat.

5.- Kontratuaren dinamika

(1) Arriskuak salerosketan

Kontratua egin eta gero, saldutakoa emateko betebeharra dago, baina eman bitartean gerta liteke gauza galtzea edo hark narriadurak jasatea. Kasu horretan, erabaki behar da nork hartzen duen bere gain galera edo narriadura horren arriskua.

Hasteko, kontuan izan behar da sortutako betebehar nagusiak elkarkariak direla eta, ondorioz, norbaitek bere betebeharra ez badu betetzen, besteak bere betebeharra suntsiarazteko eska dezakeela; hartara, ez du izango betebeharra bete beharrik (KZren 1124. art.).

Baina, salerosketa-kontratuan bada arau berezirik (KZren 1452. art). Hain zuzen ere, erosleak jasaten ditu kontratua emateko betebeharraren arriskuak. Ondorioz, salerosketa egin eta gero, eroslearen kontua da arretaz jardun duen saltzailearen eskuetan dagoen gauzaren berehalako galera; horrek esan nahi du, gauza jaso ez arren, prezioa ordaindu beharko duela erosleak, salneurria entregatzeko betebeharrak bizirik jarraitzen baitu. Noski, legeak agindu hori ezartzen du, galera saltzailearen errurik gabe gertatzen den kasuetarako.

(2) Salerosketa bereziak

(a) Eskubidea saltzea (eskubidea lagatzea), esaterako, jabetza industrialak edo intelektuala ustiatzeko eskubideak.

(b) Enkante publikoz egindako salmenta: objektuen salmenta publikoa, preziorik altuena ordaintzen duenari.

(c) Probatzeko edo entseatzeko salmenta: baldintzapean saltzen da, hau da, erosleari gustatzen zaion ala ez (KZren 1453. art.).

(d) Nahitaez desjabetzea: interes orokorrak direla eta, agintari publikoak partikularri gauzaren gaineko jabetza-eskubidea kentzea, bidezko prezioa ordainduz.

(3) Salerosketako itunak

Kontratatzaileek salerosketa-kontratura gehi ditzaketen klausulak anitz dira, eta xedetzat dute salerosketaren efektuak aldatzea, baldintzak gehitzea, bermeak ezartzea eta abar.

(a) Atzera erosteko ituna (*pacto de retroventa*): saltzaileak, saldu den gauza berriro eskuratzeko eskubidea erreserbatzen du (KZren 1507. art.).

(b) Itun komisorioa: epe bat ezarri eta epe hori agortzean salneurria ez bada ordaintzen, kontratua suntsitu egingo da; ondorioz, gauza itzuli egin beharko du erosleak.

(c) Jabetza erreserbatzeko ituna (*pacto de reserva de dominio*): saltzaileak jabea izaten jarraitzen du (ez du jabetza eskualdatzen), erosleak atzeratu den prezioa osorik ordaindu arte.

(d) Erosle onenaren aldeko ituna (*pacto al mejor comprador; additio in diem*): epe bat ezarri eta, iragan bitartean, saltzaileak baldintza hobeak eskaintzen dizkion besteren bat aurkitzen badu, salerosketa suntsitzeko ahalmena izango du.

(4) Salerosketa bikoitza

Salerosketa bikoitza izango da jabeak gauza bera, aldi berean, bi pertsoneri saltzen badie (KZren 1473. art.). Orduan, erabaki behar da zein eroslek eskuratuko duen gauzaren gaineko jabetza-eskubidea eta nork ez.

(a) Ondasuna berez higigarria bada, fede onez gauzaren edukitza jaso duena bihurtuko da jabe.

(b) Ondasuna berez higiezina bada, hurrenkera horretan: Jabetza Erregistroan lehenik inskribatzen dena; inskripziorik ez badago, gauzaren edukitza lehenik eskuratu duena; bi horien ezean, titulurik zaharrena duena.

Kasu guztietan, noski, kontuan izango dira fede onez edo gaiztoz jardun duten salerosketan anitzetan parte hartu dutenak, fede gaiztoz jokatu duena ezin baita inoiz babestu.

2.- TRUKEA

1.- Kontzeptua

Oinarrian, salerosketa bat da; edo, alderantziz, salerosketa-truke mota bat. Bietan, gauzak aldatu edo trukatu egiten dituzte bi alderdik; gertatzen dena da salerosketan alderdi batek beti dirua emateko betebeharra duela, eta besteak beste zerbait. Gainerako kasu guztietan egongo da trukea.

Legeak honela definitzen du: *truke-kontratua da, eta, horren bidez, kontratugileetako batek bere gain hartzen du gauza bat emateko betebeharra, beste bat jasotzeko (KZren 1538. art.).*

Salerosketarekin duen antzagatik, arauketa urria dago hari buruz:

(a) Batetik, suntsitzeari buruzko araua. *Kontratugileetako batek jasotzen badu trukean berari hitzeman zaien gauza, eta egiaztatzen badu gauza hori ez dela nork eman eta pertsona horrena, ezin da kontratugilea behartu berak trukean eskaini zuzena ematera; eta nabiko izango du berak jaso zuzena itzultzearekin (KZren 1539. art.).*

(b) Bestetik, ebikzioari buruzkoa. *Norbaitek ebikzioaren ondorioz galtzen badu trukean jasotako gauza, aukeran du berak trukean eman zuzena berreskuratu edo kalte-galeren ordaina erreklamatzera; baina berak eman zuzen gauza berreskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du, gauza hori oraindik beste trukagilearen eskuetan badago bakarrik, betiere bien bitartean gauza horren gain hirugarrenak fede onez eskuratzen dituen eskubideei kalterik egin gabe (KZren 1540. art.).*

(c) Gainerakoan, salerosketari buruzko arauak aplikatuko dira: *Titulu honetan arautzen ez diren gaietan, trukea arautuko dute salmentari buruzko xedapenek (KZren 1541. art.).*

Gerta liteke nahastuta ere agertzea: *Salmenta-prezioaren zati bat dirua bada eta gainerakoa beste gauza bat, kontratua kalifikatuko da kontratugileen ageriko asmoaren arabera. Asmo hori agerrarazten ez bada, kontratua truketzat hartuko da, baldin eta prezio-zatiaren truk emandako gauzaren balioak gainditzen badu diruaren balioa edo horren baliokidearena; bestela, kontratua salmentatzat hartuko da (KZren 1466. art.).*

2.- Ezaugarriak

Berez da adostasunezkoa, aldebikoa, kostubidezkoa, betebeharezkoa edo jabetza eskualdatzen duena.

3.- Edukia

Alderdien betebeharrei dagokienez, alderdi bientzat berdinak dira, biak behartzen baitira besteari gauza bat ematera. Gainerakoan, salerosketarentzat ezarritakoa aplikatuko da, beti ere, bateragarria bada.

3.- DOHAINTZA-KONTRATUA

1.- Kontzeptua eta izaera

Legeak modu honetan definitzen du dohaintza: *dohaintza esku zabaltasun-egintza da, eta, horren bitartez, norbaitek beste inoren mesederako gauza dohainik xedatzen du, eta azken horrek onartu* (KZren 618. art.).

Berez kontratua da, baina aldebakarrekoa; hau da, betebeharrak nagusi bat sorrarazten du alderdi batentzat bakarrik. Kontratu guztiek bezala, bi alderdien borondatea behar du baliozkoa izateko —eskaintza eta onartzea—. Beraz, bi subjektu daude: dohaintza-emailea, dohako liberaltasun egintza egiten duena; eta dohaintza-hartzailea, dohaintza jasotzea onartzen duena.

2.- Dohaintza motak

(1) *Bizidunen artekoa edo hiltzearen ondoriozko dohaintza* (*inter vivos* eta *mortis causa*). Bereizketa hori egiteko, kontuan hartzen da zeinen artean sorraraziko dituen bere efektuak; hau da, bizirik dauden pertsonen artean edo horietako bat hiltzen denean. Lehenengoa da benetakoa dohaintza; bigarrena, aldiz, oinordetzaren eremuan sartzen da: *dohaintzek dohaintza-emailea hildakoan sortu behar badituzte ondoreak, azken nahiaren xedapenen izaera dute, eta testamentuzko oinordetzari buruz ezarritako erregelak aplikatzen zaizkie* (KZren 620. art.).

(2) *Dohaintza modala eta saritzekoa:*

(a) Modalean, dohaintza-hartzaileari bete beharreko zama ezartzen zaio (prestazio bat betetzea). Dohaintza horri muga bereziak ezartzen zaizkio, eta hainbat betebeharrak eskatzen dohaintza-hartzaileak onartu ahal izateko (KZren 625. art.). Halaber, erregela bereziak ezartzen dira zama betetzen ez denerako.

(b) Saritzeko egiten den dohaintza (*remuneratorio*): norbaiti bere merituengatik (saria ematea, besterik gabe) edo dohaintza-emaileari egindako zerbitzuagatik (beti ere, ez badira zor eskagarriak) egiten zaion dohaintza da.

3.- Elementuak

(1) *Dohaintzan parte hartzen duten subjektuak dira:*

(a) *Dohaintza-emailea*: ondasun baten gaineko jabetza-eskubidea eskualdatzen du eta, beraz, haren ondarea gutxitzen.

(b) *Dohaintza-hartzailea*: dohaintzan emandako gauza onartzen du eta bere ondarea aberasten, horren truk ezer eman gabe.

Gaitasunari buruz, berriz:

(a) Dohaintza-emailea. *Dohaintzak egin ditzakete kontratuak egin eta norberaren ondasunak xedatu abal ditzuztenek* (KZren 624. art.). Ordezkarien bitartez ere egin daiteke.

(b) Dohaintza-hartzailea. Onartzeko, nahikoa izango du gaitasun juridikoa. Dohaintza onar dezake horretarako ezgaitua ez dagoen orok (KZren 625. art.). Onartzeko eskatzen den bakarra zera da: jakiteko, ulertzeko eta nahi izateko gaitasuna. Gaitasun hori ez balu, ordezkariak onartuko du haren ordezkari (KZren 626. art.). Jaiotzeko dagoena ere izan daiteke dohaintza-hartzailea.

(2) **Errealak.** Dohaintzan eman daitezke gauzak nahiz eskubideak. Eskubideak kredituzkoak edo errealak izan daitezke: *dohaintzaren barruan sar daitezke dohaintza-emailearen oraingo ondasun guztiak* (KZren 634. art.).

Hala ere, muga horiek errespetatu behar dira: etorkizuneko ondasunak ezin dira eman; eta dohaintza egiteko momentuan, dohaintza-emaileak xeda ez ditzakeen ondasunak ere ez. Horri dagokionez: *dohaintzaren bidez ezin du inork jaso edo eman jarauntsiaren bidez eman edo jaso dezakeena baino gehiago. Dohaintza ez-ofiziosoa izango da neurri horretatik gorakoa den heinean* (KZren 636. art.). Horrekin, nahitaezko oinordetza babesten da; seniparteak, alegia.

(3) **Formalak.** Dohaintza, kontratu formala da.

(a) Dohaintzan ematen den ondasuna higigarria bada eta ahoz egiten bada, nahitaezkoa da berehala ematea (KZren 632. art.). Ez bada ematen, beharrezkoa da idatziz egitea, onartzea jasoz (KZren 632. art.).

(b) Ondasun higiezinentzat, eskritura publikoa egitea eskatzen da (KZren 633. art.).

Dohaintza-kontratua sortzen da, dohaintza-emaileak dohaintza-hartzailearen onartzearen berri jakiten duenetik.

4.- Efektuak

(1) Dohaintza-emailearen betebeharra: ***agindutakoaren jabetza-eskubidea eskualdatzea.***

(2) Dohaintza-hartzailearen betebeharra: ***betebehar nagusirik ez dauka***, kontratua aldebakarrekoa eta doakoa baita. Dohaintza modala bada —zamaduna—, bete egin beharko du hartzaileak. Ez badu betetzen, dohaintza errebokatzeko kausa egongo litzateke.

5.- Dohaintza errebokatzea

Berez, dohaintza errebokaezina da. Hau da, egin eta gero ezin da efekturik gabe utzi dohaintza-emailearen borondatez, ezin baita damutu. Hala ere, legeak

jasotzen dituen kausak ageri badira, ezeztatu ahal izango da (KZren 644. art. eta hurrengoak):

(a) **Dohaintza-emaileak, dohaintza eginez gero, umea izatea, nahiz eta hil ostekoa izan.** Edo dohaintza egin zenean hiltzat jo zen umea bizirik azaltzea. Dohaintza errebokatzeak akzioak bost urte iraungo du (KZren 646. art.), eta ume berria izan zuenetik edo hiltzat jotzen zena bizirik zegoela jakin zenetik kontatuko da.

(b) **Modua ez betetzeagatik.** *Dohaintza-hartzaileak ez duenean bete hark berari ezarri dizkion baldintzetatik bat* (KZren 647. art.).

(c) **Esker txarragatik.** Dohaintza-hartzaileak, dohaintza-emailearen beraren, haren ohorearen edo haren ondasunen kontra deliturik gauzatzen badu. Halaber, mantenua ukatzen badio ere ezeztatu ahal izango du dohaintza (KZren 648.1, 2 eta 3 art.).

4.- ERRENTAMENDU-KONTRATUA

1.- Kontzeptua eta ezaugarriak

Kode Zibilak, errentamendu-kontratu esapide orokorrean, hiru kontratu desberdin hartzen ditu: gauzen errentamendua, obra-errentamendua eta zerbitzu-errentamendua (KZren 1.542 art. eta hurrengoak). Aukera horiek direla eta, errentamendu-kontratuaren definizio orokor hau eman daiteke: errentamendu-kontratuaren arabera, alderdi batek, prezioa jasotzearen truk, betebeharrak hartzen du bestearen alde denboraldi batean: gauzaz gozatzea (gauza-errentamendua), zerbitzua eskaintzea (zerbitzu-errentamendua), edo obra jakin bat aurrera eramatea bere kontura (obra-errentamendua).

2.- Motak

(1) Gauza-errentamenduei buruz Kode Zibilak jasotzen duen araudia ez da bakarra. Ondasun higiezinaren errentamendua, partikularren praktikan ohikoena, lege berezi bidez arautzen da: hiri-errentamenduei buruzko legea eta landa-errentamenduei buruzko legea (gero azalduko ditugu).

(2) Zerbitzu-errentamenduari dagokionez, berriz, Kode Zibilak aipatzen ditu morroien eta soldatapean lan egiten dutenen zerbitzuak (KZren 1583.-1587. art.); baina araudi hori materialki derogatuta dago, egun soldatapeko langileek eskaintzen dituzten zerbitzuen eraientza Lan Zuzenbidean topatzen baita. Hain zuzen ere, Langileen Estatutua (*Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores*) eta haren xedapen gehigarriak. Aldiz, profesio liberalen zerbitzuak (medikuak, abokatuak, ekonomistak eta abar), oraindik ere, zerbitzu-errentamenduei buruzko arauen menpe geratuko dira.

(3) Obra-errentamenduaren kontratua errentamendu-kontratuaren eskematik kanpo gelditzen da. Hala ere, ikasgai honetan, hiru mota horiek ikusiko dira.

3.- Gauzen errentamendua

3.1.- Kontzeptua

Legeak ematen du kontzeptua: *Gauzen errentamenduan, alderdietako batek bere gain hartzen du besteari gauzaren gozatzera edo erabilera emateko betebeharra, epe zehatzetarako eta prezio jakinaren truke* (KZren 1543. art.).

3.2.- Ezaugarriak

(a) **Adostasunezkoa**: sortzeko nahikoa baita alderdien adostasun hutsa; ez da beharrezkoa gauzarik ematea.

(b) **Kostubidezkoa**: erabileraren truke, prezio ezaguna ordaindu behar da.

(c) **Aldebikoa**: alderdi bientzat eratzen dira betebeharrak, berez elkarkariak.

(d) **Denboraz mugatua**: iraupena aldi baterako da (KZren 1543. art.).

(e) **Trukakorra**: alderdi bakoitzaren betebeharra bestearen kontraprestazioa da.

3.3.- Elementuak

(a) **Pertsonalak**. Errentatzaileak, gauza emateko betebeharra hartzen du, baina ez jabetza-eskubidea eskualdatzeko, gauzaren erabilera eta gozamenerako baizik; beraz, gozatzeko eskubidea duenak ahalmen hori laga diezaioke beste norbaiti. Betebehar horretaz gainera, errentamenduan eman den gauzaren gozamen baketsua ahalbideratzeko betebeharra du. Maizterrak, berriz, hitzartutako prezioa ordaintzeko betebeharra hartzen du. Errentan zerbait ematea administrazioko egintza denez, kontratatzeko eskatzen den jarduteko gaitasun orokorra behar da.

(b) **Errealak**. Errentamenduaren objektu izan daiteke edozein gauza (gorpuzduna edo gorpuzgabea, edo eskubideak), beti ere gauza kontsumiezina bada: *erabileraren erabileraz kontsumitzen diren ondasun suntsikorrak ezin dira kontratu honen gai izan* (KZren 1545. art.). Beste oinarrizko elementua prezioa da: zehaztua edo, gutxienez, zehazgarria (KZren 1543. art.). Gainera, prezioa aldizka ordaindu behar da (egunak, hilabeteak, urteak, hitzartu denaren arabera) eta behin batean (KZren 1581. art.).

(c) **Formala**. Baliozkoa izango da, edozein formaz sortu dela ere. Dena den, badira salbuespenak, lege berezietan eta Kode Zibilean: *agiri publikoan agerrarazi behar*ko dira: *ondasun higiezinaren gaineko errentamenduak, horiek sei urtekoak edo hortik gorakoak badira eta hirugarrenari kalte egin behar badiote* (KZren 1280.2 art.); *ondasun higiezinaren*

errentamenduek ez dute ondorerik izango, ez badaude behar bezala inskribatuta Jabetza Erregistroan (KZren 1549. art.).

3.4.- Edukia

(a) Errentatzailearen betebeharrak hauek dira:

(a') Maizterrari gauza ematea.

(b') Beharrezko konponketak egitea, gauza egokia izan dadin hitzartzen den erabilerarako.

(c') Maizterrari bermatzea errentamenduaren gozamen baketsua, eta gozamen hori ekidin dezaketen gintzak ez gauzatzea (KZren 1544. art.).

(d') Ezin du aldatu errentamenduan eman den gauzaren forma (KZren 1557. art.).

(b) Maizterraren betebeharrak hauek dira:

(a') Errentamenduaren prezioa ordaintzea, hitzartu den terminoetan.

(b') Gauza erabiltzea familiako guraso on baten arretarekin. Erabili ere, hitzartu den erabilerarako (esaterako, ez utzi erabili gabe; lurra lugorri, industria ustiatu gabe, etab.), eta gauzaren xedea aldatu gabe.

(c') Kontratua eskrituran jasotzeak sorraraz ditzakeen gastuak ordaintzea.

(d') Jabeari berehala jakinaraztea gauzaren edozein usurpazio edo horrek izan dezakeen edozein kalte. Halaber, gauzak behar duen edozein konponketaren berri ematea.

(e') Konponketa nahitaezkoak edo larriak jasatea, nahiz eta konponketek asko molestatu.

(f') Errentamendua amaitzen denean, gauza jaso zuen egoera berean itzultzea. Betebehar hori zuzen beteko dela bermatzeko eskatzen da, eskuarki, diru kopurua bahituran ematea fidantza moduan.

Betebeharrak ez badira betetzen, beste alderdiak kontratua desegitea eska dezake, eta kalte-galeren ordaina ere bai. Hala ere, aukeratzeko ahalmena du: kalte-galeren ordaina eskatu edo kontratuarekin jarraitu.

Maizterrak, bere erruagatik gauzak narriadurarik jasan izan badu edo galdu bada, erantzun egin beharko du (KZren 1563. art.). Bestalde, errentatzaileak gauzak dituen akatsen erantzukizuna hartzen du, saneatzeko betebeharra baitu.

3.5.- Iraungitzea

Kontratu oro iraungitzeko dauden kausa orokorrez gainera, errentamendua iraungitzeko kausarik normalena zera da: *errentamendua epe zehatz baterako egiten bada, aurretiaz finkatutako egunean amaituko da, agindeiaren beharrik gabe* (KZren 1565. art.).

Dena den, denbora iragaiteak bakarrik ez du berez harreman juridikoa suntsitzen, posible baita isilbidez luzatzea (*tácita reconducción*): kontratua amaitzen denean, maizterrak, errentatzailearen onarpenarekin, ondorengo hamabost egunetan gauzaz gozaten jarraitzen badu, beste errentamendu-kontratu bat sortuko da (KZren 1566. art.).

Kontratua amaitu eta gero, maizterrak gauza itzultzeko betebeharra ez badu betetzen, hura *kaleratzeko (desahucio)* eska dezake errentatzaileak. Horretarako legea bitartekoa edo akzioa da, maizter zena behartu ahal izateko ondasuna uztera edo itzultzera. Hala eta guztiz ere, bitarteko hori erabili ahal izango da betekizun hauek betetzen badira (KZren 1569. art.): (a) kontratua iraungita egotea, errentamenduaren epea jadanik agortu delako; (b) hitzartutako errenta ez ordaintzea; (c) kontratuak ezarri dituen baldintzak ez betetzea; (d) errentamenduan eman zaion gauza hitzartu ez diren erabileretarako edo zerbitzuetarako erabiltzea.

3.6.- Azpierrementamendua

Maizterrak gauzaz gozatzeko ahalmena du; horregatik, ahalmen hori beste hirugarren bati ere laga diezaioke errenta baten truk; horri deritzo azpierrementamendua. Horrela, bigarren kontratu horretan —azpierrementamendua—, maizterra errentatzaile bihurtzen da eta hirugarrena maizter. Noski, hasierako errentamendu-kontratu nagusiak bizirik jarraitzen du, eta kontratu horretako maizterrak bere betebeharrak betetzen jarraitu beharko du.

Azpierrementamendua bidezkoa izateko, beharrezkoa da hasierako kontratuko errentatzailearen aipatze bidezko eta idatziz emandako baimena izatea.

4.- Hiri-errentamendua

Kode Zibilak hiru artikulua eskaintzen dizkio hiri-finken errentamenduari. Artikulu horietan xedapen bereziak ezartzen ditu balizko konponketak arautzeko eta kontratuaren iraupena zehazteko. Beraz, araudi urria aurreikusitako zen bere garaian eta, gerora, lege bereziak emanez osatu izan da.

Gerra Zibilaren ondoren sortu zen etxebizitza-premiak errentak igotzea ekarri zuen eta, horregatik, agintariek neurriak hartu zituzten jendea ez kaleratzeko: errentak izoztu, iraupena luzatu eta xedapen bereziak ezarri errentamenduak arautzeko maizterren alde. Araudia lege honetan bildu zen: *Decreto 4104/1964, de 24 de diciembre 1964, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Arrendamientos Urbanos*. Lege hori oraindik ere indarrean dago bere babespean egindako kontratuek bizirik irauten duten heinean.

Geroago, Konstituzioak etxebizitza izateko eskubidea aitortu ostean eta hiri-errentamenduak bultzatzeko asmoz, ezizenez *Decreto Boyer* gisa ezagutzen den

araua ezarri zen: *Real Decreto Legislativo 2/1985, de 30 de abril, sobre medidas de política económica*. Dekretu horrek, nahitaezko luzatzea ezabatu eta legezko errentak berrikustea onartu zuen; araudi hori ere oraindik indarrean dago, bere babespean egindako kontratuak bizirik irauten duten bitartean.

Egun, berriz, lege hori dago indarrean eta haren babespean egiten dira hiri-errentamenduak: azaroaren 24ko *29/1994 Legea, Hiri Errentamenduari buruzkoa*. Legeak helburu hauek lortu nahi ditu: hiri-errentamenduen merkatua indartzea; eta alderdien prestazioen artean bidezko oreka berrezartzea, batez ere indarrean zeuden kontratuen egoera eguneratuz. Horretarako, oinarri hauek ezartzen ditu:

- (a) Iraupena: alderdiek askatasuna dute kontratuaren iraupena ezartzeko, baina gutxienerako epeak errespetatuz.
- (b) Luzatzea: gutxienerako iraupena bete arte, urtero nahitaez luzatuko da.
- (c) Errenta: hasierako errenta ezartzeko askatasuna emango da, baina eguneratzeko klausulak onartuz —KPIren arabera—.
- (d) Alderdien eskubide eta betebeharrei dagokienez, aurreko legeriari eusten zaio.
- (e) Ezindu fisikoak babesteko erabakiak hartzen dira.
- (f) Maizterrak lehentasunez eskuratzeko eskubidea izango du.
- (g) Kontratua egiteko, forma-askatasuna ezartzen da (ahoz edo idatziz).
- (h) Jabetza Erregistroan inskribatzeko aukera ematen da.
- (i) Nahitaezko fidantza ematea aurreikusten da.
- (j) 1995eko urtarrilaren 1etik aurrerako kontratuei aplikatuko zaie Legea.

Legeak bi egoera oso desberdin bereizten ditu, bakoitzari trataera bat emateko: ohiko etxebizitzaren errentamendua eta etxebizitzarako ez den beste erabileretarako errentamendua —negozio lokala, aldi laburrerako errentamendua, bigarren egoitza izatea eta abar—: *Lege honek ezartzen du hiri-finken errentamenduei aplikatu beharreko araubidea, horiek etxebizitzarako edo beste erabilera batzuetarako bideratzen direnean* (1. art.).

Lege bereziaren babesetik kanpo utziko dira eta, beraz, Kode Zibilaren arauetara meneratuko dira:

5. artikulua. *Salbuetsitako errentamenduak. Lege honen aplikazio-eremutik salbuetsita daude:*

- a. *Atezain, zaintzaile, alokairupeko, enplegatu eta funtzionarioei euren kargua dela-eta edo emandako zerbitzuarengatik esleitutako etxebizitzaren erabilera.*
- b. *Militarren etxebizitzaren erabilera, horien kalifikazioa eta araubidea gorabehera, euren legeria berezian xedatutakoaren arabera arautuko baitira.*
- c. *Laborantza-etxea duen finka bat errentan emateko kontratuak, errentamenduaren helburu nagusia nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-aprobetxamendua bada. Kontratu horietan aplikatuko da landa-errentamenduei aplikatu beharreko legerian xedatutakoa.*

d. Unibertsitateko etxebizitzaren erabilera, unibertsitateak berak, horien jabe edo arduradun izanda, beren beregi hala kalifikatu dituenean, baldin eta etxebizitzok esleitzen bazaizkie kasuan kasuko unibertsitatean matrikulatutako ikasleei, eta bertako irakaskuntza, administrazio eta zerbitzuetako langileei, horietako bakoitzaren eta unibertsitatearen artean ezarritako lotura dela bide; unibertsitatearen ardura izango da, kasuan-kasuan, etxebizitza horien erabileran aplikatu behar diren arauak ezartzea.

(1) Etxebizitza-errentamendua

Legearen eraginetarako, honela zehazten da etxebizitza zer den:

2. artikulua. *Etxebizitza-errentamendua.*

1. Etxebizitza-errentamendua badela uste da, errentariak eraikin bizigarri bat errentan hartzen duenean, eraikin horren lehen helburua etxebizitza iraunkorra izateko beharra asetzea dela.

2. Etxebizitza-errentamenduan aplikatzen diren arauak aplikatuko zaizkie, orobat, altzariei, trastelekuei, garaje-plazei eta gainerako gelei, errentan emandako espazioei edo errentatzaileak berak finkaren eranskin gisa lagatako zerbitzuei.

7. artikulua. *Etxebizitza-errentamenduaren izaera. Etxebizitza-errentamenduak ez du izaera hori galduko, nahiz eta errentariak errentapeko finkan etxebizitza iraunkorra izan ez, baldin eta bertan bizi badira beraren ezkontidea, legez edo egitez banandurik ez dagoena, edo haren mendeko seme-alabak.*

Gainera, ohiko etxebizitza izan arren, legearen babesik ez dute jasoko hauek: Xedapen horretatik salbuetsita daude luze-zabalean 300 metro koadrotik gorakoa duten etxebizitza-errentamenduak, edo hasierako errentaren urteko kopurua lanbidearteko gutxieneko alokairuaren urteko kopurua baino 5,5 aldiz handiagoa dutenak. Errentamendu horietan, alderdien borondatea, eta, halakorik izan ezean, lege honetako II. tituluan xedatutakoa aplikatuko dira, eta, ordezkotzat, Kode Zibilararen xedapenak.

Kontratuaren elementu nagusiak honela arautzen dira:

(a) Iraupena

(a') Alderdiek nahi dutena ezar dezakete, baina bost urte baino gutxiago hitzartzen badute, maizterrak urtez urte bost urteraino luza dezake iraupena. Beti ere, errentatzailearen gozatzeko eskubideak hainbeste irauten badu, bestela kontratua iraungi egingo baita.

(b') Kontratua luzatzea: iraupena bete ostean, alderdiek ez badute ezer adierazten, urtez urte beste hiru osatu arte luza daiteke kontratua.

(c') Bost urtetik gorako iraupena duen kontratuan, bost urte iragan ostean, maizterrak aukera izango du urtero kontratua bertan behera uzteko.

(d') Errentatzaileak bere jabetza-eskubidea besterentzen badu, jabe berriak kontratuaren iraupena errespetatu behar du, gutxienik bost urtean behintzat.

(e') Maizterra hiltzen bada, zenbaitek bere lekua har dezakete kontratuan.

(b) Errenta

(a') Hasierako errenta alderdiek askatasunez hitzartuko dute.

(b') Gero, eguneratu daiteke lehen bost urtean, KPIren arabera. Seigarren urtetik aurrera, alderdiek hitzartutakoaren arabera egingo da eguneratzea. Akordio hori ez bada existitzen, prezioen indizea aplikatuko da.

(c') Etxebizitzak dituen gastuak, zerbitzuak eta zergak errentatzaileak ordainduko ditu, bestelakorik hitzartzen ez bada (ohikoena dena).

Edukiari dagokionez, berriz, **eskubide-betebehar** hauek aurreikusten dira:

(a) Errentatzailearentzat

(a') Betebeharrak: ondasuna entregatzea; etxebizitza kontserbatzeko beharrezko konponketak egitea, beti ere narriadura maizterrari egotz ez badakioke; etxebizitza saltzeko asmoa balu, maizterrari jakinaraztea, lehentasunez eskuratzeko eman zaion eskubidea baliarazteko.

(b') Eskubideak: errenta kobratzeko eta eguneratzeko eskatzea; etxebizitza hobetzeko obrak egitea; kontratua iraungitzeko eskatzea, legeak ezartzen dituen kausarik balego; etxebizitza abandonatu bada, kalte-galeren ordaina eskatzea; fidantza eskatzea.

(b) Maizterrarentzat

(a') Betebeharrak: errenta ordaintzea; etxebizitzaren gastuak ordaintzea, horrela hitzartu bada; etxebizitza erabiltzeak sortzen dituen konponketa-beharrak egitea; berari egotzitako ezohiko narriadurak ordaintzea; errentatzailearen baimenik gabe obrarik ez egitea eta, halaber, errentatzaileak etxebizitza kontserbatzeko eta hobetzeko egindako obrak jasatea; fidantza ematea.

(b') Eskubideak: ezindua bada, etxebizitza egokitzeko eskatzea; etxebizitza besterentzen bada, lehentasunez eskuratzekoa.

Kontratua iraungitzeari buruz, berriz, arau hauek ematen dira:

(a) Errentatzaileak arrazoi hauengatik suntsiaraz dezake kontratua:

(a') Maizterrak ez duelako errenta edo fidantza ordaindu, eguneratzea barne.

(b') Maizterrak, haren baimenik gabe, etxebizitza azpierrementamenduan eman badu, laga badu edo obrak egiten baditu.

(c') Molestatzen duten, arriskutsuak, kaltegarriak edo zilegiak ez diren ekintzak egiteagatik.

(d') Etxebizitza ez den beste erabilera baterako erabiltzen bada.

(b) Maizterrak kontratua suntsitu ahal izango du:

(a') Errentatzaileak ez baditu egiten etxebizitzak bertan bizitzeko behar dituen konponketak.

(b') Errentatzaileak etxebizitzaren erabileran asaldurak egiten baditu.

(c) Kontratua iraungi egingo da, baita ere:

(a') Errentatzaileari egozgarri ez zaion kausagatik, etxebizitza galdu bada.

(b') Eskuduntza duen agintariak etxebizitzari buruzko hondamen-deklarazioa egiten badu.

(2) Etxebizitzarako ez den beste erabilerak baterako errentamendua

Legearen eraginetarako, etxebizitzarako ez eta beste erabilerak zein diren honela zehazten da:

3. artikulua. *Etxebizitza-erabileraz besteko errentamendua.*

1. *Etxebizitza-erabileraz besteko errentamendua badela uste da, eraikin bat errentan ematen denean aurreko artikuluan ezarritako erabileraz beste baterako.*

2. *Bereziki, izaera horretako errentamenduak izango dira udarako zein beste denboraldi baterako sinatzen diren hiri-finken errentamenduak, eta finka batean industria-, merkataritza-, eskulangintza-, lanbide-, aisia-, laguntza-, kultura edo irakaskuntza-jarduera bat egiteko sinatzen direnak, sinatzaileak gorabehera.*

Kategoria horretan sartzen dira bulegoen, merkataritza-lokalen, pabiloien, biltegien, bulego profesionalen eta antzeko higiezin errentamenduak. Beste modu batera esanda, negozio-lokalen errentamenduak.

Kontratu horiek ere, alderdiek hitzartutakoa izango dute lehen arau. Horren ezean, legeak III. tituluan ezarritakoa aplikatuko zaie eta, etxebizitza-errentamenduei buruz ezarritako arauetatik, legeko 19., 21., 22., 23., 25. eta 26. artikulua ere aplikatuko zaizkie. Fidantzari buruzko arauak ere aurrekoaren berberak dira.

Errentamendu mota horretan, arau berezien beharra du lagatzeari eta azpierrementuan emateari buruzko aukerak, merkataritzan oso ohikoa baita negozioak eskualdatzea. Hau da arau nagusia:

32. artikulua. *Kontratua lagatzea eta azpierrementua*

1. *Errentapeko finkan enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten denean, errentariak finka azpierrementan eman edo errentamendu-kontratua laga ahal izango du, errentatzailearen adostasuna izan beharrik gabe.*

2. *Zatikako azpierrementua eginez gero, errentatzaileak errenta igotzeko eskubidea du indarreko errentaren 100eko 10ean; kontratua laga edo errentapeko finka osoa azpierrementan emanaz gero, igoera hori 100eko 20koa izango da.*

3. *Sozietate errentariak beste sozietate batekin bat egin, hura eraldatu edo zatitzearen ondorioz izandako errentari-aldaketa ez da lagapen gisa ulertuko, baina*

errentatzaileak eskubidea izango du, aurreko paragrafoan ezarritako errenta-igoera egiteko.

4. Lagapena nahiz azpierrentamendua errentatzaileari sinesgarriri jakinarazi behar zaizkio, horiek itundu eta hilabeteko epean.

Subrogatzeko aukerari buruz, berriz, hauxe ezartzen da:

(a) Maizterrari buruz:

33. artikulua. *Errentaria hiltzea.*

Errentaria hiltzen bada lokalean enpresa- edo lanbide-jarduera egiten dela, jarduera horri eusten dion jaraunslea edo legatu-hartzailea errentariaren eskubide eta betebeharretan subrogatu ahal izango da kontratua azkendu arte.

Subrogazioa errentatzaileari idatziz jakinarazi behar zaio, errentaria hil eta hurrengo bi hilabeteetan.

(b) Errentatzaileari buruz:

29. artikulua. *Errentan emandako finka besterentzea*

Errentapeko finkaren eskuratzalea errentatzailearen eskubide eta betebeharretan subrogatuko da, salbu eta eskuratzaleak Hipoteka Legearen 34. artikuluko baldintzak betetzen dituenean.

Bukatzeko, **maizterrak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea** izango du:

34. artikulua. *Kalte-ordaina errentariari.*

Finkaren errentamendua azkendu bada hitzarmenezko mugaeguna igarotzeagatik, eta finka horretan azken bost urteetan merkataritza-jardueraren bat egin bada jendeari saltzeko, orduan errentariak eskubidea du errentatzailearen kontura kalte-ordaina jasotzeko, betiere, errentariak adierazi duenean, epea agortu baino lau hilabete lehenago, kontratua beste bost urterako eta merkatuko errentaren truk berriztatu nahi duela. Merkatuko errenta izango da alderdiek ondore horretarako hitzartutakoa; itunik ez badago, berriz, alderdiek izendatutako tartekariak ondore horretarako zehazten duena. Kalte-ordainaren zenbatekoa modu honetan zehaztuko da:

1. Errentamendua agortu eta hurrengo sei hilabeteetan, errentaria udalerrri berean ordu arteko jarduera bera egiten hasten bada, kalte-ordainak barnean hartuko ditu lekualdatze-gastuak eta aurreko lokalarekin alderatutako bezeria-galerak erakarrirako kalteak. Bezeria-galera hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da jarduera berriaren lehenengo sei hilabeteetan izandakoa.

2. Errentamendua azkendu eta hurrengo sei hilabeteetan, errentariak beste jarduera bat hasten badu, edo inolako jarduerarik hasten ez badu, eta errentatzaileak edo hirugarren batek garatzen badute, epe berean, errentariak finkan garatutako jarduera bera edo antzekoa, orduan kalte-ordaina hileko bat izango da, kontratuak irauten duen urte bakoitzeko, eta, gehienez ere, hemezortzi hileko errenta kopurua.

Errentariak egin duen jarduera dela eta, bezeria bereganatu badu, ulertuko da, aurreko paragrafoaren ondorioetarako antzeko jarduerak direla errentatzaileak edo errentari berriak bezeria hori erakartzeko eginikoak. Alderdiek egiten ez badute kalte-ordainaren zenbatekoari buruzko hitzarmenik, alderdiek izendatutako tartekariak finkatuko du zenbateko hori.

5. Landa-errentamendua

Hiri-errentamenduekin bezala, landa-errentamenduak ere babestu egin ziren Gerra Zibilaren ostean, landa-guneetan eta baserrietan maizter zirenen aldeko arauak emanaz, bereziki ere kontratuen iraupena luzatuz eta errentak izoztuz.

Gaur egun egoera bestelakoa bada ere, indarrean dauden legeak hainbat dira eta, beraz, kontratu bakoitza zein legetara menperatzen den zehaztea izango da lehen arazoa:

- (a) Kode Zibilak arautzen ditu landa-errentamenduak.*
- (b) Ley 83/1980, de 31 de diciembre, de Arrendamientos Rústicos.*
- (c) Ley 1/1992, de 10 de febrero, de Arrendamientos Rústicos Históricos.*
- (d) Ley 19/1995, de 4 de julio, de Modernización de las Explotaciones Agrarias.*
- (e) Ley 49/2003, de 26 de noviembre, de Arrendamientos Rústicos; modificada por la Ley 26/2005, de 30 de noviembre.*

Egun landa-errentamendua egiteko kontratua arau nagusi hauetara menperatzen da:

(1) Hauek dira landa-errentamenduak:

1. artikulua. Landa-errentamendua

- 1. Landa-errentamendutzat hartuko dira finka bat edo gehiago, edo finkon zatiren bat, aldi baterako lagatzeko kontratuak, horietatik nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-aprobetxamendua atera dadin, prezio edo errenta baten truk.*
- 2. Kontratuoi alderdiek esanbidez adostutakoa aplikatuko zaie, lege honen aurkakoa ez bada. Ordezko moduan, Kode Zibila aplikatuko da, eta, koderik ez badago, aplikatzeko modukoak diren erabilera eta ohiturak.*
- 3. Nekazaritza-, abeltzaintza- edo baso-ustiategiaren errentamenduek izaera bera dutela ulertuko da, eta horiei lege honen xedapenak aplikatuko zaizkie, euren izaerarekin bateragarriak badira eta alderdiek esanbidez besterik adostu ez badute.*

(2) Bere jardueran, enpresa-askatasuna ematen zaio maizterrari:

8. artikulua. Kontratuaren garapena

- 1. Landa-finken errentariak eskubidea du lugintza mota zehazteko; hala ere, errentamendua amaitzean, finkek hartu zituen egoeran itzuliko ditu, eta kontuan hartu beharko du lege honetan hobekuntzei buruz xedatutakoa. Errentariari*

lugintzen edo produktuen destinoaren gain murrizketaren bat ezartzen dioten itunak deusezak izango dira, lurra pobretzea saihestu nahi dutenak eta lege- edo arau-xedapenen ondorio direnak izan ezik.

2. Lugintza mota edo -sistema zehaztean, helburua eraldatu edo aparteko hobekuntzak egiten direnean, alderdien arteko esanbidezko hitzarmenaren bidez soilik egin ahal izango da hori, eta, hala denean, lege edo arau egokiak beteta.

3. Era berean, ustiategien errentamenduari dagokionez, errentariak erabateko autonomia du, kontratuaren arabera enpresa-jarduera egikaritzeko; baina betebeharra du ustiategiaren batasun organikoari eusteko, ustiategia osatzen duten osagai guztiei begira, eta errentamendua amaitzean berori errentatzaileari itzultzeko.

(3) Gainera, hobekuntzak egiteko aukera ere ematen zaio:

20. artikulua. *Errentariaren konturako obrak eta hobekuntzak*

1. Errentariari dagokio konponketa, hobekuntza eta inbertsioak egitea, horiek nekazaritza-enpresaburuari jardueran aritzean dagozkionak badira, eta lege xedapenen edo ebazpen judizial nahiz administratibo irmoaren ondorioz, edo, nekazaritza-enpresaburuari ere jardueran aritzean ureztatzaileen erkidegoak ureztaketa hobetzeari begira egindako hitzarmenaren ondoriozkoak badira; hala eta guztiz ere, horregatik ez du eskubiderik izango errenta murrizteko ez errentamendua luzatzeko, alderdien arteko hitzarmenaren bidez edo lege-xedapenez edo ebazpen judizial nahiz administratiboaz besterik ateratzen ez bada.

2. Errentariak errentapeko lurren hormak, hesiak, palaxu biziak edo hilak, zangak eta bestelako itxitura-moduak ken ditzake, horiek ustiapen-unitate bereko finka bi edo gehiago bereizten badituzte; hala eta guztiz ere, errentamenduaren amaieran, gauzak jaso zituen bezala itzuli beharko ditu, Kode Zibilaren 1561. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Errentamenduan zehar egindako hobekuntzak errentariaren kontura egin direla uste da.

Hortik aurrera, errentamenduaren elementu nagusiak —iraupena eta errenta— zehatz-mehatz arautzen dira eta, halaber, kontratua amaitzeari buruzko kausak zehazten.

5.- SOZIETATE-KONTRATUA

1.- Kontzeptua

Sozietatea zer den azaltzeko, pertsona juridikoa zer den azaldu behar da lehenik: inork bakarrik lortu ezin dituen xedeak gauzatzeko, hainbat pertsona batu daitezke elkarte sortuz, denen elkarlana beharrezkoa izango baita. Elkartzeko motaren

arabera, pertsona juridiko desberdinak molda daitezke: elkarteak, fundazioak, sozietateak, sozietate anonimoak, kooperatibak, eta abar. Beraz, pertsona fisikoek sortu duten erakundea pertsonatzat hartzen da eta pertsona juridiko deritzo.

Eta hala, sozietatea pertsona juridiko gisa eratzen da, pertsonalitate propioa duena. Hala ere, badaude pertsonalitate gabeko sozietateak ere: sozietate irregularrak edo egitatezkoak. Pertsona-elkarteak dira, baina elkarte gisa azaldu bitartean, bazkideek berez erantzungo dute: *sozietateek ez dute nortasun juridikorik izango, euren itunak isilpean gordetzen badira bazkideen artean, eta bazkide bakoitzak bere izenean kontratatzen badu hirugarrenekin; gainera, sozietate mota horiek ondasun-erkidegoei buruzko xedapenek arautuko dituzte* (KZren 1669. art.). Egin duten kontratuarekin ez dute pertsonalitate berri bat eratu.

Elkarte horiek xedetzat irabazi ekonomikoa lortzeko jarduera egitea eta irabaziak banatzea badute, sozietateak dira. Beraz, helburuaren arabera bereizten dira:

(1) **Irabazi asmorik ez duten pertsona juridikoak**: elkarteak eta fundazioak. Horien helburua ez da ekonomikoa, bestelakoa baizik; kulturala, morala, laguntzailea, eta abar.

(2) **Irabazi asmoa dutenak**: sozietateak. Aldi berean, berez izan daitezke zibilak edo merkataritzakoak —akziokako sozietateak, erantzukizun mugatuko sozietateak, kooperatibak, eta abar—. Kontuan izan behar da irabazia ez dela beti dirua lortzea gero banatzeko, baizik etekinik lortzea; esaterako, kontsumo-kooperatibaren helburua da produktuak prezio onenean lortzea.

Testuinguru horretan, Kode Zibilak sozietatea kontratu gisa definitzen du, hau da, borondate-akordio gisa. KZren 1665. artikulua kontzeptu hau ematen du: *sozietatea kontratua da, eta, horren bidez, bi pertsona edo gehiagok euren gain hartzen dute dirua, ondasunak edo industria erkidegoan jartzeko betebeharra, irabaziak euren artean banatzeko asmoarekin* (KZren 1665. art.).

Hauk dira kontratuaren ezaugarriak:

(1) **Adostasunezko kontratua da**: alderdien adostasun hutsarekin sortzen da.

(2) **Aldebikoa edo alde anitzekoa**: alderdi kontratatzaileentzat eskubideak eta betebeharrak sorrarazten ditu, eta horiek bi pertsona edo gehiago izan daitezke.

(3) **Kostubidezkoa** da: baliokidetasuna dago bazkideen prestazioaren eta banatzea espero diren irabazien artean.

(4) **Berez intuitu personae da**: konfiantzan oinarritua dago, eta bazkideak nor diren kontuan hartzen da sortzeko eta irauteko garaian.

(5) **Aurreranzko traktua**: denboran zehar luzatzen den kontratua da, eta betebeharrak eta eskubide iraunkorrak ezartzen ditu, giza entitatea eratu baita.

2.- Motak

(1) **Sozietate zibila eta merkataritzako sozietatea.** Biek xedetzat dute irabazia lortzea, baina hori lortzeko bide desberdinak erabiltzen dituzte. Merkataritza-sozietateak, irabazia lortzeko, merkataritza-egintzen bidez egingo du. Zibilak, berriz, merkataritzakoak ez diren egintzen bidez (KZren 1670. art.). Merkataritzako sozietateari Merkataritzako Kodeak eta lege bereziek ezarritako arauak aplikatuko zaizkio. Merkataritza Zuzenbidearen eremuan agertzen dira merkataritza aritzen diren sozietateei buruzko arauak.

(2) **Sozietate unibertsala eta partikularra.** Hasteko, *la sociedad es universal o particular* (KZren 1671. art.). Gero, unibertsalen artean bereizten dira: *sozietate unibertsala oraingo ondasun guztien gainekoa izan daiteke, edo irabazi guztien gainekoa* (KZren 1672. art.):

(a) *Sozietatea oraingo ondasun guztien gainekoa da, alderdiek erkidegoan jartzen badituzte, bai orain dituzten ondasun guztiak, euren artean horiek banatzeko asmoarekin, bai eta halakoekin eskuratzen diren irabazi guztiak ere* (KZren 1673. art.). Hau da, orain nork bereak dituen ondasunak, gero bazkide guztien jabetzako bihurtzen dira, irabaziak sartuta, baina etorkizunekoak ez (KZren 1674. art.).

(b) *Irabazi guztien gaineko sozietateak bere barruan hartzen du sozietatea bitartean bazkideek euren industria edo lanaren ondorioz eskuratzen duten guztia. Bazkide bakoitzak, kontratua egitean, ondasun higigarri edo higiezinak baditu, ondasunok jabari pribatukoak izateari eusten diote, eta sozietateari horien gozamina bakarrik eskualdatzen zaio* (KZren 1675. art.).

Sozietate partikularrean, berriz, objektua zera da: *objektu izan daitezke gauza zehatzak, horien erabilera edo fruituak, enpresa jakin bat, edo lanbidean nabiz artean aritzea* (KZren 1678. art.).

3.-Eratzea

Sozietate zibila eratzekeko elementu hauek bildu behar dira:

(1) **Pertsonalak.** Subjektuak dira kontratua egiten duten bazkideak. Denek xede berbera dute eta, kopuruz, bi edo gehiago izan daitezke (KZren 1665. art.). Kontratua egin eta gero, posible da bazkide berriak elkartzea, baina gehitze hori beste kontratu baten bitartez gauzatuko da; horretarako, beharrezkoa izango da bazkide guztien adostasuna, bestela ez baita kide berririk elkartuko (KZren 1696. art.). Parte hartzen dutenen gaitasunari dagokionez, berriz, kontratatzekeko behar den gaitasun orokorra eskatzen da.

(2) **Errealak.** Sozietate guztien objektua jarduera da; jarduera horrek zilegia izan behar du eta bazkide guztien onuran ezarria (KZren 1666. art.). Objektua, beraz,

zerak osatzen dute: bazkideen ekarpenek —horiekin osatzen da sozietatearen funtsa— eta ondoren lortutakoak —irabazia edo galera—.

(3) **Formalak.** *Sozietate zibila edozein forma erabiliz era daiteke, sozietate horretara ondasun higiezinak edo eskubide errealak ekartzeko direnean izan ezik; kasu horretan, beharrezkoa izango da eskritura publikoa* (KZren 1667. art.).

4.- Edukia

Bazkideek dituzten betebeharrak eta eskubideetan, bi maila bereizten dira: batetik, bazkideen arteko barne-harremanak eta, bestetik, bazkideen harremanak sozietatearekin.

Bazkideen lehenengo betebeharrak **ekarpena ematekoa** da —dirua, ondasunak edo industria, zerbitzuak edo ezagutzak— (KZren 1665. art.). Horregatik, hauxe agintzen da: *bazkideak sozietateari zor dio bertara ekarriko duela hitzeman duen guztia* (KZren 1681. art.). Betebeharrak ez badu betetzen, bazkideak erantzun beharko du beste betebeharrak bezala; ekarpena egin behar du eta ekarpena denena bilakatuko da.

Bestalde, **bazkideak sozietateari kalterik egiten badiu, horiek ordaintzeko betebeharrak izango du:** *bazkide orok erantzukizuna du, sozietateari begira, bere erruz sozietate horrek izan dituen kalte-galerengatik, eta ezin ditu kalte-galerok konpentsatu bere industriaren ondorioz sozietateari eman dizkion etekinekin* (KZren 1686. art.).

Bazkideak, sozietatearen irabazietan eta galeretan parte hartzea izango du eskubiderik nagusiarena. Irabaziak eta galerak hitzartutakoaren arabera banatuko dira; beraz, bazkide bakoitzak irabazietan izango duen parte hartzea zenbatekoa izango den hitzartu bada bakarrik, orduan galeretan ere proportzio bera aplikatuko da. Hitzarmenik ezean, Kode Zibilak sozietatera ekarri denaren arabera banatzeko irizpidea ezartzen du —sozietateak arriskuak ditu eta bazkideek jasan beharko dituzte izan daitezkeen galerak—.

5.- Sozietatea administratzea

Kontratuak sozietatea nola kudeatuko den eta nork administratu beharko duten ezartzen badu, hitzarmena errespetatu egin beharko da. Ez bada ezer hitzartu, orduan aplikatuko dira kodeak ematen dituen arauak:

(1) **Administratzailerik ez bada izendatu.** Bazkide oro izango da administratzaile. Beraz, sozietateko funtsaren gauzak erabili ahal izango ditu (KZren 1695. art.) eta sozietatearentzat betebeharrak har ditzake aldebakarreko jardunez. Halaber, bazkide orok besteek egin dutenari aurre egin ahal izango dio, denen parte hartzea beharrezkoa baita jarduteko.

(2) **Administratzailerik izendatu bada.** Administratzailek egintzak izendatuak egingo ditu. Xedatzeko egintzak, aldiz, guztien artean erabakiko dira.

Sozietateak harremanak izango ditu hirugarrenekin, pertsona juridikoa denez, sozietate gisa jarduten baitu. Hirugarrenekin egindako harreman juridikoak, berez, hirugarrenaren eta sozietatearen artekoak dira. Bazkideengandik independentea izango da, eta sozietatea ordezkatzan duten organoek gauzatutako jarduerak lotuko dituzte sozietatea bera eta haren ondarea; zorrez eta betebeharez erantzungo du sozietateak, alegia, bazkideek ez dute erantzungo sozietatearen betebeharez. Hala ere, bazkideek, haien ekarpenaren proportzioan, modu subsidiarioan erantzungo dute haien ondare pertsonalarekin, sozietatearen ondarea ez bada nahikoa sozietatearen zor guztiak ordaintzeko (KZren 1698. art.)

6.- Iraungitzea eta kitatzea

Printzipioz, kontratuak iraungitzeko kausa orokorren arabera iraungitzen da sozietate-kontratua. Horietaz gainera, sozietatea honako hauetan iraungiko da bereziki:

- (1) Sozietatearentzat hitzartutako epea iragaitean. Epea ezarri ahal izango da: (a) bazkideak hil bitartean; orduan, azken bazkidea hiltzean iraungiko da sozietatea; (b) gauza desagertu bitartean; orduan, gauza galtzeak ekarriko du sozietatea iraungitzea.
- (2) Xedea ezinezko bihurtzea. Ezarritako xedea ezin bada lortu edo bazkide batek berari dagokion ekarpena ez badu egiten.
- (3) Bazkideren bat hiltzea edo kaudimen gabezia erortzea.
- (4) Bazkide batek iraungitzea eskatuko balu, bidezko kausarik badagoelako edo eperik hitzartu ez delako.

Behin sozietatea iraungitzen denean, kitatu egin behar da, dagoena banatu, alegia. Berez, iraungitze-kausa gertatzen denean, sozietatea ez da iraungitzen automatikoki; sozietateak bizirik jarraitzen du, kitatu arte. Sozietateak, erabat desagertzeko, kitatzeko prozesua gauzatu behar du. Eskuarki, sozietate-kontratua egiteko garaian hitzartzen dira sozietatea kitatzeari buruzko arauak eta modua; bereziki, ondasunak nola banatu. Ez bada ezer hitzartu, Kode Zibilak agintzen du jaraunspena banatzeari buruzko erregelaren arabera egin beharko dela (KZren 1708. art.).

6.- *BESTE KONTRATU BATZUK*

6.1.- OBRA-KONTRATUA

Obra-kontratuaren arabera, *alderdietako batek bere gain hartzen du beste alderdiarentzat obra gauzatzeko betebeharra, prezio jakinaren truk* (KZren 1544. art.).

Zerbitzu-errentamenduan jarduera egitea bada betebeharra, obra-kontratuan emaitza lortzeko betebeharra da elementu nagusia. Beraz, jarduera gauzatzeaz

gainera, kontratistak emaitza lortzeko betebeharra du eta, beste alderdiak prezioa ordaintzeko betebeharra. Esaterako, margolana margotzea, etxea eraikitzea, zaharberritzeko lana, edo kirurgia estetikoko ebakuntza egitea.

Dena den, Kode Zibilak bereizi egiten ditu honako hauek: kontratua, non kontratistak obra egiteko bere lana edo industria jartzen baitu; eta kontratistak, aurrekoaz gainera, materiala ere jartzen baitu.

Hauek dira kontratua sortzeko bildu behar diren elementuak:

- (1) **Pertsonala.** Kontratista da obra egin behar duena, eta komisio-emailea, obra enkargatzen duena; biek behar dute jarduteko gaitasuna.
- (2) **Erreala.** Alde batetik, obra egitea, berez posiblea, zilegia eta zehatza dena; eta, beste aldetik, prezio ziurra.
- (3) **Formala.** Kontratua egiteko, forma-askatasuna ezartzen da.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

- (1) **Kontratistarenak.** Obra gauzatu eta hitzartutako epearen buruan komitentearen eskura jartzea. Aldi berean, erantzun egin beharko du berea den eta beretzat lan egiten duten pertsonen ez betetzeaz, eta obrak izan ditzakeen akats eta narriadurez.
- (2) **Komitentearenak.** Obra egiten lagundu, obra jaso, eta prezioa edo kontraprestazioa ordaindu.

Kausa orokorragatik iraungitzeaz gainera, iraungiko da: (a) komisio-emailearen aldebakarreko denuntzia, kalte-galerak ordaintzeko betebeharra bere gain hartuz; (b) kontratista hiltzeagatik, berau kontuan hartu bazen kontratua gauzatzeko; eta (c) obra gauzatzegatik.

6.2.- ZERBITZU-KONTRATUA

Zerbitzu-kontratuaren arabera, *alderdietako batek bere gain hartzen du beste alderdiarentzat zerbitzua egiteko betebeharra, prezio jakinaren truke* (KZren 1544. art.). Ezaugarrien artean, kontratua berez adostasunezkoa, aldebikoa eta kostubidezkoa da.

Kontratua osatzen duten elementuak, berriz, hauek dira:

- (1) **Pertsonala.** Zerbitzaria edo langilea, zerbitzua eskaintzen edo ematen duena; eta patroia edo jabea, zerbitzua eskatu eta gozatzen duena. Gaitasunari dagokionez, ez dago arau berezirik.
- (2) **Erreala.** Zerbitzua bera da, alegia, jarduera gauzatzea. Jarduera berez izan daiteke materiala edo intelektualak; esate baterako, aditu batek aholkua ematea. Kontratuko objektu orok bezala, jarduerak posiblea, zilegia eta zehatza izan behar du. Beste aldetik, horren kontraprestazioa prezio jakina izango da; eskuarki, dirua,

denboraren arabera zehaztua. Hala ere, erabil daiteke beste irizpideren bat prezioa zehazteko; adibidez, aholkuaren ondorioz lortutako etekinak. Preziorik hitzartuko ez balitz, alorreko usadioen arabera zehaztuko da.

(3) **Formala.** Besteetan bezala, forma-askatasuna onartzen da.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

(1) **Zerbitzu-emailearenak.** Jarduera gauzatzeko, kontuan hartu beharko ditu egiteko betebeharratzat ezartzen diren arauak eta, kontratuaren edukiaren arabera, profesioko usadioak. Jarri beharreko arreta, haren lanbideari eskatzen zaiona izango da.

(2) **Zerbitzu-hartzailearenak.** Kontraprestazioa ordaintzea eta jarduera betetzen laguntzea; esaterako, beharrezko informazio zuzena emanaz.

Iraungitzearen ikuspegitik, abiapuntua arau hau da: *bizji arteko errentamendua deuseza da* (KZren 1583. art.), edozein zerbitzu mota dela ere. Beste kontua da zerbitzu-kontratua epemugarik gabe hitzartzea, betirako ez baita eta beti zerbitzu-emaileak denuntzia baitezake. Hortik aurrera, kontratu guztientzat ezarrita dauden iraungitze-kausa orokorrez gainera, hauek dira iraungitzeko kausa bereziak: zorduna hiltzea, hura kontuan hartu bazen kontratua gauzatzeko; epemugarik gabe gauzatu bazen zerbitzu-emailearen borondatea; eta hitzartutako epea betetzea.

6.3.- MANDATU-KONTRATUA

Mandatu-kontratua, berez, gestio-kontratua da: alderdi batek (mandatu-hartzaileak) beste norbaiten (mandatu-emailearen) kontura egintza juridikoak egiteko betebeharra hartzen du. Berez, adostasunezkoa izateaz gainera, aldebakarrekoa izan daiteke doakoa balitz, bestela ez; eta *intuitu personae* da, alderdiek elkarrengan duten konfiantzan oinarritzen baita.

Kontratua osatzen duten elementuak, berriz, hauek dira:

(1) **Pertsonala.** Mandatu-emaileak egintza juridikoa egitea enkargatzen du; eta mandatu-hartzaileak haren alde eta kontura gauzaten du egintza.

(2) **Errealia.** Objektua da mandatu-emaileak mandatu-hartzaileari egitea enkargatzen dion egintza juridikoa. Esaterako, bitartekaritza-lana, zerbait ordaintzea edo kobratzea, edo interesak administratzea.

(3) **Formala.** Hemen ere askatasunaren printzipioa jarraitzen da, eta aipatze bidezkoa edo isilbidezkoa izan daiteke (KZren 1710. art.). Halaber, agiri publikoan edo pribatuan egin daiteke.

Mandatua izan daiteke:

(1) **Doakoa**, ez bada ezer ordaintzen; edo ordaindutakoa, eskuarki, enkargatutako zerbait egitea mandatu-hartzailearen lanbidea bada.

(2) **Orokorra eta berezia**. Orokorrak mandatu-emailearen negozio guztiak hartuko ditu, eta bereziak, berriz, jakin batzuk.

(3) **Ordezkaritzaz edo ordezkazarik gabe**. Lehenengoaren arabera, harreman juridikoak sortzen dira mandatu-emailearen eta hirugarrenen artean. Mandatu-hartzaileak mandatu-emailearen izenean eta kontura jarduten du. Ordezkaritzarik gabeko mandatuan, ordea, mandatu-hartzaileak bere kontura jarduten du, baina ez bere izenean. Kontratuak eraginak izango ditu hirugarrenarentzat eta mandatu-hartzailearentzat.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

(1) **Mandatu-hartzailearen betebeharrak:**

(a) Mandatua betetzea: agindutakoa egitea (KZren 1718. art.), mandatu-emaileak eman dizkion jarraibideen arabera gainera (KZren 1719. art.).

(b) Mandatuaren mugak ezin ditu gainditu (KZren 1714. art.). Gainditzen badira, mandatu-emaileak berrets ditzake, behartuta geratzeko.

(c) Mandatu-emaileari jakinaraztea nola doan mandatua betetzea. Mandatu-emaileari eman beharko dio beretzat jaso duen guztia.

(d) Mandatua ez gauzatzeagatik, mandatu-emaileari sortu zaizkion kalteen ordaina ematea. Ordaindutako mandatua bada, doluz eta erruz erantzun beharko du.

(2) **Mandatu-emailearen betebeharrak:**

(a) Mandatu-hartzaileari ordaintzea, egin beharrekoa haren lanbidea bada (KZren 1711. art.).

(b) Mandatua gauzatzeko behar den dirua aurreratzea (KZren 1728. art.) eta mandatu-hartzaileak bere kontura egindako gastuen erantzukizuna hartzea.

(c) Mandatua betetzetik eratortzen diren gastuak eta kalteak ordaintzea. Kasu horretan, mandatu-hartzaileak erretentzeko eskubidea izango du.

(3) **Hirugarrenen aurrean hartutako betebeharrak:**

(a) Mandatu-hartzailea. Ordezkeri gisa ez badu jardun, kontratua egin duen pertsonarekin zuzenean behartuta geratuko da, gai pertsonala izango bailitzan (KZren 1717. art.). Mandatu-emailearen ordezkari gisa jardun badu, kontratatu duen pertsonaren aurrean ez da erantzule izango, efektuak mandatu-emailearentzat ematen baitira —mandatu-emailearen eta hirugarrenaren artean—.

(b) Mandatu-emailea. *Mandatugileak bete behar ditu mandatariak mandatuaren mugen barruan hartutako betebeharrak guztiak* (KZren 1727. art.). Ordezkaritzako mandatua bada, hirugarrenarekiko harremana zuzena da, bestela berriz ez.

Iraungitzeari begira, kontratu oro iraungitzeko kausez gainera, hauek jasotzen ditu legeak (KZren 1732. art.):

- (1) Errebokazioz: mandatu-emaileak mandatua erreboka dezake.
- (2) Mandatu-hartzaileak mandatuari uko egitea: mandatu-emaileari jakinarazi behar dio kontratua uzten duela.
- (3) Mandatu-emailea edo mandatu-hartzailea hiltzea, porrot egitea edo kaudimenik gabe geratzea.

6.4.- ARTEKARITZA-KONTRATUA

Erabileratik sortutako kontratua da, zeinaren arabera norbaiten zeregina izango baita negozio juridiko bat gauzatzeko bi alderdi edo gehiago harremanetan jartzea (*mediación o corretaje*). Esate baterako, aseguru-kontratuak, eskuarki, artekari bidez egiten dira (*correduría de seguros*), horrek jartzen baititu harremanetan aseguru-etxea eta partikularra. Gauza bera gertatzen da frontoian apustuak egiteko; apustu-kontratua bi partikularrek egiten badute ere, artekariaren gestioz egiten dute. Gauza bera gertatzen da burtsan akzioak erosi nahi izanez gero.

Auzitegi Gorenak definizio hau eman du: *contrato en virtud del cual una persona encarga a otra que le informe acerca de la oportunidad de concluir un negocio jurídico con un tercero o que le sirva de intermediario, realizando las oportunas gestiones para conseguir el acuerdo de voluntades en caminado a su realización, a cambio de una retribución.*

Kontratua atipikoa denez, alderdiek hitzartutakoa izango da lehenik kontuan eta, askotan, kontratazio-eremu horretan sortutako ohiturak; azken batean, soilik, antzeko beste kontratuen arauak izango dira aplikagarri, aplikatuta badaitezke.

Artekariak, negozio nagusia sortzen bada, saria kobratzeko eskubidea izango du bere lanaren ordain gisa.

Esate baterako, aseguruaren alorrean lege honek du indarra: *Ley 26/2006, de 17 de julio, de mediación de seguros y reaseguros privados*. Harremana honela definitzen du legeak: *Las actividades a que se refiere el artículo 1 comprenderán la mediación entre los tomadores de seguros o de reaseguros y asegurados, de una parte, y las entidades aseguradoras o reaseguradoras autorizadas para ejercer la actividad aseguradora o reaseguradora privadas, de otra. A tales efectos, se entenderá por mediación aquellas actividades consistentes en la presentación, propuesta o realización de trabajos previos a la celebración de un contrato de seguro o de reaseguro, o de celebración de estos contratos, así como la asistencia en la gestión y ejecución de dichos contratos, en particular en caso de siniestro* (2.1 art.).

6.5.- MAILEGU-KONTRATUA

Legeak kontzeptu hau ematen du: *Mailegu-kontratuaren bidez, alderdi batek besteari ematen dio gauza suntsiezin bat, horrek epe zehatzean gauza erabil dezan, eta, ondoren, berari itzul diezaion; kontratu horri komodatu deritzo. Edo, bestela, dirua edo beste gauza suntsikorren bat eman daiteke, horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko baldintzapean; kasu horretan, kontratuak mailegu izenari eusten dio soil-soilik (KZren 1740. art.).*

Beraz, bi mailegu mota daude:

(1) **Komodatua**

Alderdi batek (komodatu-emaileak) beste bati (komodatu-hartzaileari) zerbait ematen dio, azken horrek erabil dezan eta gero itzuli. Beraz, ez dio jabetza-eskubidea eskualdatzen, erabiltzeko ahalmena besterik ez.

Berez, ezaugarri hauek ditu: erreala da, existitzeko nahitaezkoa baita gauza ematea; aldebakarrekoa, komodatu-hartzailearentzat bakarrik sortzen baititu betebeharrak —erabili eta gero gauza itzultzeko betebeharra—; doakoa, izan ere *zerbitzu-sariren bat ordaindu behar badu erabilera jasotzen duenak, bitzarmenak komodatu izateari uzten dio*; beste kontratu bat izango litzateke —errentamendua— (KZren 1741. art.); iraupenez mugatua da, epealdi baterakoa. Esate baterako, gurasoek etxebizitza uztea ezkondu berri zaien umeari eta ezkontideari.

Hauek dira kontratua osatzen duten elementuak:

- (1) **Pertsonala.** Batetik, komodatu-emailea edo mailegu-emailea, gauzaren erabilera uzten duena, gauzaz gozatzeko ahalmena duelako. Bestetik, komodatu-hartzailea edo mailegu-hartzailea, gauza jaso eta itzuli behar duena.
- (2) **Erreala.** Komodatuaren objektuak kontsumi ezin daitekeen gauza izan behar du, jasotako gauza berbera itzuli beharko baita; eta higigarria edo higieztina izan daiteke.
- (3) **Formala.** Egiteko askatasuna dago, baina gauza ematen denean sortzen da.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira **alderdi bakoitzaren betebeharrak**:

- (1) Komodatu-emaileak, behin **gauza eman** eta kontratua sortu ostean, ez du beste betebeharririk.
- (2) Komodatu-hartzaileak, **gauza erabiltzeko eskubidea du eta gauza jaso zuen egoera berean itzultzeko betebeharra**. Gauza gaizki erabiltzen badu edo galtzen badu, kaltearen erantzukizuna izango du (KZren 1744. art.).

Kontratuak iraungitzeko kausak kontuan izanda, nagusiki iraungiko da epea agortzean, erabilera amaitzean, edo komodatu-emaileak itzultzea eskatuz gero.

(2) **Elkarrekiko mailegua edo mailegu hutsa**

Alderdi batek (mailegu-emaileak) beste bati (mailegu-hartzaileari) gauza suntsigarri bat ematen dio, eta hark mota eta kalitate bereko beste hainbat itzultzeko betebeharra hartzen du: *norbaitek dirua edo beste gauza suntsikorren bat maileguan hartzen badu, horren gaineko jabetza eskuratzen du, eta betebeharra du hartzekodunari horren espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko* (KZren 1753. art.). Gainera, *mailegu soila dohainekoa izan daiteke, edo interesak ordaintzeko itunarekin egin daiteke.* (KZren 1740. art.).

Kontratua berez erreal da, alegia, beharrezkoa da gauza ematea; aldebakarrekoa, mailegu-hartzaileak bakarrik baitu betebeharra; dohakoa, interesak hitzartu eta kostubidezko egiten ez bada behintzat; iraupenez mugatua, gauza emateko eta itzultzeko data jartzen baita. Gainera, gauza suntsigarriaren jabetza-eskubidea eskualdatzen da, ez baita gauza bera itzultzen, baizik eta mota eta kalitate bereko beste bat.

Kontratua osatzen duten elementuak, berriz, hauek dira:

(1) **Pertsonala.** Mailegu-hartzaileak —gauza suntsigarria jasotzen duenak—, kontratatzeko gaitasun orokorra izan beharko du, eta emantzipatua dagoen adingabea bada, bere legezko ordezkariaren baimena beharko du. Mailegu-emaileak —gauzaren gaineko jabetza-eskubidea eskualdatzen duenak—, kontratatzeko gaitasun orokorra izan eta maileguan eman den gauzaz baliatzeko ahalmena izan beharko du.

(2) **Erreal.** Gauzak berez suntsigarria izan behar du; hau da, bere ordezkari beste mota bateko eta kalitate bereko gauza itzuli behar baita. Esaterako, mailegurik ohikoena dirua ematea da.

(3) **Formala.** Askatasun printzipioa jarraitzen da.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira **alderdi bakoitzaren betebeharrak**:

(1) Mailegu-hartzailearena: *Hartzen duenak (...) betebeharra du (...) espezie eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko* (KZren 1753. art.); hori da bere betebeharr nagusia.

(2) **Mailegu-emaileak ez dauka betebeharririk.**

Mailegu berezien artean zabalduena eta garrantzitsuena diruaren mailegua da, interesekin egindakoa. Horrela, mailegu-hartzaileak, jasotakoaren parekoa itzultzeko betebeharrak gainera, interesak ordaintzeko betebeharra ere izango du. Interesak ez baziren hitzartu eta mailegu-hartzaileak ordaindu bazituen, zera agintzen da: *ordaindu eta gero, ezin ditu interesak erreklamatu, ezta horiek kapitalari egotzi ere* (KZren 1756. art.). Gogoratu itzultzeko betebeharrak hori diruzko betebeharra dela, eta horrelakoentzat aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkiola.

6.6.- GORDAILU-KONTRATUA

Kontzeptu hau ematen du legeak: *Gordailua eratzen da, norbaitek inoren gauza jasotzen duenean, gauza hori zaindu eta itzultzeko betebeharrarekin* (KZren 1758. art.). Beraz, kontratu horretan, alderdi batek (gordailu-emaileak) beste bati (gordailu-hartzaileari) ondasun higigarria ematen dio, zaindu eta gero itzul dezan. Adibidez, segurtasunagatik banketxean gorde badira bitxiak, edo erositako petrolioa beste enpresa baten biltegian gorde bada.

Ezaugarriei dagokienez, berez erreal da, kontratua gauzatzeko beharrezkoa baita gauza gordailuan ematea; dohakoa, kostubidezkoa izan badaiteke ere — *gordailua dohaineko kontratua da, horren aurkako itunik izan ezean*—; eta aldebakarrekoa, dohakoan gordailuan emandakoa itzultzeko betebeharra bakarrik sortzen baita, kostubidezkoan aldebikoa bada ere.

Gordailu mota hauek bereizten dira:

(1) **Zibila eta merkataritzakoa.** Lehenengoa Kode Zibilak arautzen du eta bigarrena Merkataritzako Kodeak. Azken horiek, merkatarien artean egin eta gordailuan emandako gauzak, merkataritzako objektuak izaten dira.

(2) **Judiziala eta judizioz kanpokoa.** Judiziala izaten da epaileak auzian dauden ondasunen bahiketa agintzen duenean (KZren 1785. art.); bahiketa judiziala deritzo, eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legeak arautzen du. Judizioz kanpokoa, aldi berean, nahitaezkoa edo borondatezkoa izan daiteke: borondatezkoa da benetako kontratua, gauza borondatez ematen baita gordailuan uzteko (KZren 1763. art.); nahitaezkoa izango da legearen aginduaren arabera egiten bada, eta legeak berak arautuko du (KZren 1781.1 art.).

Hauek dira kontratuaren elementuak:

(1) **Pertsonala.** Gordailu-emaileak ondasuna ematen du eta gordailu-hartzaileak gauza jasotzen eta zaintzen du, hura itzuli arte.

(2) **Erreal.** *Gauza bigigarriak bakarrik izan daitezke gordailuaren objektu* (KZren 1761. art.).

(3) **Formala.** Kontratua sortzeko, nahi den forma jarrai daiteke.

Edukiaren ikuspegitik, hauek dira sortzen diren **betebeharrak**:

(1) Gordailu-hartzailearenak. Garrantzitsuena **gauza zaintzeko betebeharra da**. Ezin du, gordailu-emailearen aipatze bidezko baimenik gabe, gauza erabili. Baimen hori emanaz gero, beste kontratu bat sortzen da: mailegua edo komodatua (KZren 1768. art.). Gauza erabiltzen badu, kalte-galerak ordaintzeko betebeharra izango du. Azkenik, gauza itzultzeko betebeharra izango du gordailu-emaileak eskatu bezain pronto (KZren 1766. art.); baina, erretentzeko eskubidea ere badu.

(2) Gordailu-emailearenak. **Doakoa bada, ez du betebeharririk izango**. Kostubidezkoa bada, hitzartu dena ordaintzeko betebeharra izango du. Gauza

zaintzeak sortutako gastuak ordaindu beharko ditu, eta kalteak ere bai (KZren 1779. art.).

Iraungitzeari begira, berezitasunik nabarmenena, gordailu-emaileak eskatzean ematea da iraungitzeko modurik ohikoena.

7.7.- FIDANTZA-KONTRATUA

Fidantza-kontratua ***berme pertsonala emateko kontratua da***. Kontratu horren arabera, betebeharrak bateko hartzekoduna eta zorduna ez den beste hirugarren bat lotzen dira, zordunak betebeharrak betetzen ez duen kasurako hark hartzen baitu betetzeko betebeharrak: *Fidantzaren bidez, norbaitek betebeharrak du, hirugarrenaren ordezkiz, zerbait ordaindu edo betetzeko, hirugarrenak hori egiten ez badu* (KZren 1822. art.).

Ondorioz, bereizi behar dira:

- (1) ***Betebehar nagusia***. Hartzekodunaren eta zordunaren artekoa.
- (2) ***Betebehar osagarria***. Hartzekodunaren eta fidatzailearen artekoa. Betebehar hori subsidiarioa da berez, zordunak bere betebehar nagusia betetzen ez duen kasuan bakarrik eska ahal izango baita.

Berez, beraz, fidantza-kontratua osagarria da, beste betebehar nagusi bati lotua baitago. Horretaz gainera, adostasunezkoa da, doakoa (kontraktorik adierazten ez den bitartean) eta aldebakarrekoa.

Fidantza-kontratua, nola sortzen den kontuan izanda, izan daiteke:

- (1) ***Hitzarmenezkoa***. Alderdien artean egindako kontratua bada.
- (2) ***Legezkoa***. Betebeharrak betetzea legeak ezartzen badu.
- (3) ***Judiziala***. Auzi batean, betebeharrak epaileak ezartzen badiu alderdi bati (KZren 1828. art.).

Elementu hauek osatzen dute fidantza-kontratua:

- (1) ***Pertsonala***. Fidantza-kontratuan alderdiak dira betebehar nagusiko hartzekoduna eta fidatzailea. Horiek kontratua egin dezakete zordunak parte hartu gabe, eskuarki hirurak bat eginda agertzen badira ere.
- (2) ***Errealak***. Kontratuaren objektua betebehar nagusia da, fidatzen dena. Betebehar nagusiak existitu eta baliozkoa izan behar du.
- (3) ***Formalak***. Askatasun-printzipioa aplikatzen da, baina fidantzarik badela ez da uste izango, eta aipatze bidez egin behar da (KZren 1827. art.).

Kontratuaren edukia osatzen duen betebehar nagusia fidatzailearena da: bermatutako betebehar nagusia zordunak ez badu betetzen, fidatzaileak bete beharko du: *fidatzailearen betebeharrak zordun nagusiarena baino txikiagoa izan daiteke, baina ez*

handiagoa, bai kopuruari begira, bai baldintzek dakartzaten kargei begira (KZren 1826. art.); *ezin du barruan hartu berak jaso baino gebiago* (KZren 1827. art.). Hala eta guztiz ere, bi ñabardura egin behar dira:

- (1) **Desenkusa-onura ematen zaio.** Alegia, zordunak ez badu betetzen, fidatzailea behartu daiteke ordaintzera; baina zordunak ordaintzeko nahiko ondasunik balu, fidatzaileak uko egin ahal izango dio ordaintzeko eskaerari: *ezin da fidatzailea behartu hartzekodunari ordaintzera, aurretiaz ez bada egiten zordunak dituen ondasun guztien eskklusioa* (KZren 1830. art.). Finean, hartzekodunak, lehenik, zordunaren ondarea baliarazi behar du eta, hori agortu eta gero baliatu ahal izango du fidatzailearen betebeharra; bitartean, fidatzaileak badu aitzakia bere betebeharra ez betetzeko.
- (2) Fidantza, berez, solidarioa izan daiteke; orduan, desenkusa-onurarik ez da ematen, fidatzailea zordunarekin batera behartzen baita. Hau da, hartzekodunak, kreditua kobratzeko, zordunaren edo fidatzailearen aurka joatea aukera dezake.

Fidatzailearen betebeharra osagarria denez, zordunak duen betebeharra iraungitzearekin batera iraungiko da (KZren 1847. art.).

Zordunak betebeharra ordaindu ez eta fidatzaileak ordaintzen badu, hartzekodunaren posizioan subrogatuko da, eta haren kreditu-eskubidearen edukia osatuko dute ordaindutakoak eta eragindako kalte-galeren ordainak.

Betebehar nagusia ordaindu baino lehenago, fidatzaileak zordunari eska diezaioke fidantza kentzeko. Aukera hori izango du fidatzaileak kasu horietan (KZren 1843. art.): (a) ordaintzeko demanda judiziala jaso badu; (b) porrot eginda edo kaudimenik gabe baldin badago; (c) epea agortu bada; (d) zorra eska badaiteke; (e) hamar urte igaro eta gero, betebeharra betetzeko eperik ez bada ezarri.

Bukatzeko, bi egoera aitatu behar dira:

- (1) Fidantza-kidetzatza: betebehar nagusi berberaren erantzukizuna hartzeko fidatzaile anitz baldin badaude (KZren 1844. art.).
- (2) Azpifidantza: *fidantza-kontratua, zueinaren bidez fidantza-betebehar bat bermatzen baita.*

6. 8.- TRANSAKZIOA

Arazoren bat duten partikularrek auzi-prozesua saihestu nahi badute, kontratu bidez konpon ditzakete haien diferentziak. Oso esapide zabaldua da honako hau: hobe da konponketa txar bat, auzi on bat baino. Eta hori defendatzeko arrazoiak mota askotakoak dira: pertsonalak eta ekonomikoak, bereziki. Horretara zuzendutako instrumentu juridikoa da transakzioa: *transakzioa kontratua da, eta, horren bidez, alderdiek, zerbait eman, hitzeman edo atxiki, auzia hastea eragozten dute edo*

basitakoari amaiera ematen diote (KZren 1809. art.). Konturatu, nola egin daitekeen kontratua auzia hasita egonda ere, auziari amaiera jartzeko.

Transakzio-kontratuak ezaugarri hauek ditu: adostasunezkoa da; kostubidezkoa, alderdi bakoitzak zerbait lortzen baitu besteak lortzen duenaren truk; eta aldebikoa, alderdi bientzat ezartzen baitira betebeharrak, berez, elkarrekikoak.

Edukiari dagokionez, berriz, hauek dira alderdi bakoitzaren betebeharrak:

(1) **Pertsonala.** Gatazka juridikoa duten subjektuak; jarduteko gaitasuna behar dute, kontratua egiteko.

(2) **Errealia.** Alderdien arteko auzi juridikoa da. Ezin izango dira kontratuaren objektu izan: *pertsonen egoera zibilarekin, ezkontzaren arazoekin, ezta etorkizuneko mantenuarekin ere* (KZren 1814. art.).

(3) **Formala.** Kontratua egiteko forma-askatasuna dago.

Alderdiak behartuta daude kontratuan hitzartu dutena onartzera eta betetzera. Horrela, transakzioak gauza epaituaren indarra du alderdientzat, alegia, epaia izango bailitzan errespetatu beharko dute (KZren 1816. art.).

6.9.- ARBITRAJEA

Transakziorik ez bada lortu edo ez bada lortu nahi, hirugarren baten esku jarri behar da auzia. Botere publikoak horregatik antolatzen du justizia funtzio publiko gisa, eta hirugarren hori normalean epailea izaten da; baina ez nahitaez. Auzia jar daiteke epaile ez den beste norbaiten esku; ohikoena, aditu baten edo batzuen esku jartzea izango da.

Egun, lege honek arautzen du arbitrajea: *Ley 36/1988, de 5 de diciembre, de Arbitraje*. Legeak honela definitzen du: *contrato entre dos o más personas por el cual deciden someter una cuestión litigiosa, que existe entre ellos, a la decisión de uno o varios árbitros, cuya resolución se comprometen a acatar, excluyendo así toda intervención judicial*.

(1) Elementu pertsonalei dagokienez:

(a) Alderdiek, behartzeko gaitasun orokorra izateaz gainera, gatazkan duten objektuaz baliatzeko gaitasuna izan behar dute.

(b) Arbitroa, bere aldetik, pertsona naturala edo juridikoa izan daiteke; alderdiek gatazka konpontzeko ahalmena ematen diote arbitraje-kontratu bidez. Arbitroak izendatzea, alderdiek zuzenean edo hirugarren batek egingo du. Arbitro kopuruak beti bakoitia izan behar du. Gainera, arbitroen izaeraren arabera, honako hauek bereizten dira:

(a') Zuzenbidezko arbitrajea: arbitroek jardueran dauden abokatuak izan behar dute, zuzenbidezko arauen arabera konpondu behar baita gatazka.

(b') **Ekitatezko arbitrajea:** arbitro ezein pertsona gai izan daiteke, eta bere jakituria eta iritziarekin ebatziko du gatazka.

Arbitraje mota alderdiek hautatuko dute. Ez badute egiten, legeak ulertuko du ekitatezkoa nahi izan dutela; beraz, zuzenbidezkoa nahi bada, aipatze bidez agindu behar dute alderdiek.

(2) **Elementu erreala.** Kontratuaren objektua da alderdien artean sortu den edonolako bat ez etortzea, gatazka eragin duen ezein eskubide.

(3) **Elementu formal.** Idatziz jaso behar da, dokumentu pribatua nahiz publikoan. Askotan, kontratu bateko klausula moduan agertzen da. Idazkiak honako hau jaso beharko du: arbitrajearen mende jartzeko borondatea; arazoa zehaztea; arbitro kopurua, beti bakoitia; arbitroek emandako erabakia betetzeko borondatea.

Prozedurari dagokionez, legearen arabera, alderdiek askatasuna dute prozedura zein izango den hitzartzeko; hau da, arbitroek gatazka konpontzeko jarraitu beharko dituzten pausoak adosteko. Hala ere, prozedura horrek nahitaez fase batzuk izango beharko ditu, legeak horrela agintzen baitu. Arbitroek alderdiek ezarritako epearen buruan eman beharko dute laudoa —erabakia—, baina gehienez ere sei hilabeteren buruan, legearen arabera; hala ere, epea luza daiteke akordio bidez.

Arbitraje-laudoak amaiera ematen dio arbitrajearen lehenengo instantziari, eta badago helegitea tarteratzeko aukerarik. Laudoak gauza epaituaren eragina izango du, irmo bilakatu eta gero: *el laudo se convierte en firme bien porque contra él no se ha interpuesto el Recurso de Anulación ante la Audiencia Provincial del lugar donde se hubiera dictado el Laudo, o bien que interpuesto tal recurso el mismo haya sido desestimado confirmándose el Laudo arbitral.*

6. 10.- BESTE KONTRATU TIPIKO BATZUK

(1) **Garraio-kontratua.** Garraiatzeko betebeharraren objektu izan daitezke pertsonak edo gauzak. Hartara, garraio mota bakoitzak bere legeria berezia du, eta bertan islatzen dira sortzen diren betebeharrak eta erantzukizunak. Esate baterako, *Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres: 1. Se regirán por lo dispuesto en esta Ley: Los transportes de viajeros y mercancías, teniendo la consideración de tales aquellos realizados en vehículos automóviles que circulen sin camino de rodadura fijo, y sin medios fijos de captación de energía, por toda clase de vías terrestres urbanas o interurbanas, de carácter público, y asimismo, de carácter privado, cuando el transporte que en los mismos se realice sea público. Las actividades auxiliares y complementarias del transporte, considerándose como tales a los efectos de esta Ley, la actividad de agencia de transportes, la de transitario, los centros de información y distribución de cargas, las funciones de*

almacenaje y distribución, la agrupación y facilitación de las llegadas y salidas a través de estaciones de viajeros o de mercancías, y el arrendamiento de vehículos. Los transportes por ferrocarril, considerándose como tales aquéllos en los que los vehículos en los que se realizan circulan por un camino de rodadura fijo, que les sirve de sustentación y de guiado, constituyendo el conjunto camino-vehículo una unidad de explotación. 2. Los transportes que se lleven a cabo en trolebús, así como los realizados en teleféricos u otros medios en los que la tracción se haga por cable, y en los que no exista camino de rodadura fijo, estarán sometidos a las disposiciones de los títulos preliminar y primero de la presente Ley, rigiéndose en lo demás por sus normas específicas. Serán de aplicación, no obstante, al transporte por cable las reglas establecidas en la disposición adicional tercera.

(2) **Edizio-kontratua**: por el contrato de edición el autor o sus derechohabientes ceden al editor, mediante compensación económica, el derecho de reproducir su obra y el de distribuirla. El editor se obliga a realizar estas operaciones por su cuenta y riesgo en las condiciones pactadas y con sujeción a lo dispuesto en esta Ley (RDLeg 1/1996, de 12 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual, 58. art.).

(3) **Agentzia-kontratua**: por el contrato de agencia una persona natural o jurídica, denominada agente, se obliga frente a otra de manera continuada o estable a cambio de una remuneración, a promover actos u operaciones de comercio por cuenta ajena, o a promoverlos y concluirlos por cuenta y en nombre ajenos, como intermediario independiente, sin asumir, salvo pacto en contrario, el riesgo y ventura de tales operaciones (Ley 12/1992, de 27 de mayo, sobre Contrato de Agencia).

(4) **Frankizia-kontratua**: la actividad comercial en régimen de franquicia es la que se lleva a efecto en virtud de un acuerdo o contrato por el que una empresa, denominada franquiciadora, cede a otra, denominada franquiciada, el derecho a la explotación de un sistema propio de comercialización de productos o servicios (Ley 7/1996, de 15 de enero, de Ordenación del comercio minorista).

(5) **Publizitate-kontratua** (Ley 34/1988, de 11 de noviembre, general de publicidad):

(a) **Contrato de difusión publicitaria** es aquél por el que, a cambio de una contraprestación fijada en tarifas preestablecidas, un medio se obliga en favor de un anunciante o agencia a permitir la utilización publicitaria de unidades de espacio o de tiempo disponibles y a desarrollar la actividad técnica necesaria para lograr el resultado publicitario.

(b) **El contrato de patrocinio publicitario** es aquél por el que el patrocinado, a cambio de una ayuda económica para la realización de su actividad deportiva, benéfica, cultural, científica o de otra índole, se compromete a colaborar en la publicidad del patrocinador.

12. IKASGAIA

EZKONTZAREN EKONOMIA

AURKIBIDEA. 1.- Etxe-boterea. 2.- Ezkontza-hitzarmenak. 3.- Ezkontza-erregimenak: 3.1.- Ondasun-banatzeko erregimena. 3.2.- Parte-hartze erregimena. 3.3.- Irabazpidezko sozietatea. 3.3.1.- Ondasun komunak eta pribatiboak. 3.3.2.- Zorrak. 3.3.3.- Desegitea eta kitatzea.

1.- ETXE-BOTEREA

Batera bizitzeak sortzen dituen gastuak, zorrak, ezkontideen premiak asetzeko bereganatutako betebeharrak, eta abar.

Ezkontide bakoitzak familiaren eguneroko premiei aurre egiteko beharrezko egintzak gauza ditzake, lekuko usadio eta inguruabarren arabera.

2.- EZKONTZA-HITZARMENAK

Ezkontideek edo ezkongaiak notario baten aurrean egiten duten dokumentua, haien ezkontza ze eraentza ekonomikok arautuko duen erabakitzeke. Ezkontza-hitzarmenak ez badira esleitzen, aplikatuko den eraentza *IRABAZPIDEZKO SOZIJETATEA* izango da.

Eskritura publikoan egin behar da, alegia, notario aurrean. Halaber, Erregistro Zibilean inskribatu behar da, hirugarrenen aurrean efektuak sortzeko. Hala ere, esleitzen den unetik, eragina dauka ezkontideen artean. Dokumentu horrekin erabakitzen da ezkontzaren eraentza ekonomikoa. Behin baino gehiagotan esleitezke.

Ezkontza-hitzarmenak ezkongaien artean esleitzen direnean, haien geroko ezkontzarentzat legeak aurreikusten duen eraentza aldatu nahi da. Ezkontideen artean esleitzen denean, haien ezkontza eraentzen duen eraentza aldatu nahi da. (ezkontza-hitzarmenak esleitu gabe ezkontzen bazara, *IRABAZPIDEZKO SOZIJETATEAK* arautuko du, baina gero nahi duzun beste aldatu ahal izango duzu).

Ezkontza-hitzarmena baliagarria izateko, eskritura publikoan jaso behar da. Ezkongaiak ezkontza-hitzarmenean jaso duten eraentzak ez du eraginik izango, urtebete pasa eta gero ez badira ezkondu.

Egintza norberak konplitu beharrekoa da. Hori dela-eta, adin txikikoak ezkontza-hitzarmenak esleitu ditzake, bere legezko ordezkariaren *laguntzarekin*. Legezko ordezkariak ez du adingabea erabat ordezkatzeko.

3.- EZKONTZA-ERREGIMENAK

3.1.- ONDASUN-BANATZE ERREGIMENA

Eraentza horren ezaugarri nagusia da ondasun multzo komun baten eza. Ezkontide bakoitzak dauka bere ondarea.

Ezkontide bakoitzak bereganatzen duen betebeharraren erantzukizuna hartzen du.

Balearretan eta Katalunian ezkontideek ez badute eraentza desberdin bat esleitzen, eraentza hori aplikatuko da.

Ondasun-banatzeko erregimenean, garrantzi handia dauka gastu komunei aurre egiteko gaiak. Kodeak gastu horiei aurre egiteko zera ezartzen du: ezkontide bakoitzaren ekarpena bere errekurtsuen arabera egingo da; zuzenki proportzionala da.

Etxean egiten den lana «zamei aurre egiteko egiten den ekarpen» gisa ulertzen da. Halaber, lan horrek, ondasun-banatzeko erregimena iraungitzen denean, eskubidea emango du konpentsazio bat lortzeko. Akordiorik ez badago, epaileak ezarriko du konpentsazio horren kopurua.

Erregimen hori erabiltzen da ezkontide baten edo bien ondarea babesteko.

3.2.- PARTE-HARTZE ERREGIMENA

Eraentza horretan ez dira nahasten ezkontideen ondasunak, erabat banatuta daude. Hala ere, desegiten denean, kontuak egin behar dira. Kontuak egiten direnean, irabazitzat hartuko dira ezkontzan zehar eskuratutako edo jasotako

ondasunak. Irabazte horren kopurua erdibanatu egingo da. Orduan, gehien irabazi duen ezkontideak gehiegizko balioa eman beharko dio besteari (*berdintzea*)

HASIERAKO ONDAREA (A)	HASIERAKO ONDAREA (B)
60.000 EURO	0
AMAIERAKO ONDAREA (A)	AMAIERAKO ONDAREA (B)
300.000 EURO	120.000 EURO
GUZTIRA	GUZTIRA
240.000 EURO	120.000 EURO

240.000-120.000: 120.000 DIFERENTZIA
120.000/2: Ak Bri 60.000 eman behar dizkio

Erregimena iraungi behar den unean, ezkontide bakoitzarentzat hasierako eta amaierako ondarea kalkulatu behar da.

Hasierako ondarea. Honek barne hartzen du ezkondu baino lehenago zuena, eta ezkondu eta gero jaraunspen edo dohaintzen bidez jaso zuena. Azken ondasun horiek balioztatzeko, kontuan hartu beharko da eskuratu ziren unean zuten prezioa (inflazioarekin).

Amaierako ondarea. Ondasunak haien egungo balioaren arabera inbentariatuko dira. Landa bat orube bilakatu bada eta 600.000 euro balio badu, hori izango da kontuan hartuko den balioa.

Irabaztea, egonez gero, hasierako eta amaierako ondarearen arteko diferentzia da.

3.3.- IRABAZPIDEZKO SOZIJETATEA

Ezkontza-hitzarmenak ez badira esleitzen, hori izango da ezkontzaren eraentza. Eraentza horri jarraiki, komunak egingo dira edozeinek lortutako irabazi edo onurak. Erregimena desegiten denean, irabaziak erdibanatu egingo dira.

3.3.1. IRABAZPIDEZKO ONDASUNAK ETA ONDASUN PRIBATIBOAK

- **Irabazpidezko ondasunak dira** ezkontza indarrean dagoen bitartean edozein ezkontidek lan edo industriaren etekin gisa eskuratutakoak. Ondasun higigarriak edo higiezinak zortearen, altxor bat aurkitzearen edo jokoan lortutako irabazien ondorioz eskuratu direnean, irabazpidezko ondasunak izango dira.

Irabazpidezkoak dira, baita ere, bai ondasun pribatiboek bai irabazpidezkoek sortzen dituzten fruituak, errentak edo interesak.

Ezkontzan dauden ondasunak irabazpidezkoak edo komunak direla susmatzen da, ezkontide bati pribatiboki dagozkiola frogatzen ez den bitartean.

Irabazpidezko presuntzioa

Frogak ez daudelako, ez badakigu ondasuna irabazpidezkoa edo pribatiboa den, irabazpidezkotzat hartuko da.

- **Ondasun pribatiboak.** Ezkontideak ezkondu baino lehenago zituen ondasunak, edo ezkondata zegoen bitartean jaraunspen, legatu edo dohaintzaz eskuratu zituenak.

Ondasun pribatiboak dira ezohiko baliorik ez duten arropa eta objektuak, eta lanbide bat garatzeko beharrezkoak diren tresnak. Halaber, pribatiboa da ezkontide batek jasotako kalte-galeren ordaina ere (aseguruak ordaintzen diona, hirugarren batek sortutako istripu baten ondorioz).

Bai komunak bai pribatiboak diren ondasunak ordezkari daitezke. Ondasun berri horiek ordezkatuaren izaera bera izango dute. Pribatiboen kontura edo horiek ordezkaturik eskuratu direnak ere pribatiboak izango dira.

Bikoteak zorrak baditu, hartzekodunek irabazpidezko ondasunen bitartez kobratuko dituzte haien kredituak; hori ez bada posible, pribatiboen bitartez.

Ondasunaren izaeraren gainean eztabaida baldin badago, berea dela baieztatzen duen ezkontideak frogatu beharko du hori.

3.3.2.- ZORRAK

Familiaren onurako edo interes komunak asetzeko bereganatu diren zorrak ordaintzeko, irabazpidezko ondasunak erabili behar ziren. Ezkontide bakoitzaren ondasunak, ordea, norberaren betebeharreari aurre egiteko erabili behar ziren.

Irabazpidezko zorrak dira ezkontide batek etxe-boterea egikaritzuz bereganatu dituenak: familiaren mantenua (elikadura, seme-alaben hezkuntza, eta abar); irabazpidezko ondasunen kudeaketa; norberaren lanak sortzen dituen zorrak.

Pribatiboak dira ondasun pribatiboen administrazioak sortzen dituen zorrak.

Ondasun erkidegoari diru pribatiboa maileguan uzten badiuzu, kontuan hartu beharko da kitapena egiterakoan. Gauza bera gertatzen da alderantziz ere.

3.3.3.- DESEGITEA ETA KITATZEA

Kitapenak zera barneratzen du:

- Aktibo komunaren inbentarioa. Ondasun pribatiboei egindako maileguak kontuan hartuko dira.
- Pasiboaren inbentarioa; sozietateak ordaindu gabe dituen zorrak. Kontuan hartuko dira ezkontide bakoitzaren ondarearekin izan ditzakeen zorrak.
- Zorrak ordaindu eta dirua itzultzea.
- Gaineratikoa erdibanatzea.

Noiz egiten da kitapena?

- ezkontza-hitzarmenean (aukeran)
- banaketa-dibortzioan
- heriotzan

13.- IKASGAIA

GINORDETZA, HERIOTZAREN ONDORIOZ

AURKIBIDEA. 1.- Jaraunspenaren dinamika. 1.1.- Jaraunspenaren figura. Jaraunspena eta legatua. 1.2.- Jaraunspena eskuratzea. Deialdia eta onartzea. 1.3.- Inbentario-onura. 2.- Ginordetzak (borondatezkoa, legezkoa). 2.1.- *Testamentua*. 2.2.- *Testamentu gabeko ginordetza*.

HIZTEGIA

Kausatzailea: hil dena.

Jaraunspena: jaraunspena jasotzen duena (ginordetza hartzen du, titulu unibertsalari jarraiki).

Legatua: legatu bat jasotzen du (ginordetza hartzen du, titulu partikularrari jarraiki)

Ondarea: kausatzailearen ondasunak (ondasunak, eskubideak edo betebeharrak)

1.- JARAUNSPENAREN DINAMIKA

Oinordetza-fenomenoa:

Pertsona bat hiltzen denean, beste norbaitek hartu behar du haren ondarearen ardura (kredituak, ondasunak eta zorrak). Beharrezkoa da beste norbaitek hildakoa ordezkatzeko haren ondasun eta zorren titulartasunean, baita haren ondarearen gobernuan eta administrazioan ere.

1.1.- JARAUNSLEAREN FIGURA. JARAUNSPENA ETA LEGATUA

OINORDETZA, TITULU UNIBERTSALARI JARRAIKI

Oinordetza. Hildakoaren lekuan titular berri bat jartzea. Haren lekua betetzen du eta ez beste batena.

Jaraunslea. Hil berri den pertsonaren lekuan jartzen den titular berria eta, inolako etenik eta aldaketarik gabe, haren harremanak jarraitzen dituena (eskubideak, betebeharrak, edukitza-babesa). Hildakoak zituen titulu eta eduki juridiko berdinekin jarraituko du.

Jaraunslea zein den jakiteko, ez dugu kontuan hartu behar zenbat jasotzen duen, baizik eta nola eta ze baldintzetan jasotzen duen. Horrela, jaraunsleak ondare guztia jasotzen du, beste batzuei legatuan ematen zaien ondasuna izan ezik.

OINORDETZA, TITULU PARTIKULARRARI JARRAIKI

Testamentugileak zera xeda dezake, bere ondarearen ondasun batzuk pertsona zehatz batzuei emango zaizkiela, opari edo dohaintza gisa.

Titulu partikularrari jarraiki ematen den oinarrizko oinordetza LEGATUA da. Legatua da testamentugileak beste pertsona bati egiten dion oparia. Testamentugileak bere ondarean dagoen gauza bat edo bere ondarearen kontura eskuratuko den gauza bat ematen dio. Oparia testamentugilearen heriotzaren ondoren emango da (jaraunslearen bitartez). Zorrak ezin dira legatuan eman.

1.2.- JARAUNSPENA ESKURATZEA. DEIALDIA ETA ONARTZEA

Jaraunspenera deitua izan den pertsonak kausatzailea hiltzen den une berean eskuratzen du bere eskubidea. Beraz, heriotza-unetik, jaraunspena onar dezake. Onartu edo uko egin gabe hiltzen bada, berak zuen eskubidea jaraunsleengana pasatuko da.

Jaraunslea da jaraunspena onartzen duena.

Jaraunspena bi modutan onar daiteke: era huts batean edo inbentario-onurekin. Halaber, onartzea esanbidezkoa edo isilekoa izan daiteke.

Jaraunspena onartzea hutsa denean (pura y simple):

Hildakoaren ondasunak eta zorrak jaraunseak dituen ondasun eta zorrekin nahasten dira.

Kausatzailearen hartzekodunek lehentasuna dute jaraunsearekiko, zorrak kobratzeko. Kausatzailearen ondarean ez badaude nahiko ondasun, jaraunsearen ondasunekin kobratuko dira. Egia esanda, ondare bera da.

1.3.- INBENTARIO-ONURA

Esanenez, onartzea hutsa edo *inventario-onura gabea* denean, jaraunseak geldituko da jaraunspenaren zama guztien erantzule gisa. Zorrei aurre egin beharko die kausatzailearen ondasunekin eta bere ondasunekin.

Jaraunseak zama horretatik askatzeko inventario-onura dago. Era horretan onartzen badu, ***ez dira ondareak nahasten*** eta bere erantzukizuna murriztu egiten da. Hau da, zorren erantzukizuna izango du, baina kausatzailearen ondarean dauden ondasunen bidez. Neurri horretan, beharrezkoa da kausatzailearen ondasunen inventarioa epealdi jakin batean egitea.

Esanenez, inventario-onurak jaraunseari ahalbidetzen dio bere ondasunak kausatzailearen ondaretik banandurik izatea. Kausatzailearen hartzekodunek ezin dituzte haien kredituak jaraunsearen ondasunen bitartez kobratu. Jaraunseak, beraz, murriztu egiten du bere erantzukizuna. Era horretan, onartzeko epe batzuk daude.

Jaraunspenean kobratzeko ordena:

- . kausatzailearen hartzekodunak
- . legatidunak
- . jaraunsearen hartzekodunak
- . jaraunseak

Jaraunspenaren izapideak:

- . inventarioa
- . balorazioa (eurotan adierazita)
- . zorrak ordaintzea – ondarea (jaraunspeneko ondasuna)
- . loteak
- . esleipenak

2.- OINORDETZAK (borondatezkoa, legezkoa)

Borondatezko oinordetza (kausatzailearen borondatea)

Testamentu bidezko jaraunspena edo jaraunse-deia

Legezko oinordetza

Hildakoak ez duenean testamentua egin, edo egin duen testamentua ez denean ageri. *Abintestato edo testamentu gabeko oinordetza.*

Jaraunseleen ordena honako hau izango litzateke:

- 1.- ondorengoak
- 2.- aurreko ahaideak
- 3.- alarguna
- 4.- albo-ahaideak, laugarren mailara arte
- 5.- estatua edo autonomia-erkidegoa

2.1.- TESTAMENTUA

Egintza bat da, zeinaren bidez pertsona bat bere heriotzaren geroko ondasun guztiez edo batzuez baliatzen baita.

Ezaugarriak

1.- Aldebakarreko egintza da.

Ez da kontratu bat. Testamentu-egileak bakarrik xedatzen du, eta haren xedatze-egintza baliagarria da, nahiz eta beste borondate batek ez onartu. Jaraunsele gisa deitua izan denak ez badu onartzen, testamentuak ez du eraginik sortuko. Ez du eraginik izango, baina baliagarria izango da.

2.- Pertsona bakarreko egintza da.

Pertsona bakar batek egiten du. Bi pertsonak edo gehiagok ezin dute egin era komun batean testamentua. Ezin dute egin testamentua instrumentu edo dokumentu bakar batean, elkarri onurarik ez ekartzeko, ezta hirugarren batentzat ere. Foru Zuzenbidean testamentu komuna onartzen da.

3.- Egintza norberak konplitu beharrekoa da.

Norberak egin behar du. Ezin zaio, erabat edo zati batean, hirugarren bati utzi.

4.- *Egintza formal da.*

Testamentuan adierazten den borondateak eragina izango du, beti ere legeak ezartzen dituen forma-betekizunak betetzen badira. Ez badira betetzen, ez bada legeak ezartzen duen moduan egiten, testamentua deuseza izango da.

5.- *Ezeztagarria.*

Testamentu baten xedapen guztiak ezeztagarriak dira, nahiz eta testamentugileak testamentuan adierazi ez dituela ezeztatuko. Testamentua da norberaren azken borondatea.

TESTAMENTU MOTAK

- 1) ***Testamentu irekia.*** Lekukoak ez dira beharrezkoak.
- 2) ***Testamentu itxia.*** Idatzi egiten da eta data jarri behar da. Testamentugilearen borondatea jasotzen duen papera itxita eta zigilua duen gutun baten sartzen da. Zabaltzen bada, zigilua apurtu egingo da. Testamentugileak notarioarengana joan behar du, eta haren aurrean adierazi aurkezten duen pleguaren barnean dagoela bere testamentua. Notarioak akta egingo du gutunazalean.
- 3) ***Testamentu holografoa.*** Adinez nagusiek bakarrik idatz dezakete.

Testamentugileak testamentua erabat idatzi eta sinatu behar du. Halaber, nahitaezkoa da adieraztea hura noiz egilesten den: urtea, hilabetea eta eguna. Zirriborroak agertzen badira, testamentugileak berak egin dituela adierazi beharko du, sinatuz. Atzerritarrek haien hizkuntzan egin dezakete. Betekizunak dira norberak idaztea, data eta sinadura.

2.2.- TESTAMENTU GABEKO OINORDETZA (*kausatzaileak ez duenean testamentua egiletsi*)

Jaraunsleen ordena honako hau izango da:

- 1.- ondorengoak
- 2.- aurreko ahaideak
- 3.- alarguna
- 4.- albo-ahaideak (laugarren maila)
- 5.- estatua edo autonomia-erkidegoa (Foru Aldundiak)

Jaraunspenetan, hurbilen dagoen ahaideak urrunago dagoena baztertu egiten du, ordezkaritza-eskubidea bidezkoa den kasuetan izan ezik. Maila berean dauden ahaideek neurri berean jarauntsiko dute.

Hiru seme-alaba izanez (a,b,c), jaraunspen adibidea:

Senipartea			Hobekuntza	Aske xedatze herena
A	b	c	1/3	1/3

1.

2.

3.

1.- Jaraunspen artean banatzea. Senipartea kentzea «desjaraunstea» da («desheredar»).

2.- Hobetzeko balio du (ondorengoentzat bakarrik).

3.- Nahi duguna egin dezakegu; edonori utz diezaiokegu.

